2019

Doctoral Thesis - *Doktorego Tesia*

Transdisciplinar Methodologies on Medieval and post-Medieval Pottery Analysis: An Archaeometric Approach to Basque and Riojan Productions

Erdi Aro eta Erdi Aro osteko buztingintzaren ikerketari buruzko metodologia transdiziplinarrak: Euskal eta Errioxar ekoizpenen azterketa arkeometrikoa

Estefania Calparsoro Forcada
Supervisor - *Zuzendaria*: Javier García Iñañez

Doctoral Programme in Scientific Cross-Disciplinary Approaches to Heritage and Landscape (SCAHL)
Diziplinarteko Estrategia Zientifikoak Ondarean eta Paisaian Doktorego Programa (DEZOP)

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
FACULTY OF ARTS
UNIVERSITY OF THE BASQUE COUNTRY

Contents

List of Figures

List of Tables

List of Acronyms

AAS Atomic Absorption Spectrometry
Absortzio Atomikoaren Espektrometria

alr additive log ratio
Zatiki Logaritmiko Gehigarria

CRM Certificate Reference Material
Erreferentziazko Material Zertifikatua

clr centered log ratio
Erdiratutako Zatiki Logaritmikoa

CE Current Era (Equivalent to AD)
Oraingo Aroa

ED-XRF Energy-Dispersive X-Ray Fluorescence
Energia Sakabanatzailezko X izpien Fluoreszentzia

EFT Equivalent Firing Temperature
Erreketa Tenperatura Baliokidea

ERC European Research Council
Europako Ikerketa Kontseilua

GUM Guide to the Expression of Uncertainty in Measurement
Neurketen Ziurgabetasuna Adierazteko Gida

HCA Hierarchical Cluster Analysis
Multzokatze Hierarkikoaren Analisia

HFSE High Field Strength Elements
Eremu Altuko Indar Elementuak

ICP-AES Inductively Coupled Plasma Atomic Emission Spectrometry
Induktiboki Akoplatutako Plasmaren Emisio Atomikoaren Espektrometria

ICP-MS Inductively Coupled Plasma Mass Spectrometry
Induktiboki akoplatutako plasmaren masa espektrometria

IUPAC International Union of Pure and Applied Chemistry
Kimika Puru eta Aplikatuko Nazioarteko Batasuna

NAA Neutron Activation Analysis
Neutroien aktibazio bidezko analisia

MIC Micaceous
Mikatsu

MINECO Ministerio Español de Economía y Competitividad *Ekonomia eta Lehiakortasunaren Ministerioa*

MURR Missouri University Research Reactor
Misuri Unibertsitateko Ikerketa Erreaktorea

CVM Compositional Variation Matrix
Konposizioa-Aldakortasun Matrizea

LDGP Laboratorio de Documentació Geométrica del Patrimonio
Ondarearen Dokomentazio Geometrikoaren Laborategia

LDPE Low Density Polyethylene
Dentsitate baxuko Polietilenoa

LOD Limit of Detection
Detekzio Muga

LOI Loss on Ignition
Erreketa Bidezko Galera

LOQ Limit of Quantification
Kuantifikazio Muga

LG Lead Glazed
Berunezko Beiratua

LR La Rioja
Errioxa

PCA Principal Component Analysis
Osagai Nagusien Analisia

PCRU Paste Compositional Reference Unit
Pasta Konposiziozko Erreferentzia-unitatea

RG Reference Group
Erreferentziazko Multzoa

SD Standard Deviation
Desbideratze Estandarra

SNR Signal to Noise Ratio
Seinale-Zarata Proportzioa

SEM-EDS Scanning Electron Microscopy-Energy Dispersive X-Ray Spectroscopy
Ekorketa bidezko Mikroskopio Elektronikoa - Energia Sakabanatzailezko X Izpien Espektroskopia

SU Stratigaphic Unit
Unitate Estratigrafikoa

TBC The Basque Country
Euskal Herria

TLG Tin Lead Glazed
Eztainu-Berunezko Beiratudunak

vt Total Variation
Aldakortasun Totala

XRD X-Ray Diffraction
X Izpien Bidezko Difrakzioa

Esker onak

Hemen aurkezten den lanak ez luke argirik ikusiko, hau aurrera eramateko prozesuan parte hartu duten pertsona eta erakundeengatik izan ez balitz. Lehenik eta behin, nire zuzendariari eman behar dizkiot eskerrak, urte guzti hauetan nirekin pazientzia handiz ideia bakoitza eztabaidatzeko prest egon delako, baita aukera eman didalako bere ikerketa-motibazioen gainetik, nire askatasunean jardun ahal izateko. Ikerketa hau CERANOR proiektuaren barne dago (HAR-2013-46853) eta haren jarraipena izan duen proiektuan ere, alegia, CERANOR-2 (HAR2017-84219-P). Biak dira Ekonomia eta Lehiakortasunaren Ministerioak finantziatutako proiektuak, hala nola, AEI/FEDER, EU eta lehenengoaren baitan asignatu zidaten, hain zuzen, ikerketa hau burutzeko izan dudan kontratua (BES-2014-068940).

Baliabide ekonomikoez gain, hainbat eragileek berebiziko garrantzia izan dute ikerketa honen bilakaeran. Esaterako, Eusko Jaurlaritzaren bidez, erregistro arkeologikoak gordeak dituen hamaika materialetara iristeko aukera izan dut. Bide batez, *Bizkaiko Arkeologia Museoko* Sonia Anibarrosi eskerrak eman nahi dizkiot, Urduñako zeramikak eskuragarri egiteagatik. Hortaz gain, Blanka Gómez de Segurari eskertzen diot, *Euskal Buztingintza Museoko* materialak gure esku jartzeagatik. Era berean, Errioxa aldean, *Consejería de Cultura de La Rioja* eta *ArqueoRiojako*, Teresa Angulo eta Fernando Porresi, Logroñoko zeramikak helarazteagatik eta haien inguruko ekarpenengatik. Azkenik, Javier Cenicerosi, *Museo Histórico Arqueológico Najerillensetik*, bertan gordeta dauden aurkikuntzak gurekin elkarbanatzeagatik.

Zeramika guzti horiek aztertu ahal izateko oraindik guztiz osaturik ez dagoen arkeometriako laborategi baten beharraren aurrean, atzerrian burutu ditudan ikerketa-egonaldiak oso aberasgarriak suertatu zaizkit, horregatik, eskerrak eman nahi nizkioke Michael Glascocki *The Archaeometry Laboratoryn* hiru hilabetez bere ezagutzak elkarbanatzeagatik. Era berean, Berlineko Carlos Morales-Merinori eta Frau Reicheri *Rathgen Forschunglsborera* gonbidatzeagatik. Garrantzia berdinarekin, departamentu desberdinen arteko benetako kolaborazioa ahalbidetu dutenei, hala nola, Gorka Aranari egindako ICP-MS analisi guztiengatik, Maite Magureguiri ED-XRFrekin prestatutako laguntzagatik, besteren artean. Gainera, UPV/EHU-ko SGIker-X Izpien Zerbitzu Orokorrak, LASPEAk ete Geokronologia eta Geokimika Isotopikoko

Ikerkuntza Zerbitzu Orokorrak eskainitako laguntza eta baliabide teknikoak ere eskertzekoak dira. Ezin ahaztu, Juanjo Larreak eskainitako laguntza desinteresatua Nafarroako historia buruz.

Era inpertsonalean eskertu nahiko nuke, software irekia garatzera dedikatzen diren anonimo guztiei eta hura lizentzia irekiarekin konpartitzera animatzen direnak zeinen lanari esker tesi honen atal asko aberastu edota posible izan dira (adibidez R-n sortutako pakete guztiak, LaTeX-eko txantiloiak, hainbat *script*, etab.).

Era pertsonalago batean, aipamen berezia egin nahiko nieke GPACeko ikerketa taldekideei egunero hor egoteagatik. Bestalde, urrutiago daudenak, baina nolabait proiektu hau gauzatzeko era batera edo bestera lagundu dutenak, Jaume Buxeda i Garrigósen kasua bezala, zeini esker bereziak eman nahi dizkiot, R eta LaTeX erakusteagatik.

Azkenik, nire familia, lagun eta bikoteari eskerrak, diren bezalakoak izateagatik eta lan hau egitera animatu nautelako, nahiz eta zertara dedikatzen ari naizen ondo ez jakin! Gainera, amaierako idazketa-prozesuan eta berrikuspenean lagundu didaten guztiei esker bereziak ematen dizkiet.



Figure 1: Ikerketa-egonaldiak egin diren tokiak ikerketa esparru geografikoa zehaztuz.

Part I

Background - *Aurrekariak*

We live on an island surrounded by a sea of ignorance. As our island of knowledge grows, so does the shore of our ignorance.
- John Archibald Wheeler -



Figure 0.2: Illustration based on the Illustrated guide to a PhD of Matt Might.

Chapter 1

Sarrera

Hemen aurkezten den doktorego-tesia Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Arkeologia, Geografia eta Historiaurrea Sailean eta unibertsitate beraren Kimika Analitikoko Sailarekin lankidetza estuan egindako hainbat urteko ikerketaren emaitza da. Askotan, ahoa betetzen zaigu proiektuen diziplinartekotasunaz hitz egiterakoan. Hala ere, horren atzean, maiz, bildu baino ez dira egiten diziplinak, benetako elkarrekintzarik edo elkarrizketarik gabe; hori bai, ikerketa-proposamenetarako ondo baino hobeto geratzen da. Aitzitik, aipatutako sailean Kimikako Lizentziarekin ikerketa-proiektu bat gauzatzeak, nahitaez, diziplinartekoa bihurtzen du lan hau, mugak gaindituz eta bi eremuen ezagutza elkarrekin trukatuz. Askotan, ez da erraza arkeologoen eta kimikarien artean lan egitea, arazo zientifikoei aurre egiteko modua eta haien ikuspegiak oso desberdinak baitira. Aitzitik, arkeologia-departamentu batean murgiltzeko abenturak ikerketaren esparrua aberastea ekarri du, eta hori hurrengo orrialdeetan islatzea espero dugu.

Duela gutxi proposatu den ereduari jarraikiz; doktorego-tesi honek, batetik, diziplina arkeometrikoaren aurrerapenera zuzendutako ikerketa eta, bestetik, iraganari buruzko ezagutza lortzeko errutina arkeometrikoen aplikazioa biltzen ditu (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017). Ikuspegi diziplinarteko integratua, atzeraelikadurako prozesu etengabean eta iteratiboan gauzatu da. Ildo horretan, errutina arkeometrikoen aplikazioak zeramikaren konposizioa aztertzeko R-n oinarritutako tresna konputazional berregingarriak eraikitzen lagundu du (4. kapitulua). Era berean, Euskal Herriko eta Errioxako zeramika ekoizteko zentroei buruzko ezagutza lortzeko erabili ziren errutina arkeometriko horiek (5. kapitulua) Erdi Aroko eta Erdi Aro osteko zeramika arkeologikoen sailkapen ez-suntsigarria garatzeko oinarri gisa hartu dira (6. kapitulua).

1.1 *Zeramikaren azterketa: zertarako?*

Definizio akademiko ohikoenaren arabera, arkeologiak giza elkarteak aztertzen ditu, haiek atzean uzten dituzten aztarna materialen bidez (González-Ruibal and Ayán Vila, 2018). Analizatzen diren material guztien artean, zeramikak berebiziko garrantzia du (Pérez-Arantegui, 2008), erakusten duen dualtasuna dela eta; alegia, dimentsio kulturala eta dimentsio naturala (Buxeda i Garrigós, 2008; Glascock, 2016; Roux, 2019; Fowler et al., 2019). Zeramikaren azterketaren motibazio nagusiak dimentsio kulturalarekin du zerikusia; hau da, aldaketa sozial, ekonomiko eta politikoen adierazle kronologiko eta kultural gisa duen eraginarekin (adib., Blomster et al. 2005). Ildo horretan, zeramika estu lotuta dago hura ekoiztu eta kontsumitu den testuinguruarekin (Fowler et al., 2019). Izan ere, zeramikek lehengaien eraldaketa bat jasaten dute artefaktu bilakatzeko. Prozesu horretan zenbait propietate fisiko bilatzen dira azken objektuari nahi diren gaitasunak (adib., moldagarritasuna) eta diseinu formala emateko, nahi den funtzioa bete dezan. Aldi berean, buztingileak teknika bat edo beste hautatzea haren trebetasun teknikoek, ohiturek eta bizi den gizartearen testuinguru kulturalak baldintzatuko dute. Aipatu beharra dago teknologiaren eta teknikaren arteko desberdintasunak ezagutza zientifikoaren aplikazioarekin zerikusia duela. Teknologia, dagokion jarduerari ezagutza zientifikoa aplikatzen zaionean esaten da, eta, aldiz, teknikarekin, zientzia aurreko buztingilearen ogibideaz ari gara; hau da, ezagutza zientifikorik aplikatzen ez zen garaiaz.

Beraz, zeramika aztertzeko metodologia egokiei jarraikiz, iraganeko gizarteei buruzko hipotesi solidoak formula daitezke (Roux, 2019; Fowler et al., 2019), eta garrantzi berezia hartzen dute beste dokumentazio-iturri erabilgarririk ez dagoenean. Hala ere, hori guztia zeramikaren dimentsio naturalari esker bakarrik da bideragarria, haren egoera materialari lotuta baitago eta honako ezaugarri hauek baititu:

- Nonahikotasuna (ubikuitatea): zeramikaren hedapen kronologikoari eta banaketa geografikoari erreparatuz, ezagutzen den material zabalduena da. Erregistro arkeologikoko objektu bakanetako bat da indusketa arkeologikoetan zein gainazaleko prospekzioetan agertzen dena (Escribano, 2014).

- Ugaritasuna: lehengai nagusia (buztina) gizateriarentzat eskuragarri egon da betidanik. Horrenbestez, iraganaren testuinguru arkeologikoan, gehien agertzen den kultura materialeko elementua da.

- Iraunkortasuna: erregistro arkeologikoan kontserbatzeko baldintza ezin hobeak ditu. Zumeak, egurrak, oihalek eta beste material organiko batzuek bizi-ziklo askoz laburragoak dituzte. Era berean, beirak edo metalezko objektuek birziklapen-prozesuak jasaten dituzte. Beraz, zeramiken kasuan ez bezala, horiek kultura jakin batekin izan dezaketen lotura ezagutzea larriki edo erabat oztopatzen da.

Arkeologian egiten diren galdera askori ezin zaie erantzun aztarna materialen behaketa zuzenaz lortutako informazioaren bidez. Galdera horietako batzuei aztarna horiek duten alderdi naturalaren bidez erantzun behar zaie; izan ere, aztarnak objektu materialak dira (Neustupny, 1971; Buxeda i Garrigós et al.; Buxeda i Garrigós et al., 1995; Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández, 2017). Zeramika arkeologikoak material konposatuak dira eta bi azpitaldetan sailkatzen dira: sinpleak eta konplexuak. Alde batetik, zeramika sinpleek ez dute estaldurarik, baizik eta, gehienez, kanpotik aplikatutako apaindurak, edonola ere, substantzia berririk gehitu gabe. Bestalde, zeramika konplexuek estaldurak, beiratuak edota engobeak dituzte. Bi kasuetan, gorputz zeramikoa osagai plastikoek eta ez-plastikoek (sendogarriak) osatzen dute. Osagai horien nahasketak ezaugarri bereziak sortzen ditu; besteak beste, testura, kolorea, egoera koloidala, plastikotasuna, lehortzea, eta partikulen tamaina. Gainera, baliteke ezpurutasunak egotea buztinetan edo erantsitako sendogarrietan. Gehigarri horien artean, hauek erabiltzen dira maiz, besteak beste: kuartzoak, feldespatoak, mikak, karbonatoak, burdin oxidoak eta materia organikoa (landaredia, material bituminosoak, etab.) (Shepard, 1956).

Aipatutako osagaiak biltzen dituen nahasketa bat lortutakoan, erre egiten da. Erreketa-prozesuak hiru etapa nagusi ditu (Rice, 1996; Shepard, 1956). Lehenengo etapa (i) *deshidratazioa* da eta plastikotasunaren galera dakar. Bigarren etapa (ii) *oxidazioa* da, eta etapa horretan CO_2-a askatzen da eta konposatu kimikoek erreakzionatu egiten dute, konposatu berriak sortuz eta kolore-aldaketak eraginez. Giroan oxigeno nahikorik ez badago (zenbait kasutan nahita eragiten da), kolore grisaxkak lortzen dira, burdin osagaien erredukzioa dela eta; kasu horietan, erredukziozko erreketaz ari gara. Hala ere, eskuarki, erreketa ingurune oxidatzailean gauzatzen da. Hirugarren etapa (iii) *bitrifikazioa* da, eta etapa horretan osagaiak matrize amorfo bat bilakatzen dira. Tenperaturaren arabera, zeramikazko egiturak hainbat sinterizazio-maila lor ditzake; horrela, partikulak maila desberdinetan itsasten dira beren artean (Shepard, 1956). Aldaketa horiek SEM irudien bidez ebalua daitezke, zeramikazko egiturak duen mikroegitura behatuta.

Sendogarriak zeramikari eransten zaizkion materialak dira (harea, landare-zuntzak, hondarra, maskorra, harri birrindua, zeramika hautsia). Erreketa-aldian gehiegizko uzkurdura saihesteko gehitzen dira, besteak beste; horrela, piezen pitzadura ekiditen da. Sendogarri moten artean, hareak, harriak eta material organikoak daude (maskorrak, erretako azalak, etab.). Sendogarri arruntenek feldespatoak, zeramika pusketak, kuartzoa, beira bolkanikoa, karbonatoak eta mika hartzen dituzte barne. Feldespatoak egonkorrenen artean daude, eta karbonatoak, berriz, ezegonkorrenen artean. Txamota[1] ere erabiltzen da zeramika-piezei trinkotasuna emateko. Txamota zeramika zati txikiz osatuta dago, eta, aldez aurretik erre denez, ez da askorik uzkurtzen. Adibide gisa, Mexiko Berriko eta Arizonako Pueblo indiar komunitateko

[1]Ingelesez, *grog*; frantsesez, *chamotte*; eta gaztelaniaz, *chamota*.

buztingileen lana dugu; izan ere, pieza hautsiak erabiliz ekoizten dute zeramika berria, iraganarekiko etenik gabeko loturari eutsiz (Grugel, 2005).

Zeramika konplexuetan, estaldurak aplikatzen dira (pinturak edota beiratuak barne). Estaldura horiek hiru modutara aplikatu ohi dira. Batetik, aldi berean aplika daitezke lehen erreketan (adib., pigmentu mateak). Bestetik, aldez aurretik erretako gorputz zeramikoari aplikatu ahal zaizkio. Behin bakarrik erretako piezari *bizkotxoa* esaten diogu, eta, normalean, eztainu-berunezko beiratuak dituzten zeramikak ekoizteko erabiltzen da. Azkenik, hirugarren erreketa bat ezar daiteke beiratutako piezaren gainean, isla metalikoak lortzeko erabili izan dena luze (Conesa, 2011).

Estalkietarako erabiltzen diren konposatuek baldintza jakin batzuk bete behar dituzte aplikagarriak izateko; esaterako, egonkortasun termiko nahikoa eta hedapen-koefiziente zehatz batzuk izatea. Izan ere, faktore horiek estaldura-gainazalarekin izango duten itsaspenean eragingo dute (Molera et al., 1997). Beruna luze erabili izan da beiratuetan, bi arrazoi nagusirengatik: alde batetik, urgarri gisa erabil daitekeelako; eta, bestetik, buztinarenaren antzeko hedapen-koefizientea duelako. Aitzitik, koefiziente horiek desberdinak direnean, baliteke beiratuak pitzatzea edo haustea (Tite et al., 1998). Gainera, egonkortasun termikoa ez duten pigmentuak ere erabiltzen dira, baina haiek erreketaren ondoren bakarrik ezar daitezke; beraz, beiratze-prozesurik jasaten ez dutenez, itxura guztiz desberdina dute. Pigmentu horien adibide ditugu malakita, azurita edota limonita, zeinak berdea, urdina eta horia lortzeko erabiltzen diren, hurrenez hurren (Shepard, 1956).

Beiratutako zeramikek duten konplexutasuna dela eta, aparteko ikerketa-lerro bat eskatzen dute (Tite et al., 2008). Horrenbestez, hemen zenbait pista baino ez dira emango testuinguruan kokatzeko. Lehenik eta behin, funtzioari dagokionez, apaintzeko edota piezak iragazgaizteko aplikatzen dira estaldurak. Horrenbestez, asko erabiltzen dira baxeran, hala nola likidoak gordetzeko ontzietan. Tradizionalki, beiratu mota ugari badaude ere, Iberiar penintsulan, harea, beruna eta metal oxidoak nahasiz lortutakoak dira ohikoenak. Gainera, eztainu-berunezkoak erabili dira apaindurarik gabeko pieza zuriak lortzeko edota zuriaren gainean apaindura monokromoak edo polikromoak ezartzeko. Beruna urgarri gisa erabiltzen da, eta metal oxidoetan oinarritzen diren pigmentuak beiratuaren gainetik edo azpitik aplika daitezke, lehen aipatu bezala bi edo hiru urratseko teknologiak erabiliz (Molera et al., 1997).

Beiratu zuri opakua lortzeko gehien erabiltzen den osagaia kasiterita da (SnO_2). Izan ere, arestian aipatutako propietate egokiak ditu eta, gainera, errefrakzio-indize egokia du beiratu zuri-zuriak egin ahal izateko (Vendrell et al., 2000; Molera et al., 1999). Adibide adierazgarrienetako bat maiolika zeramika famatua da. Tipologia horrek eztainu-berunezko beiratu bat du eta kanpo-azalera osoan aplikatzen zaio kolore argiko pastak dituzten gorputz zeramikoen gainean (Iñañez et al., 2008; Guirao et al., 2014). Pigmentuak aplikatzeko, ohikoa da frita bat prestatzea; hau da, aldez aurretik erretako kuartzoaren, berunaren eta beste osagai batzuen nahasketa, zeina bat-batean

hozten den beira lortzeko (adib., kobalto beira). Horretaz gain, engobeak ere erabil daitezke; hau da, beiratuaren eta gorputz zeramikoaren artean aplikatzen diren buztin-nahasketa baten geruza meheak. Batzuetan, beiraturik gabe ere erabiltzen dira horiek; alegia, besterik gabe engobea egitura zeramikoaren gainazalean aplikatuta.

Faktore horiek guztiak kontuan hartuz (buztinezko nahasketak, erreketak, beiratuen aplikazioa, etab.), agerikoa da buztingileak gaur egun kimika deitzen dugun arlo horri buruzko ezagutza minimo bat menperatu behar zuela. Orain arte, buztingileen artisautzaren arteari buruz ezagutzen den lehen laburpena 1556. urtean Zipriano Piccolpassok argitaratutakoa da, *Le Tre Libri dell'Arte del Vasaio* (Buztingintzaren artearen hiru liburuak), eta, bertan, lehengaiak eta fabrikazio-prozesuak deskribatzen dira. Laburpen horretan, maiolika zeramikari buruz ezagutzen den lehen dokumentazio idatzia jasotzen da. Hala ere, orain dela gutxi Montelupon aurkitu zen *Codice Calabranci* (XV. mendearen bigarren erdialdekoa), *Furnace Secrets* liburuan argitaratutakoa, mendebaldeko buztingintzari buruz orain arte ezagutzen den lehen gidaliburu gisa har daiteke; beraz, lehenengo tokia kendu die aurreko aurkikuntzei (Chiarantini et al., 2015).

Zeramiken beiratuaren teknologia kultura islamikoaren bidez ezarri zen Iberiar penintsulan, oraindik ere aztergai den prozesu konplexu baten bidez (Salinas and Pradell, 2018). Gainera, Erdi Aroan eta Aro Modernoan (Calparsoro et al., 2019c), teknologia-transferentzia horrek garapen diakroniko motelago bat izan zuen iparraldean, penintsulako beste gune batzuekin alderatuz gero; esaterako, Valentziarekin (adib., Manises eta Paterna) (Coll Conesa, 2009; Mesquida García, 2002; Pérez-Arantegui et al., 2008), Talavera de la Reinarekin edo Sevillarekin (Fernández de Marcos, 2018).

Aipatu beharra dago al-Andaluseko hastapenetan beiratze-teknika berezi bat hedatu zela Iberiar penintsulan zehar, idorraren bidezko dekorazioa deiturikoa (gaztelaniaz, *cuerda seca*), bereziki azulejuetarako erabiltzen zena (Chapoulie et al., 2005). Teknika horretan, uretan disolbagarriak diren beiratu-nahasketak substantzia koipetsu baten lerro finen bidez bereizten dira gainazalean, beren eremuetatik atera ez daitezen. Pigmentu ilunak erabiltzen dira; adibidez, manganeso karbonatoa koipearekin nahasten da koloreztatutako eremu bakoitzaren inguruan lerro iluna sortzeko (Campbell, 2006).

Aldez aurretik azaldutako zeramikaren bidimentsionaltasunari dagokionez (naturala eta kulturala), hiru ikerketa-eremu nagusi jorra daitezke zeramikaren azterlan arkeometrikoetan (Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández, 2017):

(a) Ekoizpen-prozesuari buruzko ikerketa, zeramika nola egiten zen ulertzeko.

(b) Ekoizpen-teknikei eta eraldaketa teknologikoei buruzko ikerketa.

(c) Erreketaren ondoren zeramikak duen errendimenduaren ezaugarriei buruzko ikerketa.

Gainera, hiru galdera horiek zeramikaren bizi-zikloaren bi ikuspegietatik landu daitezke: ekoizpenetik eta kontsumotik. Ekoizpena (a) eta eraldaketa teknologikoak (b) egokiago ebaluatzen dira ekoizpenaren ikuspegitik; aldiz, errendimenduaren ezaugarriak (c) kontsumoaren ikuspegitik landu beharko lirateke (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017). Ildo horretan, kontsumoan oinarritutako ikuspegiek giza ezagutzaren bilakaera eta mundu materialarekin duen harremana ikertzea ahalbidetzen dute (Criado-Boado et al., 2019).

Ekoizpenean oinarritutako ikuspegiak ez dira gomendagarriak erretako zeramikak (c) duen errendimendu errealaren ezaugarriak aztertzeko, pieza akastunez beteta dagoelako. Aitzitik, oso egokia da lehenengo bi ikerketa motei ekiteko; alegia, ekoizpena (a) eta zeramikaren teknologia (b) (Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández, 2017). Doktorego-tesi honetan egindako analisi arkeometrikoek, hain zuzen ere, ikerketa-helburu horiei jarraitzen diete. Hori dela eta, ekoizpen-guneetan zentratu da ikerketa.

Hasieran planteatutako ezaugarriez gain (nonahitasuna, ugaritasuna eta iraunkortasuna), Erdi Aroko eta Erdi Aro osteko buztingintza-ohiturek ez dituzte soilik produktuen hondakinak utzi (adib., platerak, ontziak, etab.). Izan ere, beste jarduera batzuk ez bezala, ekoizpen horiek garatzeko erabiltzen ziren egiturek (adib., zeramika ekoizteko labeak), maiz, gaur egunera arte iraun dute (Conesa, 2011). Eraikitako ondare hori iraganaren zeramika-ekoizpenaren zantzu denez, posible da zeramika ekoizteko guneak geografikoki kokatzea. Aitzitik, aurreko denboraldietan, Historiaurrerainokoetan, zailagoa da horrelako egiturak topatzea. Kasu horietan, adierazgarriagoa izaten da patroi geologikoekin alderatzea. Doktorego-tesi honetan Erdi Aroko eta Erdi Aro osteko zeramikak jorratzen dira, garai horietako zeramikaren jarduera tradizionala barne hartuz. Beraz, aurrerantzean hemen egingo ditugun aipamenak bi aldi horiei aplikatuko zaizkio hertsiki, kontrakoa adierazten ez bada behintzat.

Iraganeko ekoizpen-jarduerak utzitako zantzuetara itzuliz, hainbat erreminta erabili izan dira buztingintzan (Conesa, 2011). Alde batetik, lehen aipatu dugun bezala, zeramika-labeak proba zuzenena dira. Gainera, aurretik dagoen tailer batean zeramika ekoizteko beste tresna batzuk ere aurki daitezke: tornuak, zeramikazko errotarriak, frita ehotzeko sistemak, labeko matoiak edota treberak (beiratze-teknologia sartu ondoren erabiltzen hasi zirenak). Azken horiek labe barruan piezak bereizteko asmoz erabiltzen ziren. Zeramika-ekoizpenaren beste zantzu bat pieza akastunak dira. Halakoak ez ziren salmentarako erabiltzen; beraz, baliteke ekoizpen-guneetatik oso gertu egotea (ikus 3.3. atala). Gainera, buztingileen hondakindegiak identifikatzeak balio handiko materiala ematen du ekoizpenaren karakterizazio arkeometrikorako. Horrela, helburua ekoizpen-zentroak karakterizatzeko aztarna kimiko bat ematea denean, material horiek interes handikoak dira, zeramika-ekoizpenaren zuzeneko ebidentzia adierazten baitute. Gainera, buztingileek erabiltzen dituzten tresnetako batzuk (adib., treberak edo labeko hodiak) kontsumorako erabiltzen diren buztin berdinekin fabrikatzen ziren oro har.

Hori dela eta, haien analisia oso baliagarria da ekoizpen-guneen karakterizaziorako (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017).

Horrenbestez, zeramika-ekoizpenaren ebidentziarik zuzenetarikoa labe baten identifikazioa izango litzateke. Horrelako jarduerak identifikatzeko bestelako iturriak ez-materialak dira (adib., toponimia.). Gure inguruko herri askotan, oraindik ere, iraganeko buztingintzaren jardueraren lekuko diren toponimiak ditugu (adib., Ollerias izeneko kaleak). Ildo horretan, idatzitako dokumentazioa beste ikerketa-abiapuntu oso emankorra da, aztertzen ari garen kronologiari dagokionez. Adibidez, Ibabe etnografoak Euskal Herriko buztingintza herrikoiari buruzko ikerketa sakon bat burutu zuen eta, horrela, panorama zabal bat eskaini zuen (Ibabe, 1995a). Haren lana oso interesgarria izan da hemen aurkezten den doktorego-tesiaren garapenerako.

Lan honek zubiak eraiki nahi dituenez hainbat diziplinaren artean, prozesu arkeologikoari buruzko testuinguru labur bat aurkezten da hurrengo lerroetan. Indusketa arkeologikoen printzipioei dagokienez, estratua jatorrizko edo testuinguruaren oinarrizko unitate gisa defini daiteke; hau da, formakuntza-prozesuetako unitate txikiena. Unitate estratigrafikoei (ingelesetik SU) aldi kronologikoa eman dakieke, froga nahikoak ematen badira (adib., txanponak, zeramika edo bestelako tresna adierazgarri batzuk). Gainera, SU-tan agertzen diren zeramika zatikiak mihiztatze[2] zeramikoa deritzona osatzen dute (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017). Gainera, mihiztatze horiei dagokienez, kuantifikatzeko hainbat estrategia daude, eta oso garrantzitsuak dira aztarnategi arkeologiko bakoitzaren materialtasuna islatzeko orduan. Esate baterako, kuantifikazioa eremuan egiten bada, banakoen proportzioek hainbat kronologiari buruzko pistak eman ditzakete testuinguru jakin batzuetan. Izan ere, garai batzuk zeramika proportzio jakin batzuekin ezaugarritu dira aurreko lan batzuetan (Solaun, 2005). Hala ere, kuantifikazio-estrategien analisia tesi honen irismenetik kanpo dago. Gai horren inguruko eztabaida sakonago baterako, ikus (Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández, 2017; Shennan, 1988; Escribano, 2017a).

Doktorego-tesi honetan aztertutako materialak nagusiki museoen bildumetatik atera ziren; hau da, ez ziren zuzenean indusketa arkeologikoetatik atera. Salbuespen gisa, Logroñoko zeramikak indusketa aurrera eraman zuen enpresak berak jaso, dokumentatu eta sailkatu zituen azterketa arkeometrikoaren aurretik. Lan honetarako, tipologia-aniztasunaren eta estatistika-esanahiaren arteko oreka bilatu nahi izan zen banakoen kopurua zehazteko unean (xehetasun gehiagorako, ikus 3.3. atala). Gainera, aipatu behar da desberdintasun nabarmena dagoela estratifikazio arkeologikoaren eta post-estratifikazio arkeologikoaren artean. Lehenbizikoa zeramikaren multzoan oinarritzen da, eta bigarrena, berriz, laginketa bateko banakoetan. Beraz, ez bada banakoen gehieneko kopurua (MxNI) arkeometrikoki karakterizatu, ohartarazi behar da

[2]Ingelesez, *assemblage*

populazioaren post-estratifikazioa laginketa-frakzioaren emaitzetan oinarritutako inferentzia bat besterik ez dela (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017).

Eredu Arkeometrikoa

Aldez aurretik azaldutako arrazoi guztien arabera, ez da harritzekoa zeramikaren konposizio-analisia zientzia arkeologikoko gai landuenetako bat izatea (Glascock, 2016; Hunt, 2016). Lan honetan jarraitutako eredu arkeometrikoa Buxeda i Garrigósek eta beste egile batzuek proposatu zuten (Buxeda i Garrigós et al., 1995; Buxeda i Garrigós, 2008; Buxeda i Garrigós et al., 2008), eta duela gutxi berrikusi da (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017). Ikuspegi horren arabera, azterketa arkeometrikoa ez datza soilik objektuen analisi kimikoan, baizik eta eredu batera hurbiltzean, era interaktiboan eta jarraituan, haien rola ulertzeko.



Figure 1.1: Zeramika ekoizpenetik arkeologia-erregistrora bitarteko fluxu-diagrama (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017).

Buxedak eta beste egile batzuek proposatutako fluxu-diagrama (ikus 1.1. irudia) zeramiken *chaine operatoire*-an oinarritzen da (Roux, 2019). Katea zeramika aurkitzen denetik hasten da; hau da, gune arkeologikoan jasotzen denetik hura ekoizteko erabilitako lehengaiak erauzi ziren arte. Seguruenik, lehengaia erauzi zen gunea ekoizpen-gunetik oso gertu zegoen, edo ekoizpen-gunean bertan. Kontuan hartu behar da zeramikak material sintetikoak direla, erreketa jasan eta eraldatutako lehengaiak baitira. Era berean, zeramika-pasta buztinaren manipulazioaren emaitza da, sendogarriak gehitu, beste buztin batzuekin nahasi edo ekintza horiek konbinatzearen ondoriozkoak. Beraz, naturan ez direnez zuzenean horrela aurkitzen, ez dago zuzenean bateragarria den fase geologikorik.

Gainera, ezinezkoa da giza manipulazioaren eragina zuzentzea lehengaiei dagokienez, normalean ezezaguna baita zeramikariak pasta prestatzeko jarraitu zuen prozesua (Buxeda i Garrigós, 2008; Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández, 2017). Lehengaiekin zuzenean lan ez egiteak ez dakar inolako arazorik kimikaren aldetik jatorria ezartzeko; izan ere, buztinaren jatorrizko tokia ekoizpenaren berdina izan ohi zen, garraioak eragiten zituen kostuak kontuan hartuta. Beraz, pasten jatorriari buruzko azterketek ez dute inolako arazorik eragin behar, baldin eta haien prestaketa egonkorra izan zela onartzen bada; izan ere, errezeta zuzen baten aldaketak akats ugari eragin ditzake (Buxeda i Garrigós, 2008; Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández, 2017). Ondorioz, zeramikaren jatorria haren ezaugarri kimikoaren bidez zehaztea denean helburua, funtsezkoa da ekoizpen-zentroa zehaztea; hau da, zeramikariak pasta egin zuen lantegia identifikatzea.

Errutinaren araberako konposizio-analisia eredu kimiko desberdinak identifikatzean datza; hau da, multzo zeramiko esanguratsuak identifikatzean, oinarrizko konposizio-balioei hainbat aldagaiko estatistika-estrategiak aplikatuta (Hein and Kilikoglou, 2015; Glascock, 2016; Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández, 2017). Multzo zeramiko esanguratsuak oinarri kimikoko sailkapen baten unitate txikienak dira. PCRU esaten zaie ingelesez, eta pastaren konposizioko erreferentzia-unitate gisa definitzen dira[3] (Bishop et al., 1982, 290 or.).

Ikuskatutako ikaskuntzan (ingelesez, *supervised learning*), zeramika-mihiztatzea iturri jakin bati (adib., tailer bat) eslei dakioke, proba arkeologiko sendoak egonez gero (adib., labeko tresnak, labe-egiturak edo buztingintzako akatsak). Gero, PCRUak datu-baseekin erka daitezke, lehendik dauden erreferentzia-taldeekin (ingelesez, RG) bat ote datozen aztertzeko, eta, horren arabera, jatorri exogenoa (ekoizpen-zentrotik ezberdina dena) ezar daiteke. Hala ere, ekoizpenetan froga arkeologiko nahikoak dauden kasuetan, PCRUa tokiko jatorrikotzat jo daiteke, eta RG berria osatzen da, tokiko ekoizpenari esleitzen zaiona. Litekeena da, baita ere, zeramika ezin esleitu ahal izatea ez tokiko jatorriari, ez jatorri exogeno bati. Doktorego-tesi honetan, zehaztugabeak (ingelesez, *undetermined*) izena eman diegu talde horiei.

[3]Euskaraz, PKEU; ingelesez, PCRU; eta gaztelaniaz, URCP. Hala ere, lan hau elebiduna denez, ingelesezko bertsioak erabiliko dira.

Buxeda i Garrigósen eta Madrid i Fernandezen (2017) diagramaren arabera (ikus 1.1. irudia), pastaren nahasketa egin ondoren, hura ehundura bihurtuko da prozesu tekniko baten ondorioz (adib., forma ematea, erreketa, etab.). Horrela lortutako pastaren produktuari ehundura deritzogu eta gorputz zeramikoaren ezaugarri naturalak (jatorrizko konposizio mineralogiko eta petrografikoak) eta artifizialak konbinatzen ditu. Pastatik ehundurarako eraldaketak; aldaketa kimikoak (Hein and Kilikoglou, 2015), mineralogikoak (Maggetti, 1981) eta mikroegituzkoak (Maniatis and Tite, 1981; Buxeda i Garrigós, 1995) eragiten ditu. Horregatik, konposizio multzoak identifikatu ondoren, multzo kimiko horiek osatzen dituzten ehunduren ezaugarriak aztertzen dira, mikroegituraren eta analisi mineralogikoen bidez. Ustekabeko ekoizpen-prozesuaz gain, hainbat eraldaketa eta kutsatze gerta daitezke pasta prestatzeko prozesuaren une desberdinetan; besteak beste, pastaren prestaketa teknikoaren fasean, modelatuan, erreketan, etab.; objektu zeramiko horien erabilpen-aldia eta jalkitzearen ondorengoko aldian. Kutsadura- eta eraldaketa prozesu horiek zeramikazko mihiztatzean duten eragina 5.1. atalean aztertzen da.

Egia esan, eredua azaldutakoa baino askoz konplexuagoa da, eta kontuan izan behar dira, batetik, arkeologiarekin zerikusia duten zenbait faktore, eta, bestetik, zeramikariek Antzinaroan garatzen zuten jarduera. Lehenik eta behin, gogoan izan behar da aitzinari buruz benetan ezagutzen duguna partziala dela, tailer bateko hondakin materialen berreskurapena bezala (hau da, azpiegituraren hondarrak eta produktuak). Bigarrenik, kontuan izan behar da lantegi berak erreferentzia multzo (RG) bat baino gehiago aurkez dezakeela; izan ere, baliteke buztingileak pasta bat baino gehiago prestatu izatea askotariko zeramika-tipologiak egiteko. Gainera, pasta berak hainbat ehundura sor ditzake, zeramikariak prozesu tekniko bat edo beste (modelatua, erreketa, etab.) erabiltzen baitu lortu nahi duen produktuaren arabera (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017).

Hirugarrenik, baliteke ingurune berean dauden lantegiek lehengai berberak erabiltzea eta pasta modu berean prestatzea. Kasu horietan, tailer horietan ekoiztutako zeramikek antzeko konposizio kimikoak izango dituzte; beraz, lantegiak ezin izango dira RG ezberdinen bidez identifikatu. Eremu hau ziurgabetasun edo bereizmen gabeko espazioaren gune gisa ezagutzen da (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017), (Picon, 1973, 105 or.)-tik egokitua). Gune horietan ezingo dira analitikoki bereizi buztingile desberdinek erabiltzen dituzten lehengaiak, haien ezaugarriak oso berdintsuak direlako; izan ere, eremu geologiko oso berdintsuak izaten dira (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017).

Edozein materialen jatorria analisi kimikoaren bidez zehazteko, jatorriaren postulatua hartzen da oinarri gisa, eta, horren arabera, jatorri bereko lehengaien arteko aldakortasunak jatorri desberdineko lehengaien artekoa baino txikiagoa izan behar du, eta jatorrien arteko desberdintasunak identifikatzeko modukoak izan behar dira. Bestela esanda, jatorri bera duten materialak antzekoagoak izango dira leku desberdinetatik datozenak baino. Ondoren, ikuspegi horrek hainbat gehikuntza izan

ditu, eta gaur egun Pollardek (Pollard et al., 2008) ezarritako bost baldintzetan oinarritzen da: bereizgarria, singularra, aurreikus daitekeena, neurgarria eta egonkorra izatea.

Zeramiken jatorria zehazteko, bi maila aztertu ohi dira: ikuspegi kimika eta ikuspegi petrografikoa (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017). Hala ere, metodo petrografikoen emaitzak egokiagoak izaten dira zeramiken pasta trauskila denean, tamaina handiko inklusio ez-plastikoak dituenean. Kasu horietan, inklusioetan harrizko zatiak hautematen badira eta haien tamaina nahikoa bada, haien jatorri geologikoa zehazteko aukera ematen dute (Buxeda i Garrigós, 2008). Aitzitik, pasta dekantatuagoak dituzten zeramiketan, doktorego-tesi honetan aztertzen direnen modukoetan, oso nekeza edo ezinezkoa izan daiteke metodo petrografikoak erabiltzea jatorria zehazteko (Buxeda i Garrigós, 2008).

Doktorego-tesi honetan landutako errutina arkeometrikoaren arazoak aurretik planteatutako ikerketei lotuta daude: ekoizte-prozesuak (a), konposizio multzo esanguratsuak identifikatzea inplikatzen dutenak; eta haien jatorria eta teknologia (b). Zeramikaren analisia askoz ere zabalagoa izan daiteke ebaluatuko diren ezaugarrien arabera. Esate baterako, propietate fisikoen artean, propietate mekanikoek (hala nola gogortasuna eta erresistentzia) eta termikoek berebiziko garrantzia dute, gizakiek objektu horiei ematen dieten erabilerarekin eta erabilgarritasunarekin zuzenean loturik baitaude (esaterako, sukaldeko tresna erregogorrak, eraikuntzarako balio handiko materialak, etab.) Buxeda i Garrigós (2008).

Gainera, aipatzekoa da ikerketa honetan beste material zeramiko batzuk kanpo geratu direla; esaterako, zeramikaren eraikuntzarekin zerikusia dutenak (adib., azulejuak), edota haietan aurkitzen diren hondakin organikoak, zeinek iraganean giza portaerari buruzko informazio baliotsua eman dezaketen Blanco-Zubiaguirre et al. (2016, 2018).

Laburbilduz, atal honetan zeramikaren analisiak duen garrantzia jorratu da, dimentsio kulturala eta naturala biltzen dituelako. Gainera, zeramikaren azterketaren bidez iraganari buruzko informazioa lortzeko zer ikuspegi mota erabil daitezkeen azaldu da. Zeramikaren ekoizpena (a), teknologia (b) edo errendimendua (c) ekoizpenaren edo kontsumoaren ikuspegitik azter daitezke. Ildo horretan, doktorego-tesi honetan burutu den ikerketa zeramikaren ekoizpenean eta teknologian oinarritu da Erdi Aroko eta Erdi Aro osteko ekoizpen-guneak aztertuta. Ildo horretan, bost ikerketa-kasu hautatu dira (5. kapitulua). Helburu horretarako jarraitu den eredu arkeometrikoa multzo zeramiko esanguratsuak definitzean datza, eta haien jatorria zehaztean, hurrengo atalean azalduko den moduan.

1.2 *Ikerketa arkeometrikoaren gaur egungo erronkak*

Arkeometriako ikerketa-ikuspegiak

Duela gutxi proposatu den moduan Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandezek proposatu zuten moduan (2017), arkeometriak garapen bat izan du gaur egun bi ikerketa bideetara zabaltzea heldu dela (ikus 1.2. irudia). Alde batetik, (a) arkeometriaren *ikerketa-arazoak* jorratu daitezke, eta horiek, diziplinaren aurrerapenera bideratuta daude (adib. metodo berrien garapena). Bestetik, (b), arkeometriako *errutina arazoak* landu daitezke, eta, azken horiek gizarte-sistemei buruzko ezagutzan sakontzeko erabiltzen dira (adib. ezarritako errutinen aplikazioa datu eta hipotesi berriak lortzeko).



Figure 1.2: Arkeometriaren ikerketa-ikuspegiak, beste lan batetik moldatua (Buxeda i Garrigós eta Madrid i Fernandez, 2017).

Doktorego-tesi honen irismenak bi ikerketa-lerroak biltzen ditu. Alde batetik, 4. eta 6. kapituluak (a) ikerketa-arazoen erronkak lantzera bideratuta daude, batetik, R-n oinarritutako ikerketa berregingarria burutzeko metodologia bat garatuz, eta bestetik, ED-XRFan oinarritutako metodo ez-suntsitzaileak aztertuz. Aldi berean, 5. kapituluan, ezarritako errutina arkeometrikoak aplikatzen dira Euskal Herriko eta Errioxako ekoizpen zeramikoak hobeto ulertzeko. Beraz, (b) errutina-arazoen lerroari lotuta dago hirugarren hau. Gainera, aurreko atalean planteatutako eredu teorikoaren barruan kokatzen da. Eredu teoriko horrek iraganeko buztingintza hobeto ezagutzea du helburu, eta, horretarako, konposizio-talde esanguratsuen identifikazioan oinarritzen da.

Bi ikerketa-lerroek lotura sinergiko handiak dituztela oinarritzat hartuz, errutina arkeometrikoen aplikazioak berebiziko garrantzia izan du ikerketa arkeometrikoei buruzko erronkei aurre egiteko, diziplinaren aurrerapenera bideratuta baitaude. Alde batetik, R-n oinarritutako ikuspegi berritzailea eraiki da, errutina arkeometrikoak aplikatuz behatu diren eskakizunen arabera, ondo ezarritako teknika analitikoak aplikatu ondoren (ICP-MS eta NAA) eta dagokion azterketa kimiometrikoekin batera. Horrela, tresna horiek iteratiboki garatu dira, eta haien aplikazioa eta garapena atzeraelikadurako prozesu etengabea izan da. Bestalde, aldez aurretik metodologia suntsitzailearen bidez lortutako zeramikaren sailkapena (ICP-MS) hartu da oinarri gisa, ED-XRFn oinarritutako bahetze ez-suntsitzailearen metodologia garatzeko.

Arkeometriaren ikuspegi zabala

Doktorego-tesi honetan aukeratutako ikerketa-horizonteak kokatzeko, arkeometriaren egungo erronkak kontuan hartuko dituen testuinguru zabalagoa eman behar da. Halaber, saihestezina dirudi ikerketa-lerroaren eta haren bilakaerari buruzko testuinguru labur batek.

Eszeptizismoa barne (González-Ruibal, 2014), zientzien aplikazioa ezinbestekoa izan da arkeologiaren arloan lehen mailako paradigma-aldaketak eragiteko. Kristiansenek hiru iraultza teoriko identifikatu zituen arkeologiaren arloan; hirurek metodo zientifikoekin zerikusia izan dute Kristiansen (2014). Lehenengoa arkeologia diziplina zientifiko gisa ezartzearekin batera etorri zen, XIX. mendearen erdialdean. Kasu honetan geologiaren eta biologiaren metodoak bereganatu zituen arkeologiak, eta zientzia bihurtu zuen jauzia eman zuen. Bigarren iraultza erradiokarbonoaren datazioak eragin zuen XX. mendearen erdialdera, eta, aldi berean, diziplinaren horizontea izugarri handitu zuen, galdera berriak planteatuz eta interpretazio berriak proposatuz. Halaber, hirugarren "iraultza zientifikoa" gaur egungo arkeologia ari da jasaten. Azken horrek Big Data, eredu kuantitatibo berriak eta DNA eta analisi isotopikoen erabilera orokorra eragiten duten ikerketa-lerro berritzaileek bultzatutako paradigma teoriko berria sortu nahi du.

Zientzia esperimentaletatik hartutako teknika analitikoak aplikatzean datza Arkeometria, kultura materiala haren dimentsio naturaletik aztertzeko aukera ematen baitute. Tresna analitikoekin aztertu aurretik, artefaktuak prestatu egin behar dira, eta zeharkako informazioa emango dute aztertu ditugun objektuen berezko konposizioaren arabera; kasu honetan, aukeratukotako objektuak zeramikak dira (Boulanger et al., 2013a; Buxeda i Garrigós, 1999, 2008; Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández, 2017).

Arkeometriaren edo zientzia arkeologikoaren sorrera, diziplina gisa, arkeologiaren bigarren iraultzarekin bat dator; izan ere, metodo zientifikoak bereganatu zituenean kristalizatu zen (Kristiansen, 2014). Google-k indexatutako liburuetan bilaketa batek

argi islatzen du fenomeno hori (ikusi 1.3. irudia). Gainera, terminologiaren bilakaera ikus daiteke kontzeptu bera adierazteko. Grafikoak 2008. urtera arte indexatutako liburuen emaitzak baino ezin ditu erakutsi. Hala ere, "Archaeological Science"-k 52 milioi emaitza ematen ditu, eta "Archaeometry"-k, berriz, 720.000 emaitza. Beraz, joera horrek gorantz jarraitu duela baiezta daiteke. Hala ere, zientzia arkeologikoaren terminologia zabalagoa da, eta horrek ere eragina du emaitza horietan.



Figure 1.3: "Archaeometry" eta "Archaeological Science" terminoen bilakaera Google-k indexatutako liburuak kontutan hartuta 2008ra arte. y-ardatzean, bakoitaren erabileraren ehunekoa azaltzen da Ingelesez idatzitako liburuei dagokionez. Grafikoa berregiteko hurrengo url-ra joan: `http://goo.gl/3Fq6VH`

Zeramikaren ikerketa arkeometrikoari dagokionez, hastapenetan nabarmenak izan ziren analisi petrografikoak. Eredu gisa Sheparden lana daukagu, (Shepard, 1948); gero, analisi kimiko aurreratuagoekin berraztertuko zen (Neff and Bishop, 1988; Neff, 2003). Era berean, *Ceramics for the Archaeologist* liburuak arkeologoentzako erreferentzia gisa funtzionatu zuen, zeramikaren analisiaren printzipioak eta estrategiak argi eta garbi ezarriz (Shepard, 1956). Gainera, *Pottery Analysis: a source-book* liburuan, ekoizpen-teknologiak eta zeramikaren analisiak sakonago estaltzen zituen erreferentzia-gida osatu bat eskaini zuen Prudence Ricek (1987). Azkenekoz argitaratu zenetik goitik behera berridatzi da, eta duela gutxi argitaratu da bertsio berritua (Rice, 2015).

Geroago jorratzen den bezala, aipatu beharra dago arkeometriaren zutabe nagusi bat zeramiken analisi kimikoek osatzen dutela, bai pasten (gorputz zeramikoen) analisiari dagokionez, bai beiratu edota estaldurei dagokienez. Gainera, beste propietate fisiko batzuk aztertzea (besteak beste, sendotasuna, erresistentzia termikoa eta gogortasuna) oso garrantzitsua da zeramikei buruzko ulermen handiagoa lortzeko (Tite et al., 2001).

Izan ere, propietate horiek eragin zuzena dute produktuak izango duen erabilgarritasunean (adib., material erregogorrak edota eraikuntzarako gogortasun handiko materialak). Ildo horretan, berebiziko garrantzia du beiratuen azterketak. Izan

ere, haien aplikazioa estuki loturik dago garapen teknologikoekin (Tite et al., 1998; Pérez-Arantegui et al., 2001b,a)). Orobat, bestelako lan asko argitaratu dira zeramiken beste alderdi batzuei buruz, hala nola mineralek baldintza desberdinen pean dituzten eraldaketak (adib., (Maritan et al., 2006; Maggetti, 1981)), edota zeramikek jasaten dituzten kutsadurak eta eraldaketak, oinarri sendo bat eskainiz ohiko errutina arkeometrikoetan lortzen diren emaitzen interpretaziorako (adib., Buxeda i Garrigós (1999); Boulanger et al. (2013a)).

Arkeologian metodo zientifikoen inplementazioak eta, bereziki, zeramika-analisiek gorakada handia izan dute azken hamarkadetan. Gainera, gero eta ohikoagoa den diziplinartekotasunak ezaugarritzen ditu lan horiek. Horrela islatzen dute azken urteetan argitaratutako lan zientifikoek. Gaiaren inguruko interesa handitu egin da azken urteetan; argitalpen ugari egin dira, eta aldizkari espezializatuak sortu gaiari buruz, hala nola *Archaeometry*, *Journal of Archaeological Science*, *Journal of Archaeological Science:Reports* eta *Heritage Science*.

Ildo horretan, diziplinarteko hainbat ikuspegi aurkezten dituzten lanak argitaratu dira (Pollard, 2007; Hunt, 2016). Azterlan horietan, materialen zientziei buruzko ikuspegiak ezartzen dira, baina baita arkeologia, antropologia eta geologiako ikuspegiak ere. Gainera, zientzia fisikoek zeramikaren ekoizpenaren, distribuzioaren eta kontsumoaren analisiari egin dioten ekarpena ebaluatu da. Horrek guztiak garbi uzten du bi arloak erabat integratu direla azken urteotan (Tite, 1999).

Are gehiago, arkeologo teorikoaren eta arkeologo zientifikoaren arteko erabateko fusio osoa planteatua izan da (Martinón-Torres and Killick, 2015). Era berean, badirudi joera berriak azaleratzen ari direla, ikuspegi arkeometrikoen potentzialari buruzko berrikuspen kritikoekin, gizarte-ereduak adierazteko (Roux, 2019), hala nola zeramiken konposizio-aldakortasunak gizartearekin dituen loturak sakonago aztertzen dituzten lanak (Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández, 2017; Fowler et al., 2019).

Espainiako egoerari dagokionez, duela gutxi zeramikaren analisi arkeometrikoaren heltze-mailaren berrikuspen bat argitaratu da, Erdi Aroan zentratua (Grassi and Quirós, 2018). Zeramikari buruzko argitalpenak nabarmen ugaritu ziren laurogeita hamarreko hamarkadan, ikuspegi arkeometrikoekin. Horren erakusgarri da eremu honetan argitaratu diren lan zientifikoen bolumen handia; besteak beste, tesi ugari, hain zuzen ere, Kataluniako esparruan bultzada berezia izan dutenak.

Horren adibide dira Buxeda i Garrigósen Cluniako *Terra Sigilatari* buruzkoak, besteak beste (Buxeda i Garrigós, 1994; Buxeda i Garrigós, 1995, 1999; Buxeda i Garrigós et al., 2003; Buxeda i Garrigós, 2008), Molerarenak (Molera et al., 1997, 1999, 2001) edo Vendrellenak (Vendrell et al., 2000), bi egile horiek beiratuen analisian egin dituzten ekarpen nabarmenak barne. Horren haritik doaz Iñañezek maiolikari buruz egindako lanak (Iñañez et al., 2010, 2013). Azken horiek berebiziko garrantzia izan dute Iberiar penintsulako maiolika zeramikaren bilakaera ulertzeko, eta, zerrenda luzeagoa

bada ere, Kataluniako azken lanak aipatuko ditugu; esaterako, Puig Puig (2016) eta Fernandezek (Fernández de Marcos, 2018) berriki argitaratutako doktorego-tesiak. Bi lanotan, hurbilketa arkeometrikoak erabiltzen dira zeramiken jatorrizko analisiak egiteko; Euskal Herriari buruzkoak lehenengo kasuan, eta Sevillako ekoizpenei buruzkoak, berriz, bigarren kasuan.

Errioxako eta Euskal Herriko arkeometriaren egoerari buruzko literatura espezifikoa kapitulu honetako azken atalean jorratuko da. Oraingoz, arkeometriaren literaturari buruzko ikuspegi orokor bat eman nahi izan da, teknika arkeometrikoen egungo egoeraren ikuspegi zehatza lortzea ezinezkoa dela onartuz. Arkeometriako joera internazionalak biltzen dituen sintesi on baterako, ikus Montero Ruiz et al. (2008). Bertan, arkeologiako azterlanetan arkeometriak duen rola jorratzen da, horretarako bibliometriako analisi sakon bat eginez. Gainera, egileak bi puntu nagusi identifikatzen ditu, arkeometriaren garapen egoki baterako, ondoren beste egile batek ere berrikusi eta gogorarazten dituenak Grassi and Quirós (2018). Lehenik eta behin, maila guztietan trebakuntza-beharra nabarmentzen da. Batetik, espezialistek datuak eskuratzeaz eta haien interpretazioa balioztatzeaz arduratu behar lukete. Bestetik, historialariek eta arkeologoek oinarrizko trebakuntza sistematiko bat jaso behar lukete, espezialisten emaitzen jasotzaile nagusiak baitira, eta, aldi berean, adituak gidatu behar baitituzte ikerketa-ildoak lantzen eta ikerketa-arazoak konpontzen. Horrez gain, erakundeen aldetik, beharrezkoa litzateke arkeometriaren aintzatespen handiago bat izatea, bai unibertsitatean, bai ikerketa-zentro publikoetan. Izan ere, oro har, haien bidez ezagutzen ditugu gizarte-zientziak eta zientzietako langileen kurrikulumen konfigurazioak. Halaber, inbestitzearekin lortzen da aintzatespena, bai itzal handiko adituengan, bai laborategi eta hornikuntza zientifikoan. Horrela, behingoz, Arkeometria arkeologiaren ezagutza-esparru gisa agertzen da Montero Ruiz et al. (2008).

Teknika analitikoen bilakaera

Aurreko lerroetan, joera arkeometrikoak eta literatura berrikusi dira. Hurrengo lerroek zeramikaren konposizio-analisiak eta egungo estrategiak jorratzea dute helburu. Bigarren iraultza arkeologikoari dagokionez, 50eko hamarkada energia nuklearraren agerpenaren lekuko izan zen (Kristiansen, 2014; Perlman and Asaron, 1969). Arkeologia-interpretazioek bide berriak hartu zituzten, eta analisi-metodo zientifiko berriak asimilatu, kimika (aztarna-analisiak), biologia (polenaren analisiak), geologia (asentamendu-ereduak), etab. barne hartuta.

Orduz geroztik, analisi zeramikoak teknika analitiko suntsitzaileak erabiltzearen mende egon dira (Pollard, 2007; Glascock, 2016; Arantegui, 2018). Besteak beste, teknika nagusi hauek erabili dira: neutroien aktibazioaren analisia (NAA), absortzio atomikoaren espektrometria (AAS), induktiboki akoplatutako plasmaren emisio atomikoaren espektrometria (ICP-AES), eta induktiboki akoplatutako plasmaren

masa-espektrometria (ICP-MS) (Pollard, 2007; Hunt, 2016). Denetan berriena ICP-MS da, nahiz eta teknika horrek lagina osorik edo partzialki suntsitzea eskatzen duen (analisi zeramikorako 250 mg inguru erabiltzen dira). Gainera, laginaren manipulazio- eta erauzketa-teknikek eragina izan dezakete azken emaitzetan (Boulanger et al., 2013a), eta oraindik ere erronka dira laginaren aurretratamenduan zehar gertatzen diren kutsadura-arazoak (adib., digestio azidoa edo fusio alkalinoa) eta konposatu berriak gehitzeak (adib., $LiBO_4$ fusio alkalinorako) eragin ditzakeen interferentziak. Hala ere, saiakerak egin dira antzeko matrizeetan eragin horiek ahalik eta gehien murriztu daitezen (Madinabeitia et al., 2008).

Bestalde, gorakada handia jasaten ari diren bestelako hurbilketa analitiko suntsitzaileak analisi isotopikoan oinarritzen dira (adib., Habicht-Mauche et al. (2002)), edo laser bidezko ablazioan (Neff, 2012; Resano et al., 2005; Giussani et al., 2009). Gainera, Raman espektroskopian oinarritutako lanak, eta bereziki, haiek zeramiken azterketan duten aplikagarritasuna ere jorratu dira (Colomban and Treppoz, 2001; Colomban, 2003; Colomban et al., 2004; Colomban, 2008). Bestalde, beste teknika espektroskopiko batzuk LED argi-iturri desberdinetan oinarrituta daude (adib., (Mounier et al., 2016)).

Hala ere, gaur egun ICP-MS da teknika egokienetarikoa, jatorri-analisia egiteko, aldi bereko kuantifikazioa ematen baitu, detekzio-muga egokiekin. Gainera, NAArekin alderatuz, askoz ere merkeagoa eta eskuragarriagoa da ICP-MS analisiak burutzeko behar den azpiegitura (Arantegui, 2018). Doktorego-tesi honetan egindako konposizio-analisi gehienak teknika honen bidez egin ziren.

Aitzitik, hamarkadetan zehar Neutron Activation Analysis (NAA) zeramikei aplikatu ondoren (Glascock Michael D and Neff, 2007), mundu osoko eskualde eta kronologietako milaka zeramika-zatikiren konposizio-datuak biltzen dituen datu-base bat eraiki da (ikus 1.4. irudia). Ildo horretan, XIV.-XVIII. mendeetako Iberiar penintsulako maiolika zeramika garrantzitsuenak karakterizatu ziren teknika horren bidez (Iñañez et al., 2008). Datu horiek doktorego-tesi honetan erabili dira hain zuzen, aztertu diren zeramiken jatorriekin erkatzeko. Horren ondorioz, Errioxako eskualdean agertutako zeramika exogenoak identifikatu dira.

Figure 1.4: MURRen dauden karpetak aztertutako zeramika erregistroekin, mundu osoko jatorriak bilduz. CC BY NC SA E. Calparsoro

Azterketa ez-Suntsitzailearen Bidean

Hurrengo lerroek XRF tekniketan oinarritutako konposizio analisien bilakaera jorratzen da. Horren helburua, 6. kapituluan aurkeztutako emaitzak eta eztabaida testuinguruan kokatzeko beharrezkoak diren aurrekariak eskaintzea da. Arestian aipatu diren teknika analitikoez gain (ICP-MS, NAA, etab.), zeramikaren analisiari dagokionez, gaur egungo hurbilketa kuantitatibo ugari, X izpien fluoreszentzian (XRF) oinarritzen dira (Hunt, 2016; Hunt and Speakman, 2015; Millhauser et al., 2011; Speakman and Steven Shackley, 2013; Kuhn and Sempowski, 2001). Izan ere, lagin-prestaketaren kostu txikiak eskatzen dituzte, eta elementu anitzen aldibereko determinazioa eskaini dezakete, 10 baino altuagoko zenbaki atomikoa duten elementuetan, hau da Na-tik gora abiatuz (Pollard, 2007; Speakman and Steven Shackley, 2013).

Gaur egun, zeramikari analisiari dagokionez, XRFaren hiru konfigurazio nagusi erabiltzen dira: guztizko islapena (TXRF), uhin-luzeraren bidezko sakabanaketa (WD-XRF) eta energia sakabanatzea (ED-XRF). Kasu guztietan, X izpi eta lagin-azaleraren arteko elkarrekintzatik sortutako erantzuna erregistratzen da. Hori lortzeko geometria edota ezaugarri desberdinak dituzte konfigurazio bakoitzak. Hori dela eta, ebazpen eta gaitasun desberdinak eskaintzen dituzte. Gainerakoekin alderatuz, TXRFren abantaila nagusia matrize-efektuen murrizketa da. Dena den, oraindik ere lagin-prestaketa eskatzen du. Oro har, partikula solidoen suspentsioa beharrezkoa izaten da likido eramaile batean (Fernández-Ruiz and García-Heras, 2007; García-Heras et al., 2001; García-Florentino et al., 2018). Zeramiken azterketari

dagokionez, teknika honen aplikazioaren hainbat lan argitaratu dira azken hamarkadetan (García-Heras et al., 2001; Cariati et al., 2003; Vanhoof et al., 2018).

WD-XRF sistemek 5 eV eta 20 eV arteko lan-ebazpenak eman ditzakete, beren konfigurazioaren arabera, eta ED-XRF sistemek 150 eV edo gehiagoko ebazpenak ematen dituzte, erabilitako detektagailu-motaren arabera. WD-XRFren bereizmen handienak abantailak ematen ditu espektro-gainezarpenak murriztean, eta, beraz, lagin konplexuak zehaztasun handiagoz karakterizatu daitezke. Gainera, zarata era nabarmenean murrizteko aukera dute, sentsibilitatea eta detekzio-mugak hobetuz. Hala ere, WD-XRF sistema baten osagai optiko osagarriak (adib., difrakzio-kristalak eta kolimadoreak) sistemaren eraginkortasuna jaitsiarazten dute. Hori konpentsatzeko, normalean, potentzia handiko X izpien iturriak erabiltzen dira, kostuan eta erabiltzeko erraztasunean eraginez. Horrenbestez tresna garezti samarrak izaten dira WD-XRFan oinarritutakoak. Gainera, konfigurazio horrekin espektroaren lortzeko puntu bakoitzeko egiten da (denbora asko kontsumituz), edo, bestela, aldi bereko detektagailuen kopuru oso mugatua du (hori aukera oso garestia izanik). ED-XRF-arekin, aldiz, espektro osoa aldi berean hartzen da, eta, beraz, taula periodikoko elementuak gehienak segundo gutxitan detekta daitezke.

Oro har, ED-XRF eta WD-XRF hedatuagoak daude zeramika arkeologikoen analisian. Masa lagin txikiak behar baitira (gutxi gorabehera 300 mg-tik gramo batzuetara). Horiek, bolatxo homogeneoetan (ingelesez *pellets*) konpaktatuta, edo perletan, elementu gehiengoen determinazio zehatzak eman ditzakete (Na, Mg, Al, Si, K, Ca eta Fe), hala nola, elementu gutxiengoena (Ti, P, S eta Mn), eta aztarnena (V, Ni, Cu, Zn, Br, Rb, Sr, Ba eta Pb) (De Vleeschouwer et al., 2011; Speakman et al., 2011). Askotan, "benchtop" edo finkatuta dagoen ED-XRFa nahiago izaten da, nahiz eta WD-XRFek detekzio-muga (LOD) hobeagoak eskaintzen dituen. Izan ere, lehenengoarekin konfigurazio batzuk erabiltzean, ez da laginaren prestaketarik behar (adib., birrintzea). Nolanahi ere, prestaketa minimo bat gomendagarria da, horrela azaleraren kutsadura saihesteko.

Ekoizpen-propioko WD-XRF espektrometroetan albo-ebazpen baxuetako (mikroi-mailan) neurketak lortzera iritsi daiteke, betiere optika polikapilarrak erabili. Hala ere, askotan ekipo komertzialak ez dira gai X izpi-sortaren diametroa mikroetaraino murriztezko, eta eskala milimetrikoan bakarrik neurtu dezakete. Gaur egun, aldiz, ED-XRF espektrometro komertzial eta konbentzionalek 25 μm-ko neurketak egitea ahalbidetzen dute (Ohmori et al., 2012).

Gainera, pXRF (XRF eramangarria) erabiltzen duten lanak ere gora egiten ari dira (Palumbo et al., 2015; Sheppard et al., 2011). Hala ere, tresnetan ezarritako kalibrazioek maiz ez dira aldakorrak, eta gailu batzuen softwareak ez dute ematen datu-tratamendurako aukerarik, eta, beraz, kutxa beltz moduan funtzionatzen dute. Kasu horietan aukera bakarra espektroak atera eta kanpoko software batean tratatzea da. Beraz, askotan ez dute behar bezala islatzen zeramika-matrizeen errealitatea.

pXRF gailuen azken bertsioek elementu arinen detekzio mugak hobetu dituzte, eta, kasu batzuetan, hutsean edo He atmosferan neurketak ere ahalbidetzen dituzte, horrela, elementu horien LODak oraindik eta gehiago hobetuz. Literaturan, analisi zientifikorako pXRF aplikagarritasuna luzez eztabaidatua izan da (Hunt and Speakman, 2015; Speakman and Steven Shackley, 2013; Speakman et al., 2011; Forster et al., 2011).

Doktorego-tesi honetan, hurbilketa ez-suntsitzaile bat garatu da, automatikoki aldakorra den kolimazio bikoitzeko sistema batekin ekipatutako ED-XRF gailu finko bat erabiliz, 1 mm-ko eta 25 μm-ko albo-ebazpenak eskaintzen dituenak (ikus 6. kapitulua). Proposatutako bahetze-metodologia honen helburua, ohiko metodo analitikoekiko hainbat abantaila eskaintzen dituen alternatiba sendo eta fidagarria aurkeztea da.

Ikerketa-berregingarritasuna, kode irekia eta R

Hurrengo lerroetan, kode irekia eta ikerketa-berregingarritasunak zeramiken konposizio-azterketan duten papera jorratuko da. Kontzeptu horiek hertsiki lotuta daude eta erronka zailak planteatzen dituzte; ez bakarrik arkeologian, baizik eta ezagutzaren kudeaketari buruzko beste arlo askotan ere. Kristiansenek (2014) proposatu zuen hirugarren iraultzara itzuliz; hau da, Big Data eta kuantifikazio-ereduena[4], bai kode irekia, bai ikerketa-berregingarritasunak ere funtsezko zeregina dute arkeologiaren egungo paradigma aldaketan.

Digitalizazioak ezagutza zientifikoaren kudeaketa zeharo eraldatu du. Lehendabiziko aldiz, ikerketen atzeko prozedurak partekatzea ahalbidetu baitu (adib., analisi estatistiko bat egiteko erabilitako kodea). Horrek ekarpen nabarmena eragin dio ikerketa zientifikoari, haren fidagarritasuna eta eraginkortasuna hobetuz. Izan ere, digitalizazioari esker ikerkuntzako prozedurak kontsultatu, ebaluatu eta berrinterpretatu daitezke (Stodden and Miguez, 2014; Goodman et al., 2016; Munafò et al., 2017). Halaber, konputazio-zientziak gero eta hedatuago daude ikerketa-eremu guztietan, baita Arkeologian ere. Horrela, egungo egoeran, arlo gehiagoetara zabaldu daiteke ikerketa konputazionalaren berregingarritasun-espektroa (ikus 1.5. irudia). Nahiz eta erabateko berregingarritasuna egoera egokiena izan, sarritan prozesu metodologikoak ez dira elkarbanatzen, zientziaren eta arkeologiaren aurrerapena oztopatuz. Joera horren arrazoi nagusia, metodo berregingarrien inguruko praktika ez-egokiak lirateke (Munafò et al., 2017).

Ikerketa-berregingarritasunaren terminologia eta esparru kontzeptuala oraindik ez dira estandarizatu hainbat ezagutza-eremuetan. Egoera horri aurre egiteko, duela gutxi

[4]Hirugarren iraultza arkeologikoa lotura du DNA eta analisi isotopikoekin baita ere. Hala ere, gai horiek ez daude doktorego-tesi honen ikerketa esparruan, beraz, ez dira jorratuko.



Figure 1.5: Ikerketa konputazionalaren berregingarritasun-espektroa. Beste lan batetik moldatuta (Peng, 2011).

berregingarritasunari buruzko terminologiaren berrikuspen bat argitaratu zen (Goodman et al., 2016). Bertan jorratzen diren definizioen artean, lan honen testuingururako esanguratsuenak aukeratu ditugu.

Ildo horretan, gaur egun eskura dugun softwarea erabiliz, gure ikerketaren emaitzak sarbide irekiaren bidez (*open access*) partekatzeko aukera dugu. Bestalde, metodo irekien bidez (*open method*), datuak manipulatzeko eta bistaratzeko erabiltzen diren errutinak ere partekatu daitezke. Hori gutxi balitz, zuzenean datuak gordinik ere argitaratu daitezke, datu irekiak edo *open data* deritzegu haiei (Marwick, 2017; Marwick et al., 2017). Egoera berri honek ikerketa berregingarri eta gardena sortzeko aukera ematen du, kolaboraziozko filosofia sustatuz.

Beste era batera esanda, *metodo irekia* prozedura bat zehatz-mehatz errepikatua izan dadin xehetasun nahikoak ematean direnean sortzen da, horrela, metodoaren erabateko berregingarritasuna bermatuz. Ildo horretan, doktorego-tesi honetan metodo ireki bat aurkezten da zeramika arkeologikoaren konposizio-analisia egiteko lan-fluxua proposatzen duena (ikus 4. kapitulua). Haren iturri-kodea biltegi batean biltzen da (ikus 4. kapitulua). Biltegi hori online eskuragarri dago GitHub plataformaren bidez[5]. Era horretan, arkeometriako zientzialarien komunitatea horrelako tresnekin lan egitera bultzatzea da helburua. Metodoa maila hasiberriko erabiltzaileentzat zuzendurik legoke, zeinak bestelako ezagutzarik gabe prozesuak berregiteko gai izan beharko lirateke. Baina, era berean, adituek ere erabili dezakete, script-ak aldatzeko aukera baitago. Horrenbestez, ikerketaren beharretara hobeto egokitzeko aukera ematen da.

Metodologia berregingarrien bidez, proposatutako metodoak *A manifesto for reproducible research* ikerlanean jasotako giltzarria jasotzen ditu (Munafò et al., 2017). Besteak beste, metodo irekien garapena eta partekatzea. Halaber, uztartzen ditu beste azterlan batzuetan ikerketa berregingarrirako egokitzat jotzen diren elementuak (Sandve et al., 2013; Stodden and Miguez, 2014). Gainera, gero eta argitalpen gehiago

[5] `https://github.com/esteful/arch_flow`

dira horrelako praktika berregingarriak bultzatzen dituztenak. Esaterako, aldizkari ugarik, estatistiketarako erabili den R kodea bidaltzeko aukera ematen dute (adib., *Journal of Statistical Software*). Testuinguru horretan, *Knitr* edo *Sweave* tresnak oso baliagarriak dira. Izan ere, LaTeX dokumentuetan R kodea ulergai egiten dute. Hori dela eta, kodearen exekuzio-emaitzak zuzenean renderizatzen dira amaierako argitalpenean eta horrek, gardentasun handia ematen dio prozesuari. Ildo horretan, datuen eskuragarritasunak ere funtsezko zeregina du, praktika guztiz berregingarriak izan daitezen. Zeramiken konposizio-analisietan, gainera, datu berriak datu baseetan daudenekin konparatzen dira behin eta berriro. Horrenbestez, erabiltzeko prest dauden datuen eskuragarritasuna nahitaezkoa bihurtzen da (Boulanger, 2017).

Antza denez, esparru akademikoan, oraindik ez dira ondo ulertzen arestian aipatutako kontzeptuak (sarbide irekia, metodo irekia, etab.). Aitzitik, egungo ikerketak finantzatzen dituzten erakundeek kontzeptu horiek jasotzen dituzte beren gidalerroetan; esaterako, H2020, non sarbide irekiaren bidez argitaratzea nahitaezkoa den. Berrikusketa labur bat egitearren, kode irekia edo *open source* delakoa, iturburu-kodea mota bat da zeina, ikuskatzeko, berrerabiltzeko edota banatzeko aukera ematen duen. Hura doan edo kostupean (adib., R, Linux edo LaTeX softwareak) eman daiteke(Marwick, 2017). Horrenbestez, ez da kostu ekonomikoarekin lotutako kontu bat, iturri-kodearen gardentasunari buruzkoa baizik. Beraz, software irekia ez du zertan doakoa izan beharrik, eta alderantziz, software pribatiboa doakoa izan daiteke, maiz gertatzen den bezala. Hortaz, kodea ikuskatzeko ematen den aukeran datza desberdintasun nagusia. Ikuskatzeko aukera ematen bada ere, horrek ez du esan nahi software hori nahi erara erabiltzea dagoenik. Hainbat lizentzia mota daude erabilera hori zehazteko, atribuzio desberdinak dituztenak. Lizentzia horiek eskaintzen dituzten irekiera-mailaren arabera desberdintzen dira, hau da, informazioa partekatzeko ematen duten aukeren arabera. Honako hauek dira ezagunenak: Creative Commons (ccw, 2019); bereziki softwarerako diseinatutako MIT lizentziak (MIT, 2019); eta, azkenik, General Public License litzentziak, GPL edo GNU-GPL laburduren bidez ezagutzen direnak (GPL, 2019). Doktorego-tesi honetan garatutako koderako GPL lizentzia aukeratu da, 3.0 atribuzioarekin (ikus 4. kapitulua). Lizentzia horrekin lana erabiltzeko, aztertzeko, partekatzeko edota aldatzeko aukera ematen da. Gainera, eratorritako lanek lizentzia berdina erabiltzera behartuta daude. Aipatu beharra dago kodearen garapena beste egile batzuen kodean oinarritu dela. Hala nola, atal nabarmen batean abiapuntutzat erabili da Buxeda i Garrigósek idatzitako kodea. Kasu honetan, egileak ez du soilik zeramika arkeologikoen analisirako kodea garatu, baizik eta ekarpen teoriko nabarmenak egin dizkio konposizio-datuen estatistika-analisiari (Buxeda i Garrigós, 2008; Buxeda i Garrigós and Kilikoglou, 2003; Martín-Fernández et al., 2015). Hala nola, beste egile batzuen software zatiak ere erabili izan dira, betiere, dagozkien erreferentziekin.

Aipatutako lizentziek eskaintzen dituzten elkarlanerako aukeren ondorioz, Arkeologiari era espezifikoan ezartzen zaizkion tresna asko sortu dira azken urteotan. Izan ere, software pribatiboarekin alderatuz, software askeak rol garrantzitsua jokatzen

du kode-garapen kolaboratiboaren esparruan. R programazio-lengoaia horren erakusle on bat da. Arkeologiari dagokionez, 2017an *R is for Archaeology* saioa ospatu zuten *Society of American Archaeologyk* arlo horretan azpimarratuz R programazio-lengoaiaren duen potentziala (Ris, 2017). Horren ondorioz, Arkeologian aplikazioa duten R software-paketeen zerrenda zabala garatu zen. Bestalde, horrelako jarduerekin erlazionatutako ekimenak, esaterako Open Science Interest Group (OSIG) delakoak, komunitate baten beharrari erantzuten dio, arkeologoei parte hartzen eta praktika zientifiko irekien onurak lortzen laguntzeko (Marwick et al., 2017).

Gaur egun, geroz eta lan gehiagotan partekatzen da erabilitako kodigoa (adib., (Carlson, 2012; Alberti, 2013; Baxter, 2015)). Azpimarragarria da, esate baterako, Baxterrek argitaratutako lana *Notes on Quantitative Archaeology using R* izenburuarekin. Lan honek, izugarri erraztu du R-ren erabilera arlo arkeologiko batzuetan, eta hemen aurkezten den lanaren inspirazio ere izan da. Era berean, konposizio-datuei erreparatuz, R kodearen xehetasun nahikoa ematen du, metodoak berregin ahal izateko. Ildo horretan, berriki argitaratu den argitalpen batek hainbat protokolo estatistiko aurkeztu ditu, Kataluniako ardo erromatarren anforen ekoizpenen datu kimikoak eta petrografikoak integratuz (Angourakis et al., 2018). Alde batetik, lan honetan, R *script*-ak material gehigarri bezala aurkezten dira; bestetik, bi pakete garatu dira R-n instalatzeko zuzenean eskuragarri daudenak. Gainera, kode irekiko tresnen izaerak hobetu egiten du *ad hoc* baliabideen diseinua, pertsonalizazio maila altuarekin. Seguruenik, konposizio-datuen analisi aurreraturako R lengoaian idatzitako pakete garrantzitsuenetako bat "Compositions" izenekoa da (Boogaart et al., 2010). Pakete honetan sartzen diren funtzioak konposizio-datuen berariazko beharretara egokituta daude, zenbait hurbilketa estatistiko barne. Horietako batzuk egungo lanean erabiltzen dira (adib., datuen alr eta clr eraldaketak).

Doktorego-tesi honetan, ekarpen metodologiko bat egin da kode irekiko R programazio-lengoaian oinarrituta, 4. kapituluan jorratzen dena. Horren ondorioz, GitHub[6] webgunean biltegi bat sortu da, berregite osoa burutzeko behar den kode guztia eskainiz. Proposatutako metodologiaren errendimendua zeramika erromaniko-britainiar datu-multzo ezagun baten adibidearekin frogatzen da (Tubb et al., 1980). Emaitza gisa, metodo ireki bat eskaintzen da zeramiken analisi arkeometrikorako diseinaturik. Horren bidez, sustatu egiten dira kode irekiko tresnetan oinarritutako ikerketa-ekimenak. Gainera, doktorego-tesi honetan aurkeztutako analisi kimiometrikoak egiteko, metodo horretan erabilitako prozedurak erabili dira, beraz atal horretan erabilitako prozedurak era zabalago batean jorratzen dira.

[6]GitHub elkarlaneko softwarearen garapenerako proiektuetarako mundu-mailako plataforma handiena da.

1.3 *Errioxako eta Euskal Herriko buztingintza ekoizpena*

Atal honetan, Euskal Herriko eta Errioxako orain arteko azterlan arkeometrikoen egoera aztertzen da. Helburua 5. kapituluan aurkezten diren kasu-azterketen testuingurua aurkeztea da. Aipatutako kapituluan Logroño, Nájera, Orduña, Durango eta Elosuko buztingintza-lantegien ezaugarritze arkeometrikoa lantzen da. Haren bidez, hobeto ulertu nahi dira Erdi Aroan eta Erdi Aro osteko giza dinamikak eta sare komertzial eta teknologikoak hobeto. Ikerketa tokiko zeramiken azterketa arkeometrikoan oinarritzen da, bai jatorri-analisien ikuspuntutik, bai teknologiari erreparatuz ere.

Iberiar penintsula buztingintza tradizionala —artisautza gisa— desagertzeko denbora gehien behar izan duen gunea da, Mendebaldeko Europari erreparatuz. Azken hamarkadetan esku hartu da haren zainketaren kontzientzia handiagoz eta, ondorioz, zeramikazko objektu herrikoien bilduma bat sortu da estatu mailan, material eta datuak biltzeko programa zientifiko batzuen laguntzaz. Hala nola, estatuko geografia osoan barreiatutako buztingintza-museoen sorrera ere. Eskualde batzuk aktiboagoak eta kontzienteagoak izan dira. Esate baterako, Katalunia jarduera gehienak burutu dituen eskualdea izan da, hari jarraiki, Euskal Herria eta ondoren Valentzia, Aragoi, Gaztela Mantxa, Errioxa, Galizia, Asturias, Gaztela eta Leon eta Extremadura (Pleguezuelo, 2016). Tamalez, estatuko testuingururik zatituenetako bat da Iberiar penintsulako buztingileen ezagutza historiko nahiz arkeologikoa, ekoizpen zeramikoari dagokionez. Penintsulako iparraldean, Erdi Aro eta Aro Modernoko euskal zeramika-erregistroa oso gutxi ikertu da, gainerako eskualdeekin alderatuz gero. Gaur egungo erregistroen arabera, hobeto ezagutzen dira Bartzelona, Valentzia, Aragoi edo Sevillako lantegietan ekoiztutako artefaktuak, iparraldeko guneenak baino. Are gehiago, zenbait kasuetan, kanpoan hobeto ezagutzen dituzte, hemen ekoiztutako zeramikak. Beraz, agerikoa da ikerketa sakon bat falta dela iparraldeko ekoizpena ondo ulertua izan dadin. Hutsune hori gainditzeko, zeramika horien ekoizpenean parte hartzen duten faktore teknologikoen azterketa zehatza egitea garrantzi handikoa da.

Bereziki, Iberiar penintsulako iparraldean eta erdialdean Erdi Aroko zeramikazko ekoizpenen arkeologia-ikerketen tradizio urri bat sumatzen da penintsulako gainerakoekin alderatuz. Penintsulako zeramika beiratuen kasuan, Gaztela eta Aragoiko koroetan hamabi ekoizpen-zentro identifikatu dira, XV eta XVIII. mendeen artean, baina datu arkeologikoak nahiko urriak dira oraindik (Iñañez et al., 2008). Aipatutako garaiari dagokionez, nabarmentzekoa da ARQUB eta haren kolaboratzaileak abiarazitako ikerketa. Bertan, diziplina anitzeko ikerketa-proiektu desberdinen esparruan, Gaztela eta Aragoiko Koroen ekoizpen-zentro gehienak aztertzeko ikuspegi arkeologiko eta fisiko-kimikoak garatu baitituzte. Lan horiek jatorrizko azterlan sorta zabala eskaintzen dute, zeramikazko gorputzen, pigmentuen eta beiratuen ezaugarri teknologikoak ebaluatuz. Ikerketa-lerro horren adibide ona da Iñañezen (2007) erreferentziazko dokotrego-tesia, Erdi Arotik eta Errenazimendurainoko ekoizpen nagusiak jorratzen dituena. Lan honetan zeramika maiolikoaren lehen ezaugarritze

arkeometriko sistematikoa garatu zen, eta, dokumentazio historikoaren arabera, haren ekoizpena, XVI. mendetik Talavera de la Reina eta Puente del Arzobispo (Toledo) herrietan hedatu zen. Maiolikak kalitate handikoak eta finak ziren, beiratu zuri batez bereiziak. Beiratu hori eztainua eta berunezko nahaste batean datza, eta hainbat oxido metaliko izan ditzake, besteak beste urdin, laranja, manganeso more-beltza eta esmeralda berde koloreak lortzeko. Lan horretan ezarritako RGren zerrendak, maiolika ekoizpen-gune nagusiak hartzen ditu barne: Bartzelona (BCN-B1B2, BCN-B3, BCN-B3, BCN-B3), Lleida, Manises, Muel, Sevilla, Talavera, Teruel, Villafranca de Penedes eta Villafeliche, besteak beste. Horiek oso interesgarriak izan dira doktorego-tesi honetan aztertutako zeramiken jatorri-analisia burutzeko. Horrela, aztertutako zenbait zeramikak Teruel, Muel edo Talavera de La Reina bezalako ekoizpen guneei esleitu zaizkie ebidentzia arkeometriko sendoei esker (ikus 5.2. eta 5.3. atalak).

Orain dela gutxi ARQUBn garatu zen doktorego-tesia ildo honetatik jarraitzen du Talavera de la Reina eta Sevillako lantegietan zentratutako ikerketarekin jarraituz Fernández de Marcos (2018). Antza denez, XVI. mendean, Talavera penintsulako barne-merkataritzaz arduratuko litzake, eta Sevillako lantegiek, berriz, atzerriko zeramika kontsumoa hornituko lukete. Bada, aipatutako lanean, ekoizpen haien ezaugarritze kimikoa burutzen da. Talaverako ekoizpenei dagokienez, aditu askok gogora ekartzen dute bertako zeramikak lantegi askotan imitatu zirela, iparraldea barne (Conesa, 2011). Hala eta guztiz ere, aztarnategietan Talavera-moduko piezak agertzen direnean, maiz Talaverako lantegiei esleitzen zaizkie, ezaugarri estilistiko edo tipologikoetan oinarrituz. Hori dela eta, iparraldeko aztarnategietan aurkitutako pasten ezaugarri kimikoak berebiziko garrantzia du zeramiken identifikazio eta banaketaren berrinterpretazioan.

Oraindik ere oso zatikatuta dago Euskal Herrian ekoiztutako zeramikei buruzko ezagutza. Nahiz eta azken urteotan aurrerapausoak eman diren. Esaterako, Iñañez ikerlariaren zuzendaritzapean, CERANOR (HAR-2013-46853) eta CERANOR-2 (HAR-2017-84219-P) proiektuei[7] esker berriki egin diren ekarpenak. Oro har, ikerketa eskasia handia dago eremu arkeometrikoari dagokionez, Arkeologiaren kasuan, eta bereziki Artearen Historian gertatzen den ez bezala. Ondorioz, erreferentziako multzo gutxi edo bat ere ez dago analisi kimikoetan oinarritutako jatorri-azterketetan erabil daitezkeenak. Lehen hurbilketa arkeometrikoen arabera, euskal zeramikaren errealitatea XVI. eta XVIII. mendeetan espero zena baino konplexuagoa da (Puig and Escribano, 2011; Puig, 2016). Ikus daitekeenez, egoera horrek nabarmen islatzen du joera bat Euskal Herriko aztarnategi arkeologikoen egungo azterlanetan, baina baita Europako eta Ipar Amerikako merkataritza atlantikoan eta euskal baleontzien kokalekuetan ere.

Horrelako azterlanik ez egoteak garrantzi handiko ezagutza-hutsune bat dakar, ezagutza arkeologiko eta historikoaren garapen egoki baterako. Gauza bera gertatzen

[7]Penintsulako ekoizpen-zeramikoen Arkeologiari eta Arkeometriari buruzko proiektuak (XVI. mendetik XVIII. mendera), MINECO/AEI/FEDER erakundeetatik laguntza jasotzen duena.

da Zamoran; bertan, CERANOR proiektuen ekarpenez gain (Sanchez-Garmendia et al., 2018), Pereruelako zeramika garaikideari buruzko azterlan etnoarkeometrikoak baino ez dira ezagutzen (Buxeda i Garrigós et al., 2003; Peacock, 1982).

Errioxako Buztingintzari Buruzko Ikerlanak

Logroñon eta Najeran kokatutako aztarnategiei dagozkie doktorego-tesi honetan aztertutako Errioxako testuinguruak. Bi hiriak Ebro ibaiaren inguruan daude eta 28 km-k banatzen dituzte. Kronologikoki, aztertutako materialak XVI. mendeari dagozkie Najerako kasuan eta, aldiz, XIII-XVIII mende tarteari Logroñoko kasuan. Aldi kronologiko dilatatu honen aurrean, ez du zentzu handirik testuinguru historiko-arkeologiko zabal bat ematea. Hala ere, aztertutako bost ikerketa-kasuen hasieran, testuinguru labur bat ematen da beharrezkotzat jo diren aipamenak eginez. Hori esanda, hurrengo lerroek errioxar eskualdeko buztingintzari buruzko literatura garrantzitsuena estaltzea dute helburu.

Nahiz eta aurreko kronologiei dagokien, aipatzekoa da erromatarren garaian *Tritium Magallum* delakoa, Hispaniako *terra sigillataren* ekoizpen zentro nagusia izan zela. Erromatar hiribildu hori gaur egungo Errioxako Tricio herriari dagokio eta Najeratik 2.6 km-tara kokatzen da. Gainera, azken ikerketek jasotzen duten moduan, *terra sigillataren* ekoizpena ez zen soilik hiribildu horretara eta bere lurraldean kokatutako lantegietara mugatu. Aitzitik, Kalahorra, Varea (egungo Logroño eskualdea), Libia (egungo Herramélluri) eta zenbait hiribilduek beren beharrak asetzeko lantegi propioak omen zituzten. Fenomeno hori behe-inperio garaian sustatuko zen batik bat, Alhama haranean kokatutako Kontrebezia Leukade eta Balsas-eko ekoizpen-zeramikoekin batera (Luezas Pascual, 2014).

Dokumentazio historikotik abiatuta, Errioxako ikuspegi orokor bat eskaini zuen Martínez Glerak (1994), Erdi Aro osteko buztingintza-jarduerei dagokionez. Informazio gehiena Ensenadaren Katastrotik[8] atera zuen. Antza denez, Harok menderatu zuen buztingintza-ekoizpena, eta, pixkanaka, Navarretek ordezkatu zuen. Ildo horri jarraiki, mendeetan zehar zeramika lantegien arteko langile-trukeak ere dokumentatu zituen Glerak. Ez da harritzekoa jarduera handiena Haron jazo izana, non hainbat tokitako ikastunak egon ziren (Martínez Glera, 1994). Hala ere, orain arte ez da aurkitu ekoizpen-zeramikoarekin lotutako egiturarik Haron, nahiz Navarreten.

[8] 1749an Gaztelako Koroan egin zen ikerketa estatistiko eta eskala handiko errolda. Fernando VI.-a Espainiako erregeak, eta bere ministroak agindu zuten. 15.000 leku baino gehiago ebaluatu ziren, baina euskal probintziak, Nafarroa edo Aragoiko Koroa ez ziren kontuan hartu. Biztanleria, lurralde-ezaugarriak, eraikinak, abereak, bulegoak, mota guztietako diru-sarrerak eta lanbideak, eta baita toki bakoitzaren informazio geografikoa ere jaso ziren.

Aitzitik, Logroñon aurkitutako eltzegileen hondakinek[9] agerian utzi zuten Erdi Aroan buztingintza gune desberdinduak egon zitezkeela (Martínez González, 2013). Alde batetik, *Hospital Viejo* kalean; besteak beste, hiru labe, hainbat trebera eta funtzio berdinarekin erabilitako teilak aurkitu ziren (Angulo and Porres, 2015). Bestetik, 2018ko udan beste lantegi bat aurkitu zen *Ollerías* kalean, tokiko buztingintza jarduerari lotutako toponimiarekin bat etorriz eta XVI. mendeari dagokiona (Gil Zubillaga and Luezas Pascual, 2018). Hortaz gain, Nájerako alkazarrean milaka pieza agertu ziren XVI. mendeari esleitzen zaizkionak. Horietatik, eztainu-berunez beiratutako lagin sorta bat arkeologikoki aztertua izan da (Ceniceros Herreros, 2012), eta horietako pieza batzuk arkeometrikoki aztertu dira doktorego-tesi honetan (ikusi 5.3. atala). Oro har, Erdi Aro osteko garaiari dagokionez, Errioxako Arkeologian material zeramiko gutxi ezagutzen da. Besteak beste, dokumentatutakoa zenbait erreskate-indusketetan lortutakoa da. Ildo horretan, pieza horien xehetasunik gabeko deskribapenak edo, gehienez, jatorri arkeologikoko piezak biltzen dituzten katalogoak existitzen dira (Martínez Glera and Álvarez González, 2012; Alvárez Clavijo, 2012). Ebaluazio horiek tipologia eta funtzioa izan dute ardatz. Bestalde aipatutako Logroñoko *Hospital Viejoko* aurkikuntzak, doktorego-tesi baten oinarri ere izan dira (Martínez González, 2013).

Euskal Herriko Buztingitzari Buzuko Ikerlanak

Euskal Herrian industriaurreko tokiko hainbat lantegi ezagutzen ditugu; besteak beste, toponimiari, dokumentazio idatziari, etnografiari edota zenbait ebidentzia arkeologikori esker. Nabarmentzekoa da, Ibabe etnografoak burutu duen lana Euskal Herriko zazpi probintzietako buztingintza dokumentatuz (Ibabe, 1995a,b). Hala nola, buztingintzako lanabesak, labeak edo akatsak dituzten zeramikak oinarritzat hartu izan dira lantegi horiek identifikatzeko (Escribano, 2009). Ildo horretan, duela gutxi, tokiko zenbait lantegi identifikatu ziren. Horretarako hainbat prospekzioetan eta kontsumo zentro desberdinetatik lortutako aztarnak ebaluatuz. Ondorioz, XIV-XVII mendeen artean Buradon Gatzaga, Ollerieta edota Egileta, tokiko ekoizpenaren zatirik handiena menderatuko luketela iradoki da (Escribano, 2014). Gipuzkoan, aldiz, ez dago ekoizpen ebidentziarik XIX. mendera arte. Dirudienez, ez zen erakargarria buztingintzaren lana Gipuzkoako gizartearentzat (Ibabe, 1995a).

Euskal zeramikari buruzko azterlanen artean lehenengoetarikoa Leandro Silvan kimikariarena litzateke (Silvan, 1982). Ondoren, Olaetxea eta Lopez de Herediaren doktorego-tesiak analisi arkeometrikoetan oinarritzen dira, Euskal zeramikaren ekoizpenaren historiaurreko garaiei ekiteko (Olaetxea, 2000; López de Heredia, 2014). Geroago, Solaunek (2005) tresna taxonomiko eta hermeneutikoak garatu zituen Erdi Aroko Euskal zeramikaren erregistroan oinarriturik (VIII-XIII mendeak). Azkenik, Escribanoren doktorego-tesiak (2014) aurreko lanari jarraitutasuna eman zion, XIV.

[9] Gaztelaniaz *testar* eta ingelesez, *potter's dump* bezala itzultzen da.

mendetik XVII. mendera Euskal zeramika-erregistroaren genealogia aztertuz eta Arabako lurraldeari erreparatuz. Hala ere, nahiz eta erreferentziazkoak izan diren aipatutako azkenengo bi lan horiek, ez dira ikuspegi arkeometriko batean oinarritzen. Aitzitik, Erdi Aro eta Aro Modernoari dagokienez, Euskal Herriari buruz egin diren azterlan arkeometrikoen artean, aipatzekoa da Puigen (2016) doktorego-tesia, non euskal zeramikaren lehenengo ezaugarritze arkeometriko sistematikoa burutzen den (Puig, 2016). Hala eta guztiz ere, lan horren ikuspegia kontsumo guneetara soilik mugatzen da. Ondorioz, definitutako PCRUren benetako jatorria oraindik zalantzazkoa da.

Chapter 2

Objectives

As addressed at the introduction (pag. 22), the goals of this work were established within the framework presented in *Designing Rigorous Research* by Buxeda i Garrigós and Madrid i Fernández (2017). Along these lines, this Doctoral Thesis integrates both, the application of well-established archaeometric routines and the development of innovative approaches aimed to solve archaeometric research problems. Both approaches have contributed in a synergistic way during the course of the present investigation (see Figure 2.1). On the one hand, a methodological contribution was conducted, which responds to archaeometric research problems such as the research reproducibility and non-destructiveness of compositional analysis of pottery (objectives 1 and 3). On the other hand, to achieve these goals, an archaeometric characterization of pottery production centers from The Basque Country and La Rioja was carried out (objective 2). Thus, within this transdisciplinary work the specific goals set are the following:



Figure 2.1: The goals addressed in each chapter present synergistic links. TBC: The Basque Country and LR: La Rioja.

1. Develop a reproducible research workflow based on open source software R. The aim of this research inquiry was to set up a basis for the collaborative development of open source tools for the research. Moreover, it intends to engage the scientific community to use such tools, especially those archaeometrists conducting compositional analysis. The results of this goal are presented in the Chapter 4 and in the repository published on the GitHub (`https://github.com/esteful/arch_flow`).

2. The archaeometric characterization of an array of pottery production centers from the northern Iberian Peninsula of medieval and post-medieval period. The results are presented in the Chapter 5 and include the five case studies. The aim of this research was to develop relevant background of knowledge to facilitate the reconstruction and interpretation of the processes involved in the manufacture, use, and post-depositional environment of the ceramics.

3. The exploration of non-destructive strategies for the pottery analysis by ED-XRF. This research inquiry is focused in the development of a non-destructive screening classification methodology for archaeological ceramics and the revision of the specific challenges these kinds of materials present in such analysis. The results are presented in Chapter 6. Moreover a specific publication deals with the content of this chapter (Calparsoro et al., 2019b)

Chapter 3

Materials and Methods

3.1 Ceramic Sample

In this Doctoral Thesis a sample of 347 Ic-s were subjected to archaeometric analysis. In addition, a sub-sample of 47 Ic-s were employed for the development of a non destructive screening methodology based on ED-XRF presented in the Chapter 6. With regard to Chapter 4, a dataset of Romano-British pottery (Tubb et al., 1980) was recycled to illustrate the open methodology presented. On the one hand, the nuances of the Romano-British pottery are out from the purview of this Doctoral Thesis. On the other hand, the 347 Ic-s constitute the main body of the present work. Therefore, in the following lines detailed description of these is presented.

The ceramics were obtained from five different archaeological sites located in the Northern Iberian Peninsula (see Figure 3.1). These sites are located in Logroño and Nájera in the Autonomous Community of La Rioja (LR), and in Orduña, Durango and Elosu in The Basque Country (TBC). Regarding the Basque, the first two correspond to the province of Biscay and the latter to Araba. The archaeological interventions of Logroño and Orduña respond to urgent excavations in plots where construction works had to be performed. These interventions were framed following the laws of 7/2004 of Cultural, Historic and Artistic Heritage of La Rioja and 7/1990 of Basque Cultural Heritage. Moreover, in the cases of Durango and Elosu, prospection works were intentionally carried out in order to obtain a ceramic record to widen the ethnographic knowledge about these production sites (Ibabe, 1995a). The lower archaeological evidence, as well as the availability of materials, resulted in a lower sub-sample selected from the last two sites (see Figure 3.2).



Figure 3.1: Map showing the procedence of the ceramics evaluated and their location.

For the selection of sites, priority was given to those that could be more directly linked to the ceramic production. Beyond the historical and ethnographic and/or toponymy that refers to each site, in the case of Logroño, Orduña and Elosu the crushing evidence was provided by the ceramic kilns in each site. In the former cases these were unearthed, whereas in Elosu the kiln remains erected, being one of the the fewest existing preindustrial kiln that can be visited in the Basque Country (along with the one of Eskoriatza). Regarding Durango, the lack of ceramic workshops identified was partially compensated by the large proportion of kiln-related materials (e.g. trivets or kiln-tubes) found in the site. Finally, for the case of Nájera, exclusively the large assemblage of tableware showing similar typologies could be taken as as basis to assign the subsequent local origin. Note that the findings of Nájera constituted the largest unearthed pottery assemblage corresponding to the post-Medieval period (Ceniceros Herreros, 2004).

The materials from all sites, except Nájera include kiln utensils such as trivets and kiln-tubes, both of them widely used to separate the pieces inside the ceramic kiln during the firing. Moreover, defective ceramics were also regarded, since they normally appear

very close to the pottery workshop where they have been manufactured. In the case of Elosu the oral tradition refers to a 20% of defective pieces in each firing (in which up to 8000 pieces could be fired each time) (Ibabe, 1995a). Thus, approximately 1600 defective ceramics (also called reuses) would be obtained every firing (which in the busiest periods was carried out every two months). In consequence, a high amount of reuses could be expected in the respective pottery workshops, and consider them as production evidence. However, these could also be sold for a lower price or exchanged by other goods in a lesser extent. Thus, a minor fraction of them would have had a radius of distribution, although this was probably very limited.

The Figure 3.2 shows the main typologies of evaluated ceramics, grouped by the sites from where they were obtained. As can be appreciated, overall, the tin lead glazed fraction is the highest, followed by the uncoated and the lead glazed one. In the case of Elosu, some ceramics with lead glazes and slips were also evaluated. The uncoated ceramics were mostly obtained in the earliest contexts of Logroño. The kiln utensils are also regarded within this category.



Figure 3.2: Histogram of the typologies of all the analyzed Ic-s grouped by site.

Regarding the forms, the ceramic assemblage includes a wide repertoire that can be grouped into four families, according to their utility: Tableware, Household , Religious and Production (see Figure 3.3). Most of the ceramics correspond to the first two groups, whereas only one home stoup represents the religious utility. The Production group includes all the sherds related to the ceramic manufacture. The detailed list is included in the Appendix B. Furthermore, the archaeological profiles of Orduña, Durango and Elosu, which were taken as a basis to identify the forms and construct the present classification can be consulted in the Appendix D. In the case of Logroño and Nájera, this previous step was performed elsewhere: see Angulo and Porres (2015) for the former, and Ceniceros Herreros (2012) for the latter. Note that some forms could not be determined. Hence, they were referred as undetermined. Each utility group includes the following forms:

- Household: Basin, canister, cooking pot, jug, lid, mortar, plant pot and vessel
- Production: Kiln utensil, Roof tile and paste
- Religious: Home stoup (a small bowl to contain the holy water)
- Tableware: Bowl, cup, jar, mug, pitcher, plate, porringer and sauce-boat
- Undefined: Undefined forms



Figure 3.3: Histogram of the forms of all the analyzed Ic-s grouped by utility.

The chronological frame of the studied ceramics is very wide, dating back from the 13^{th}-15^{th} in the oldest site (Logroño) and extending to the period of 1900-1960 in the latest site (Durango). It is understandable that the detailed analysis of the varied historical events in such a a dilated chronological period deserves attention that goes beyond the objectives and possibilities of this work. However, a brief historical context of each archaeological site according to its location is included at the beginning of each case study. Nonetheless, the necessary need to contextualize certain aspects directly related to the archaeological sites, leads to compose a unbalanced story, focused on a handful of very specific topics, while other events barely relevant to the site will remain ignored. A more detailed description of each ceramic sample is given in their respective sections. However, a summary is provided along the following lines (see Appendix B for more details).

3.2 Archaeological Sites

Logroño (LOG)

The sample from Logroño consist on 76 unglazed, lead and tin-lead-glazed sherds. The ceramics were recovered from the archaeological excavations performed in 2009 in the Hospital Viejo street in the Riojan city of Logroño (Angulo and Porres, 2015). Three ceramic kilns and a local dump, along with numerous ceramic sherds were discovered. The operational period of the kilns was settled during the 13^{th}-15^{th} centuries. Most of the studied ceramics from this site date back to these chronologies. In addition, 5 sherds dating back to posterior chronologies (16^{th}-18^{th} centuries) were also selected in order to evaluate possible links between the different periods. The set consists of tableware (dishes, plates, pitchers, bowls...) as well as several construction (roof tiles) and kiln tools, both of them used most probably as kiln utensils. The samples were kindly provided by ArqueoRioja archaeological company, which performed an extensive work documenting the materials recovered in the mentioned excavation (Angulo and Porres, 2015). Furthermore, additional publications address the study of the archaeological site of Hospital Viejo and its ceramic production based on the findings of the first archaeological intervention (Martínez González, 2013). A summary of the 35 forms identified was published elsewhere (Martínez González, 2015). However, the materials under study in this Doctoral Thesis correspond to the second intervention that was carried out in the mentioned site.

Nájera (NAJ)

The ceramic assemble from Nájera consist on 94 tin-lead-glazed earthenware pottery ascribed to the 16^{th} century. It was recovered in the archaeological excavations performed

in the Alcázar of Nájera (La Rioja) during 2002, in order to protect the remains of the Alcázar (Ceniceros Herreros, 2004). The set consists of tableware (plates, porringers, pitchers, bowls) and household (pots). Some of the glazes also include blue, green, yellow, black and luster decorations. The ceramics are glazed completely in the interior and either completely, partially or unglazed in the exterior (Ceniceros Herreros, 2004). Other tin-lead glazed forms include sauce boats, salt shakers, etc. Moreover, unglazed cooking pots and lids were also analyzed.

Orduña (ORD)

The ceramics from Orduña were obtained in the interventions of the Zaharra 2-4 and Tras Santiago streets. The interventions were carried out between 2001 and 2002 and numerous ceramic fragments and the relicts of a ceramic kiln, which can be dated back to late 17^{th} and early 18^{th} century, were discovered (Cajigas Panera et al., 2004). For the archaeometric study a set of 97 ceramics from the 17^{th} to 19^{th} centuries, including different typologies such as bowls, basins, vessels, jars and kiln utensils, were selected. All of the specimens were provided by the Archaeological Museum of Biscay and for the selection, priority was given to pieces such as kiln furniture, when available, and others, such tableware based on their abundance and different representative typologies, since they can be linked to the local production.

Durango (DUR)

For the archaeometric study a sample of 26 ceramics ascribed from 17^{th} to 19^{th} chronologies, including different typologies such as bowls, basins, vessels, jars and kiln utensils, were selected (see Appendix B for more details). All of the specimens were provided by the Euskal Buztingintza Museoa/Museo de Alfarería Vasca of Ollerías (Elosu) and for the selection, priority was given to pieces such as kiln furniture, when available, and others, such tableware based on their abundance and different representative typologies, since they are can be linked to the local production. The materials were recovered by the ethnographer Enrike Ibabe in different archaeological prospections carried out in Gerediaga neighborhood of Abadiño, very close to Durango (Ibabe, 1995a).

Elosu (ELS)

For the archaeometric study a sample of 51 ceramics ascribed from 17^{th} to 19^{th} centuries, including different typologies such as bowls, basins, vessels, jars and kiln utensils, were selected (see Appendix B for more details). All of the specimens were provided by the

Euskal Buztingintza Museoa/Museo de Alfarería Vasca of Ollerías (Elosu) and for the selection, priority was given to pieces such as kiln furniture, when available, and others, such tableware based on their abundance and different representative typologies, since they are can be linked to the local production. The materials were recovered nearby the kiln of Ollerías by Blanka Gómez de Segura (the current director mentioned museum).

Geological contexts



Figure 3.4: Geological Map (EVE-IGME, 1994), including locations of the five sites studied in this Doctoral Thesis. The legend can be consulted in the Figure A.1 of Appendix A.

All the production centers studied in this Doctoral Thesis are located in two regions (The Basque Country and La Rioja) that present different main geological characteristics. Whereas the sites located in the Basque Country correspond to geological strata from the the Mesozoic Era, Logroño and Nájera are in the middle Ebro valley, which is characterized by geological strata from the Cenozoic Era.

Concerning Orduña, from the geological point of view it is based on secondary crust of the Keuper (Upper Cretaceous) with alternating marls, marl-limestones and limestones, as well as bioclastic nodular calcarenites (calcarenites with lacazines). Ceramic pastes

ascribed to this site show low content of calcite inclusions and matrices characterized by autigenic quartz and pyroxenes (Solaun, 2005).

With regard to Elosu, the clays were extracted from the soils that nowadays are covered by a water dam (Urrunaga) (Ibabe, 1995a), which is formed by strata from the Cretaceous System. As suggested in the literature, the sediments present in this site must come from a river's flood basin -purged possibly by a natural decanting process-, perhaps from the Zadorra river, with large layers of Quaternary sediments deposited on the Cretaceous substratum that acquire greater extension in the Vitoria area, arriving to Miranda de Ebro (Solaun, 2005).

Concerning the production center of Durango, a clay-extraction site is depicted in the area known as Gerediaga (see Figure 5.57) (Ibabe, 1995a). Geologically, this site corresponds to the Upper Cretaceous crust and can be characterized by alternate detritus and abundant impure limestones and calcarenites.

In the case of the Logroño and Nájera, the geological strata characterizing these places correspond to the Cenozoic era. Although, no extraction site have been found in the literature, according to a study on the Oligocene-Miocene alluvial and fluvial fans of the northern Ebro Basin, high-quartz sandstones and sand deposits produced by the degradation of intrusive rocks could be expected to be present in the ceramic matrices from these sites (Yuste et al., 2004).

3.3 Experimental

This section is the one where the transdisciplinarity of this doctoral work becomes most evident. As has been anticipated, tools from Analytical Chemistry and Archaeology applied. Moreover, there is a heavy contribution of resources and know-how adopted from Computational Sciences, with specific applicability in research reproducibility. In an effort of building a bridge among these three fields, and in order to avoid misunderstandings, a detailed explanation of each process and technique is described in the following lines.

Sampling strategy

Pb eta Sn beiratuarekin erlazionatutako aldakortasuna izateagatik baztertu egin ziren. Gainera, kasu honetan aldakortasun-totalaren % 30a gehitzen dute (ikus 5.44. irudia). Aztertutako datu-multzorako, Ta-ren aldakortasun handia bi faktoreek emana dator. Alde batetik, zatiki mikatsuek erakutsitako desberdintasun handiak (11-16 μg/g) gainerako zeramika guztiekiko (1-4 μg/g). Bestalde, laginak prestatzeko erabili den metodoaren ondorioak ere kontuan hartu behar dira, izan ere, gure kasuan, ehotzerakoan wolframio karburozko zelda bat erabili zen eta aleazio horretan dauden Co eta Ta aztarnak zeramika-matrizera transferitu daitezke (Boulanger et al., 2013a). Beraz bi elementu hauek ere ez ziren kontuan hartu analisia-estatistikoetarako. Aipatutako elementuez gain, Na, K, Rb, P eta Zn ez ziren estatistika-analisietan erabili 5.1. atalean azaldutako arrazoiengatik.

Hortaz gain, CaO eta MgOk aldakortasun handia gehitzen diote datu-multzo osoari (ikus 5.44. irudia). Hala ere, CaOk eta MgO konposatuek teknologiarekin zuzenean loturik egon litezke, edota zeramika horiek ekoizpenerako artisauen banakako edo taldeko ekintzen ondorioz aldatu daitezke (eztabaida sakonago baterako ikus (Buxeda i Garrigós, 2008). Beraz, elementu horiek zenbait murriztapenekin erabili ziren. Hala ere, emaitzek erakutsi zuten moduan, MgOk funtsezko papera jokatzen du zenbait konposizio-multzo bereizi ahal izateko, edota banako zehatz batzuentzako (adibidez, ORD007). Kasu honetan, datu multzoaren aldakortasun-totala (vt) oso balio handia du: vt 7.61 (ikus 5.44. irudia). Hala ere, esanguratsuak ez diren aldagaiak baztertzean (Pb, P_2O_5, CaO, Sn, Zn, Sr, MgO, Cs,Co, Ta eta Cu), balioa nahiko altua izaten jarraitzen du (1.58). Hori dela eta, hainbat zeramika-multzo desberdinen presentzia aurresan daiteke (Buxeda i Garrigós and Kilikoglou, 2003).

Multzo desberdinak identifikatzeko helburuarekin multzokatze hierarkikoaren azterketa burutu zen (ikus 5.45 irudia). Horretarako Euklidear distantzia karratua kalkulatu zen zentroide algoritmoa erabiliz. Lortutako dendrogramaren bidez hiru teknotipo nagusirekin bat datozen hiru multzo identifikatu ahal izan ziren: zeramika mikatsuak (MIC), zeramika beiratu gardenak (LG) eta nagusiki eztainu-beruna duten beiratutako zeramikak (TLG), pasta kareduna erakusten dituztenak. Garbien isolatzen den klusterra, konposizio-multzo bat osatzen du (ORD-MIC). Bigarren multzoa (LG) berun-beiraz estalitako pieza guztiak biltzen ditu (ORD-MEL, erdaratik *meladas*) eta bi konposizio-multzotan banatzen da (ORD-MEL-A eta ORD-MEL-B). Gainera, hirugarren multzo (TLG) lau konposizio-multzotan banatzen da (ORD-A, ORD-B, ORD-C eta ORD-D).

Identifikatutako multzo guztiek, beiratu gabeko labe-lanabesak hartzen dituzte barne (treberak eta zeramika akastunak), material zaharrenak (ORD-B) eta mikatsuak (ORD-MIC) izan ezik (ikus 5.42 irudia). Azkenengo hauek Zamorako jatorria edukiko lukete, geroago eztabaidatuko den moduan. Labe-tresneriaren agerpena pista fidagarriena da, karakterizazio arkeometrikoa tokiko ekoizpenari dagokiola ziurtatzeko. Gainera, labe zeramikoen presentziak hipotesi hori berresten du erabat. Aitzitik, zaharragoak diren piezentzat, ezin dira ziurtasun berdinarekin esleitu, ekoizpen proba



Figure 5.45: Euklidear distantzia karratua irudikatzen duen dendrograma, zentroidearen algoritmoa erabiliz eta Urduñako 91 zeramika barne hartuz lortu dena azpi-konposizio honetarako: Al_2O_3, Zr, Nb, Cs, Ba, La, Ce, Pr, Nd, Sm, Eu, Gd, Tb, Dy, Ho, Er, Tm, Yb, Lu, Hf, Th, U, SiO_2, TiO_2, V, Cr, MnO eta Fe_2O_3.



Figure 5.46: ORD-A, ORD-B, ORD-C eta ORD-D multzoen Osagai Nagusien Analisia (PCA) alr transformazioa erabiliz hurrengo azpi-konposiziorako: Al_2O_3, Zr, Nb, Cs, Ba, La, Ce, Pr, Nd, Sm, Eu, Tb, Dy, Ho, Er, Tm, Yb, Lu, Hf, Th, U, SiO_2, TiO_2, V, Cr, MnO eta Fe_2O_3

.

espliziturik ez baitago. Kasu honetan haien tokiko ekoizpena, soilik iradoki daiteke, zeramika-labe eta zeramikazko beste pieza batzuen gertutasunean oinarrituta. Ideia hori literaturan aipatzen den hiribilduaren iraupen luzeko buztingintza jarduerak babesten du (Solaun, 2005; Escribano, 2014). Hala ere, ikerketa sakonago bat beharko litzake hipotesi hori frogatzeko.

ORD-MIC eta ORD-MEL multzoek heterogeneotasun handian gehitzen diote datu-multzoari. Horren eraginez, karedun multzoak estatistika-emaitzetan beraien



Figure 5.47: Diagrama hirutarra Fe_2O_3+MgO+CaO - Al_2O_3 - SiO_2 sistema erakutsiz Urduña-ko 94 zeramika-zatikiei dagokienak. An:Anortita, Gh:Gehlenita, Mu: Mullita, Qtz: kuartzoa, Wo: Wollastonita

artean multzokatzera behartzen ditu eta horrek zaildu egiten du multzoen horien arteko desberdintasun kimikoak behar bezala identifikatzea. Beraz, karedun multzoak era sakonago batean ebaluatzeko, PCA bat burutu zen soilik ORD-A, ORD-B, ORD-C, ORD-D multzoak barne hartuz. Gainera, kasu honetan, ez ziren CaO, Sr eta MgO kontuan hartu multzo bakoitzaren barneko aukera teknologikoek sartutako aldakortasunaren saihesteko. Karedun multzoen artean, aldakortasun baxuena erakusten zuen elementua Gd izan zen, eta, beraz, hura erabili zen zatiki gisa alr transformaziorako (ikus 5.46. irudia).

Fe_2O_3+MgO+CaO - Al_2O_3 - SiO_2 sistema hirutarraren diagramak aztertutako piezen egoera azaltzen du (ikus 5.47. irudia). TLGren lagin guztiak eta pasta bera daukaten labeko altzariak Wollastonita-Kuartzo-Anorthita oreka-sistema hirutarraren barruan daude; LG eta MIC multzok, berriz, Anorthita-Mullita-Kuartzo oreka hirutarraren sistemaren barruan daude. Analisi kimikoek erakusten dutenez, LG eta MIC-eko zatikiak oso ongi bereizten dira TLG zatiki guztiengandik, hain zuzen,

erakusten dituzten konposizio desberdintasun nabariengatik, SiO_2 eta Al_2O_3an, hurrenez hurren.

	ORD-A	SD	ORD-B	SD	ORD-C	SD	ORD-D	SD	ORD-MEL-A	SD	ORD-MEL-B	SD	ORD-MIC	SD
Al_2O_3	14.2	1.5	14.0	0.74	17.0	0.61	13.0	0.69	15.4	1.7	19.9	2.2	27.4	1.4
CaO	19.7	2.8	15.5	2.2	15.8	1.3	9.31	1.8	1.11	0.39	0.960	1.1	2.26	1.1
Fe_2O_3	3.89	0.45	2.84	0.39	5.24	0.24	3.76	0.19	4.49	0.61	3.06	0.30	2.89	0.54
K_2O	1.72	0.27	2.49	0.42	2.07	0.32	2.00	0.066	2.70	0.48	3.59	0.12	3.82	0.17
MgO	1.20	0.25	2.43	0.47	1.55	0.15	0.990	0.34	0.73	0.17	0.806	0.37	0.837	0.10
MnO	0.0320	0.0010	0.0250	0.0087	0.0305	0.0029	0.0227	0.0052	0.0145	0.0030	0.0116	9.810^{-4}	0.0347	0.0017
Na_2O	1.42	0.19	<LOD	<LOD	1.49	0.24	1.36	0.11	1.46	0.17	1.56	0.21	6.01	8.3
P_2O_5	1.59	5.5	0.425	0.11	1.13	1.7	0.379	0.25	0.133	0.12	0.0761	0.078	0.219	0.16
SiO_2	51.7	8.0	46.7	6.3	50.1	3.0	69.7	7.3	78.2	8.1	64.6	6.4	65.6	6.3
TiO_2	0.607	0.071	0.625	0.047	0.749	0.029	0.725	0.087	0.835	0.10	0.832	0.066	0.145	0.013
Ba	274	36	431	93	399	22	294	41	381	74	538	48	349	$1.2{\cdot}10^2$
Ce	64.8	7.7	76.9	6.1	79.2	2.1	72.4	3.9	89.4	11	110	5.6	30.2	2
Co	18.7	11	15.6	3.8	21.8	3.7	23.9	8.6	35.3	11	14.3	4.9	22.5	11
Cr	93.4	13	71.7	6.0	156	21	103	7.6	123	12	140	41	27.4	6.1
Cs	9.55	2.8	8.99	2.1	9.20	1.2	10.1	0.62	12.1	2.0	16.4	0.54	47.1	7.1
Cu	44.4	33	71.3	31	103	49	84.1	123	32.1	10	49.1	18	43.6	13
Dy	3.66	0.49	4.50	0.33	4.53	0.16	4.31	0.42	4.96	0.80	5.68	0.23	7.45	0.70
Er	2.16	0.26	2.37	0.15	2.56	0.091	2.49	0.20	2.80	0.36	3.00	0.18	4.12	0.44
Eu	0.882	0.14	1.15	0.097	1.26	0.055	0.990	0.040	1.22	0.22	1.57	0.17	0.781	0.14
Gd	4.15	0.66	5.53	0.47	5.42	0.15	4.73	0.26	5.75	1.0	7.34	0.51	5.64	0.81
Hf	5.97	1.0	7.42	1.2	5.62	0.24	8.23	1.3	9.79	1.3	8.65	2.5	4.26	0.30
Ho	0.699	0.085	0.737	0.043	0.814	0.028	0.758	0.057	0.840	0.090	0.916	0.070	1.24	0.12
La	30.3	3.3	36.6	2.9	38.0	0.86	34.2	2.2	42.4	4.7	53.0	3.0	17.1	3.4
Lu	0.314	0.043	0.365	0.028	0.387	0.033	0.408	0.054	0.471	0.082	0.466	0.021	0.618	0.057
Nb	16.0	2.2	22.7	1.4	16.8	0.67	17.1	1.5	18.5	2.2	33.6	8.4	28.3	3.7
Nd	26.8	4.0	43.5	3.7	36.2	0.89	32.1	2.4	41.4	7.2	54.9	4.6	16.8	5.5
Ni	19.7	3.7	14.9	2.4	32.7	7.2	29.2	26	19.3	3.9	24.6	10.	12.1	3.7
Pb	(196 -	10^3)*	$3{\cdot}10^3$	$2{\cdot}10^3$	$2{\cdot}10^3$	10^3	973	$3{\cdot}10^2$	(95 -$5{\cdot}10^3$)*		301	10^2	(21-472)*	
Pr	6.96	0.89	11.5	1.0	9.01	0.31	8.12	0.57	10.1	1.5	13.9	1.8	4.39	1.1
Rb	110	25	142	25	153	35	128	4.6	160	19	213	5.4	616	35
Sm	4.72	0.73	6.63	0.45	6.15	0.33	5.56	0.31	6.57	1.1	8.34	0.4	4.61	0.84
Sn	34.3	32	58.1	61	31.4	28	17.9	7.5	12.5	4.1	11.1	2.8	59.1	19
Sr	545	$1.4{\cdot}10^2$	321	40	960	$1{\cdot}10^2$	222	22	143	45	173	12	205	13
Ta	2.32	0.37	1.62	0.11	2.09	0.18	2.52	0.36	2.83	0.44	3.24	0.71	12.8	2.9
Tb	0.613	0.11	0.804	0.074	0.802	0.033	0.717	0.054	0.866	0.17	1.06	0.071	1.19	0.16
Th	12.4	1.4	12.9	0.92	13.8	0.41	13.4	0.86	16.7	1.1	17.0	0.47	4.71	0.41
Tm	0.308	0.042	0.401	0.033	0.380	0.020	0.390	0.045	0.436	0.073	0.462	0.013	0.681	0.073
U	3.08	0.34	3.08	0.21	3.19	0.14	3.52	0.33	3.84	0.40	4.23	0.34	5.78	1.4
V	61.2	11	73.0	6.4	105	14	53.6	3.6	74.2	9.2	103	6.4	21.6	3.2
Yb	2.25	0.28	2.29	0.15	2.65	0.093	2.64	0.25	2.97	0.38	3.02	0.25	4.11	0.34
Zn	38.0	7.5	9.69	1.8	37.6	2.9	36.2	7.4	37.5	6.2	26.3	15	45.5	5.0
Zr	231	40	135	11	219	9.8	327	54	384	48	247	63	123	15

Table 5.6: Urduñako konposizio-multzo bakoitzaren ICP-MS bidez lortutako kontzentrazio kimikoen batez bestekoak eta desbiderapen estandarrak (SD). Unitateak μg/g dira eta oxidoen kasuan masa %-ak aurkezten dira. <LOD: detekzio muga azpitik.(*) Pb eta Sn-rentzako kontzentrazio tarteak ematen dira SDak batez bestekoak baino handiagoak diren kasuetan.

Gainera, alde batetik, multzo bakoitzean hainbat ehundura-mota identifikatu ziren, eta horien erreketa tenperatura baliokideak ere (ingeleseko laburduran EFT). Horretarako XRD bidez lortutako difraktogramak erakusten dituzten fase mineralogikoak oinarritzat hartuz (ikus 5.56. irudia). Hala nola, haustura freskoak SEM bidez aztertu ziren, beiratze-maila ebaluatzeko haiek erakutsitako mikro-egituraren bidez (ikus 5.52. irudia). Azkenik, beiratuen karakterizaziorako konposizio-multzo bakoitzeko pieza adierazgarrienetarikoak aukeratu ziren,

koloratzaileak eta moldaketa teknologikoak identifikatuz. Ondorengo lerroetan, konposizio-multzo bakoitzaren eztabaida aurkezten da, besteak beste, konposizioaren alderdi aipagarrienak, XRD bidez identifikatutako ehundura motak eta SEM-EDX bidezko beiratuen karakterizazioa. 5.6 taulan, multzo bakoitzaren batez besteko kontzentrazioak eta SD balioak kontsulta daitezke. Multzo bakoitzaren zeramika adierazgarrien irudiak aurkezten dira, bai eta 3D berreraikitzeak ere, zeramika zatikietatik abiatuta egin direnak, artikulu honetan jasotzen den bezala (Rodríguez Miranda et al., 2017).

ORD-A

Multzo honetan, *Tras-Santiago* (n = 32) eta *Zaharra 24-30* (n = 7) guneetako 39 zatiki daude. Beraz, kronologikoki 1788-1850 bitartean definituta daude, nahiz eta bi pieza aurreko kronologia batekoak diren (1735-1760). Labeko tresneriaren ehuneko handi batek osatzen du konposizio-multzo hau, kare-eduki handiko pastak erakusten dituena (CaO $\approx$ 20 masa %). Gainera piezak eztainu-berunezko beiratuez estaliak daude eta kasu batzuetan apaindura berdeak erakusten dituzte (ikus 5.48. irudia).

Pasta honekin, batez ere, baxera formak sortu ziren: goporrak, platerak eta, neurri txikiagoan, txarroak. Hala ere, forma handiagoko aska batzuk ere pasta berarekin ekoitzi ziren (horietako bat, ORD030ak berunezko beiratu bat baino ez du erakusten, beste guztiak eztainu-berunezkoa izanik). Bestalde, ORD048 kolore urdinez apaindutako zatiki bakarra da. Geroago ikusiko den moduan, ORD-C, dekorazio urdinak ezaugarritzen dituen multzoa da. Hala ere, kasu honetan, konposizio aldetik ORD048 zatikia bat dator ORD-A multzoarekin (ikus 5.6. taula), berdeaz apaindutako piezak erakusten dituena. Urduñako datu multzo osoa kontuan hartuta, ORD-A multzoan gutxiengo elementuen kontzentrazio orokor baxuagoa hautemanen da; besteak beste Dy, Gd, Ho, Lu, Nb, Nd, Pr, Th, Tm, Yb eta Sm-ren kasuetan (ikus 5.6). CaO, MgO eta Sr bezalako elementu gehiengoetan aldakortasun altuek heterogeneotasun bat eragiten dute, konposizio-multzoaren barruko aldaketa teknologikoak iradokiko lituzkeena. Horrela, multzoa bitan banatzen da, MgOaren arabera. Hala ere, bere kontzentrazioa tarte estu baten barruan mantentzen da ORD-A multzo osoan zehar (1.2 $\pm$ 0.25 masa %). MgOn kontzentrazio baxuak dituztenak Sr kontzentrazio altuak erakusten dituzte eta alderantziz; kasu guztietan, CaOren kontzentrazio altuak mantenduz. MgOren kontzentrazio altuek zerikusia izan dezakete erabilitako buztinen fase dolomitikoekin.

Azkenik, ORD048 zatikiaren bereizpena ORD-A multzoaren barnean Al_2O_3 kontzentrazio altuago bati zor zaio (ikus 5.46. irudia). Izan ere, 11.7 masa % Al_2O_3 du, non gainerako zeramikek 4.2 $\pm$ 1.6 masa % erakusten dute. Hala nola, Th-a 9 μg/g -ko kontzentrazioa du eta gainerako zeramikek 12 $\pm$ 1 μg/g duten bitartean.



Figure 5.48: ORD-A multzoko zeramika adierazgarrien 3D berreraikitzea (goian). ORD-A multzo beiratuen eredu bat SEM-EDS eta mikroargazkia erakutsiz (behean).

Desberdintasun kimiko horietaz gain, gainerako elementuen kontzentrazioa eta HCAk iradokitzen duen bezala, ORD-A multzoaren barne geratuko litzake zatikia.

Multzo honek bi ehundura mota aurkezten ditu: F-I eta F-II (ikus 5.56. irudia). Kuartzo, gehlenita, plagioklasak (albita erakusten da) eta piroxeno (diopsidoa erakusten da) fase nagusiak dituzte biak. F-I fasean, mullitaren $Al_{4+2x}Si_{2-2x}O_{10-x}$ ($x \approx 0.4$) agerpen hasiberria hauteman daiteke (ORD020 erakusten da eredu gisa). Fase horien konkurrentziak, haren EFTa 900-1000°C artean kokatuko luke. Bigarren ehundura (F-II), berriz, aurrekoaren oso antzekoa izanik, erreketa-tenperatura altuko fase gehiago erakusten ditu (ORD003 erakusten da eredu gisa). Hala nola, mullita, eta espinelen agerpen hasiberria sumatzen da ehundura honetan. Beraz, haren EFTa 1050-1100°C tartean kokatuko litzateke, aurrekoa baino zertxobait altuagoa izanik.

EFTaren diferentzia horiek, pastaren sinterizazio maila desberdinekin bat datoz, haustura-freskoan antzeman daitekeen moduan (ikus 5.52. irudia). Irudi horretan, F-II ehunduraren sinterizazio maila aurreratuago bat hautematen da F-I-rekin alderatuz. CaOren eduki handia, multzo honen ezaugarria da eta difraktogrametan identifikatutako kaltzitarekin bat dator. Hala ere Kaltzita 650°C ondoren deskonposatzen da; beraz, presente dagoen kaltzio guztia birkarbonatazio- edota kutsadura-prozesuen emaitzaren bidez sortutakoa izan behar du.

Zenbait zeramikek aldaketa txikiak erakusten dituzte zenbait fase mineralogikoetan. Esaterako, ORD022 kaltzita eta feldespato-potasiko gehiago erakusten ditu. Hori dela eta, EFT baxuago batekoa izango litzakeela pentsa daiteke. Aitzitik, ORD021 zeramikan ez da kaltzitarik identifikatu, eta hori ez da ohikoa, kontuan hartuta F-II ehunduran konposatu hau nabaria dela. Bestalde, ORD006 eta ORD077 zatikien plagioklasen gailurrak oso baxuak dira F-II-rako nagusitzen den joerarako. Horregatik, tenperatura baxuago batera iritsi direla iradoki daiteke. Gainera, bi labe-tresna daude ORD024 eta ORD031, tenperatura altuagoak jasan zituztela antzeman daitekela (≈1100°C), haiek erakusten dituzten erreketa-faseen aberastasuna dela eta (bereziki plagioklasena). Kontuan hartuta pieza horiek erreketa anitzak jasaten zituztela, behin eta berriro erabiltzen zirelako, zentzua dauka pentsatzeak uneren batean tenperatura hori jasan izana, labearen bizi-ziklo osoan zehar.

Zeramika-gorputzen eta beiraduren interakzioaren arabera, zeramikak bi erreketa-prozesuko teknologiaren bidez egin zirela baieztatzen da. Lehenengo erreketa batean bizkotxoa lortuko zen, XRDk erakutsitako EFT maximoetara helduz (ikus 5.56. irudia), eta bigarren erreketa batean beiratua aplikatuko litzake, eskuarki, tenperatura baxuagoetara. Estaldurek beiratu zuriak erakusten zituzten, SnO_2 oinarri hartuta, kasu gehienetan, eta apaindutako piezek, berriz, beiratu gainean MnO bidez lortutako kolore beltzak edota CuO bidez lortutako berdeak erakusten zituzten (ikus 5.48 irudia).

Multzo honetan dauden labeko tresna guztiez gain, erreketa-akatsak dituzten beiratu batzuk daude, multzoa tokiko ekoizpenari lotzea ahalbidetzen dutenak (adibidez, ORD061, akatsak dituen beiratu bat erakusten duena, oso litekeena izanik gainberotze-prozesu bat gertatu izana.

ORD-B

ORD-B multzoa 17 zeramika-zatikiek osatzen dute, guztiak eztainu-berun zuria eta apaindurarik gabeko beiratua aurkezten dutelarik. Tipologikoki bi forma nagusi daude multzo honetan: plater eta katilu txikiak, txarro bakarra barne. Multzo honen ezaugarririk esanguratsuena denak kronologikoa berekoak direla da; izan ere, zatiki guztiak *Zaharra 2-4* aztarnategiko unitate estratigrafikoari dagozkio (SU 80). Beraz, zeramika hauek pieza goiztiarrenak irudikatzen dituzte (1694-1750), zeramika-multzo osoaren kronologia kontuan hartuta (1694-1850).

MULTZOA	Ehund.	EFT(°C)	Qz	Ilt-Ms	Afs	Cal	Gh	Goet	Hem	Pl	Px	Mul	K-Sp	Phyllo-Si
ORD-A	F-I	900-1000	xx			x	x			x	x	x		
ORD-A	F-II	1050-1100	xx			xx	x			x	x	xx	x	
ORD-B	F-I	850-900	xx	x	x		x							
ORD-B	F-II	900-1000	xx		x		x			x	x	x		
ORD-B	F-III	950-1000	xx		x		x	x		xx	x	x		
ORD-C	F-I	900	xx		x	x	x			x	x			
ORD-C	F-II	1000-1050	xx			x	x				x		x	
ORD-D	F-I	<950	xx	x	x	x	x		x	x				
ORD-D	F-II	>950	xx		x	x	x		x	x				
ORD-MEL-A	F-I	850-900	xx	x	xx		x	x		x				
ORD-MEL-B	F-I	>900	xx	x	xx		x	x		x				
ORD-MIC	F-I	850	xx	xx	x									x

Table 5.7: Urduñako multzoan identifikatu diren konposizio-multzo bakoitzaren ehundura desberdinak. Qz: Kuartzoa; Ilt-Ms: Illita-Muskovita; Afs: alkali-feldespatoak; Cal: Kaltzita; Gh: Gehlenita; Hem: Hematitea; Pl: plagioklasak; Px: Piroxenoak; Mul: Mulita. Laburdurak (Whitney and Evans, 2010) ondoren. Phyllo-Si Taldea (filosilikatoak): nephelinea, phlogopitea, klorita-bermikulita-montmorillonita, biotita, enstatita, ortoklasa).

PCAk ORD-B eta TLG multzoen arteko bereizketa argia erakusten du (ikus 5.46. irudia). Izan ere, multzo honek Fe_2O_3 kontzentrazio baxuak erakusten ditu, TLGko gainerako multzoekin alderatuta. Beste gehiengo aldagai batzuk, hala nola, Zr (135 ± 11 μg/g) eta SiO_2 (46.7 ± 6.3 masa %) ere kontzentrazio apalagoak aurkezten dituzte. Hori dela eta, garai horri esleitutako zeramikazko pastei dagokienez, nahasketa desberdinen erabilera iradoki daiteke. Hipotesi hau sendotzen da, aztarna eta gutxiengo elementu askok erakusten dituzten kontzentrazio aberatsagoak ikusita; besteak beste, Dy, Gd, Nb, Nd, Pr, Tm eta Sm.

Elementu horiek ez daude loturik aukera teknologikoekin, jatorrizko lehengaien konposizioarekin baizik (Glascock, 2016). Hori dela eta, buztin-horniketaren aldaketa batean pentsa genezake. Hori gutxi balitz, ORD-B multzoak aberastasun altuago bat aurkezten du MgOren kontzentrazioan, beste TLG multzoekin alderatuz (2.43 ± 0.43 masa %). MgOren aldaketa horiek, maiz, fase dolomitiko ugariko zeramikekin erlazionatzen dira. Aberastasun hori azaltzeko, karbonatoak nahita gehitzea aukera posible bat da. Hala ere, beste TLG-multzoekin alderatuz gero erakusten duten CaOren kontzentrazio baxuagoak (15.5 ± 2.2 masa %), pasten hareazko frakzioan egon daitezkeen Mg-an aberatsak diren silikatoen presentziarekin zerikusia eduki dezake; adibidez, XRD bidez identifikatu diren piroxenoak (ikus 5.56. irudia).

Konposizio mineralogikoaren arabera, hiru ehundura-mota nagusi identifikatu ziren konposizio multzo honetan. ORD095 eta ORD097, F-I motakoa aurkezten dute. Zeramika hauek illita gailur bat erakusten dute, 9Å-an. Mineral honen presentzia,



Figure 5.49: ORD-B multzoko zeramika-zatiki eredu bat (ezkerrean). SEM irudia beiratua erakutsiz zeharkako azaleran. Kasiterita partikula opakutzaileak nabariak dira.

K-feldespatoekin batera 850-900°C-tako EFTa iradokitzen du. Gainera piroxenoen presentzia apala ere hautematen da (diopsidoak erakusten dira), horiek tenperatura altuagokoak izanik, jatorrizko sendagarrien frakzioaren ere izan litezke. Bestalde, EFT baxu honi dagokion sinterizazio-maila baxua ere SEM bidez hauteman daiteke (ikus 5.52. irudia).

ORD084ren difraktograma erakusten da F-II-ehunduraren eredu gisa. Bere osagai mineralogiko nagusiak kuartzoak eta zenbait erreketa-faseak osatzen dute. Gainera feldespato alkalinoak era nabari dira (mikroklina erakusten da) neurri txikiago batean. plagioklasen presentzia dauka (albita erakusten da), alde batetik, eta, gehlenita $Ca_2Al(AlSi)O_7$ bestetik, diopsidoekin batera ($Ca(Mg,Al)(Si,Al)_2O_6$). Horiek denak silikatoen eta karbonatoen tenperatura altuetara ematen diren erreakzioen ondorio dira. Gainera, mullitaren identifikazioa, nahiz eta neurri txikian, eta, batez ere, illitaren erabateko desagerpenak, EFTa 900-1000°C-tan kokatzen dute.

F-III ehundura, berriz F-II-aren oso antzekoa da, baina plagioklasa, diopsido eta gehlenitaren gailur altuagoak erakusten ditu, hala nola, feldespatoei dagokien gailurrak ia erabat desagertu dira. Horrek, mullitaren presentziarekin batera, EFTa 950-1000°C artean dagoela iradokitzen du. Sinterizazio-maila handiena ere nabarmena da SEM mikroargazkien bidez (ikus 5.52. irudia). Goetitaren presentzia ere ($\alpha-Fe^{3+}O(OH)$) atzematen da. Burdin oxidoaren forma hidratatua, normalean 300°C-tatik aurrera deskonposatzen da. Beraz, jalkitze-ondoko errehidratazio batek bakarrik azal dezake bere presentzia.

Pieza batzuk osagai mineralogiko zertxobait desberdinak aurkezten dituzte. Hala nola, ORD091 zatikiak, gailentzen den gehlenita gailur bat du erakusten du, eta horrek

adieraziko luke zeramika horrek tenperatura altuagoa lortu zuela. Aitzitik, ORD088 kaltzitaren gailur nabarmen bat aurkezten du 30Å inguruan. Arestian aipatu den bezala, alterazio produktu bat izan behar du, kaltzita 650°C-etara deskonposatzen baita (Fabbri et al., 2014).

ORD-B multzoak ez du inolako dekorazio kromatikorik, soilik eztainu-berunezko estaldura zuriak aurkezten ditu (ikus 5.49. irudia). SEM-EDS emaitzek SnO_2 kontzentrazio nahiko altuen erabilera erakutsi zuten ($\approx$ 10 masa %). Literaturan agertzen den moduan, konposatu honen kontzentrazio altuak teknika opakutzailearen erabateko kontrola ez izateraerkin erlazionatzen dira. Horrela, nahiz eta eltzegileek beharrezko lehengaiak ahalik eta gutxien murriztea bilatzen duen, ezagutza horren faltan behar baino baino askoz kasiterita gehiago erabiliko lukete (Iñañez et al., 2008)

Gainera, ez dira ikusten bestelako beiradura baliabideen laguntzarik, hala nola kuartzozko partikulak ugariak eta burbuilak, modernoagoa den ORD-A multzoan gertatzen denaren aldean. Beiratuan identifikatutako desberdintasun hauek, 1694tik 1850ra emango zen teknologia moldaketa garapen batekin erlazionatu daitezke. Era horretan, eztainu kopuru txikiak erabiltzea ere merkatuan beharrezkoa den konposatu horren erabilgarritasunarekin loturik egongo litzake, eta XVIII. mendean gutxitu egiten da, gerra-industriaren beharrak direla eta. Beraz, buztingileek pixkanaka ezarri zituzten aldaketa teknologikoak, adibidez, kuartzoa eta feldespato pikorren erabilera, beiradura-prozeduretan eztainu erabilera gutxitzea helburu zutenak.

ORD-C

ORD-C multzoa 5 zatikiek osatzen dute. Apaindura urdinak daramaten eztainu-berunezko estaldurak dituzte. Formen artean, bi plater, katilu bat, ontzi bat eta ur bedeinkatuko ontzi bat aurki dezakegu. Azkenengo hau, etxean nahiz elizan ur bedeinkatua gordetzeko erabiltzen den ontzi mota berezi bat da. Kronologikoki aldi desberdinketakoak dira: hiru pieza 1785etik 1850erakoak, beste bat goiztiarragoa, 1735-1765koa da eta pieza erlijiosoa berantiarragoa da (1790-1820). Konposizio kimikoari dagokionez, CaO kontzentrazio altuek ezaugarritzen dute multzo hau (19.2 $\pm$ 3.7 masa %). Nahiz eta datu-multzo hau ORD-Aren oso antzekoa izan, HCA era PCAk, zeramika hauek bere osotasunean multzo bat osatzeko desberdintasun haina dutela iradokitzen dute. Gainera, kanpoko itxura ere ezberdinarekin koherenteak dira, multzo honen estaldura guztiek urdinez apaindutako eztainu-beruna duten beiratuak erakusten baitituzte.

XRD analisien arabera, ORD-C multzoak bi ehundura bereizgarri erakusten ditu. F-I-rako, ORD075 eredu gisa erakusten da. Bertan, kuartzoa eta erreketa faseak identifikatu ziren, piroxeno (diopsidoa) eta plagioklasak (albita) bezala. Gainera kaltzita identifikatu zen, zeina jalkitzen-ondoko prozesuen ondoriozkoa, hau da, bigarren mailako izan behar dena, aurretik azaldutako arrazoien arabera. Hala ere,



Figure 5.50: ORD-C multzoko zeramika-zatiki adibideak. Ezkerreko zatikiak erreketa-akatsak aurkezten ditu (goian). SEM irudia beiratua erakutsiz zeharkako azaleran (behean).

gehlenitaren presentzia, kaltzitaren deskonposizioan sortzen dena, hain zuzen (Fabbri et al., 2014), iradokitzen du lehenengo mailako kaltzita ere bazegoela jatorriz. Erreketa-fase hauen eta bigarren mailako fase hauek batera agertzeak EFT 900°C inguruan kokatzen du. Hala ere, feldespato alkalinoen (adib., mikroklina) erabateko deskonposizio eza, zeina 850°C-tik aurrera gertatzen den, iradokitzen du tenperatura 900°C-tik gertu dagoela. F-I ehundurarekiko oso desberdina ez izan arren, bigarren ehundurak (F-II) erreketa-tenperatura altuagoak jasan zituen. Alde batetik, feldespato alkalinoen deskonposizio osoa (≈14 Å gailurra desagertu egiten da); eta, bestetik, erreketa-faseen agerpena ezaugarritzen dute ehundura hau. Gehlenita, diopsidoak eta plagioklasen (albita) presentzia, eta hare gehiago, espinelen gailur hasiberriek (19 Å), EFT altuen adierazle izaten dira. Beraz, 950-1050°C-ko EFT bat iradokitzen da.

ORD-C multzoaren estaldura bereizgarriek eztainu-berunezko beiratuen gainean aplikatutako CoO-an oinarritutako apaindura urdinak erakusten dituzte (ikus 5.50.

irudia). Historikoki, kolore urdinak beiratutako zeramiketan prozedura tekniko berriak ekarri zituen; izan ere, CoO-ren bidez lortutako pigmentu urdinak, disoluzio kontzentratuagoak eskatzen ditu, konposatu hori oso hegazkortasun handia baitauka. Dekorazio urdinak Iberiar penintsulako beste tailer batzuetan (adib., Manises eta Paterna) erabiliak izan ziren mende batzuk lehenagotik (Conesa, 2008, 2011). Hala ere, iparraldeari dagokionez, horrelako eraldaketa teknologikoek denbora gehiago behar izan zuten. Horrela, XVIII. mendean, soilik berdeak zabaldu ondoren hedatu zen urdinaren erabilera, hala ere, pieza berezientzako erreserbatzen zen (adib., ur bedeinkatuaren ontzia). Gainera, hain zuzen, aipatutako piezak beiratuetan erakusten duen akatsa (ikus 5.50. irudia), eltzegileen erabateko trebetasunik ez zutela iradoki lezake. Hala ere nahiko ohikoa zen erreketa-aldi bakoitzean pieza akastun ehuneko finko bat izatea. Nolanahi ere, mugatuagoa zegoen pigmentu urdinaren erabilera, pieza honen izaera erlijiosoa bezala, helburu finagotarako erreserbatutako ekoizpen esklusiboa iradokitzen dute, ORD-B pastarekin. Emaitza horietatik abiatuta, buztin-nahasketak nahita hautatzea iradoki genezake, kolore urdinekin apaindutako zeramikarako bakarrik. Urdinez egindako apainketez gain, (ikus 5.50. irudia) ORD-B arekin bateragarria den pasta bat identifikatu zen. SEM-EDS irudiak txarroaren beiratua erakusten du. Kasu berezi honetan, ez zuen eztainu-berunezko estaldura bat erakusten, berunezkoa baizik. Gainera estaldura honetan Pb pikor handiak ikusten dira eta kuartzozko inklusio txikiak.

ORD-D

Multzo txiki hau (n = 4) beiratu gabe eta berun-beiratua daramaten zatikiek osatzen dute (ikus B Eranskina). Berun-beiratuak dituzten beste zeramikak ez bezala (geroago aurkezten direnak), ORD-D multzoak CaO kontzentrazio nahiko altua erakusten dute (9.3 $\pm$ 1.9 masa %). Multzo honetan, zeramika-akastunak aurkitzen dira eta labe-lanabesak ere, 1788-1850 garaiari esleitzen zaizkionak. Gainera, eltze bat dago (ikus 5.51. irudia) kronologia berekoa eta kolore marroi-zeharrargia duen beiratua erakusten duena. Euskal Herrian eltzeen merkataritzari dagokionez, litekeena da Zamoratik inportatu izana, hori baita XIV. mendetik aurrera ematen den joera.

Hemengo buztinak ez dutenez ezaugarri erregogorrak erakusten, jatorri horretakoak egokiagotzat jo ziren eta horrela, Zamorako eltzeen salmentak euskal zeramika-merkatura guztiz zabaldurik zeuden XVIII. mendea iritsi zenerako (Solaun, 2005). Zamorako ekoizpenak, historikoki, pasta trauskil eta mikatsuek ezaugarritzen dituzte. Horiek Al_2O_3 kontzentrazio altuak erakusten dituzte (Sanchez-Garmendia et al., 2018). Oso baloratuak izan dira, erreketak burutzeko erakusten duten txoke-termikorako erresistentzia dela eta. Hala ere, ORD015ren kasua ez dator bat deskribapen honekin. Izan ere, dekantatutako pastak erakusten ditu eta hemengo buztinekin eginda egongo litzake, pasta dekantatuak eta pikor finek iradokitzen duten bezala. Bestalde, ORD018k ere espero baino CaO kontzentrazio altuagoak erakusten

Figure 5.51: ORD-D multzoko zeramika-zatiki adibideak. Eltze baten irudiak agertzen dira, erreketa zantzuak erakutsiz (goian) eta bere beiratuaren SEM irudia trebera baten ondoan (behean).

ditu (8.56 masa %), izan ere estaldura hori (marroi-zeharrargia) dituzten beste zeramikek oso CaO kontzentrazio baxuak erakusten dituzte (ORD-MEL-A eta ORD-MEL-B).

Zatiki horren forma, katilu bati dagokio, deformazio bat erakusten duena labeko beste piezek eragindako tentsioarengatik. Laburbilduz, tipologikoki heterogeneoa den multzo honek aparteko piezak erakusten ditu. Besteak beste, marroi-zeharrargia eta kare-eduki handiko zeramika; mikatsua ez den eltzea; edota salmentarako erabiltzen ez diren piezak; akastunak eta labe-lanabesak (trebera).

Kanpoko itxurari dagokionez, ORD-D multzoak ez dauka apaindurarik, berunezko estaldura marroi-zeharrargiaz haratago. Labe tresnak ez daude beiraturik eta, bestalde, ORD015 eltzeak erreketa-zantzuak aurkezten ditu lehen aipatu den bezala (ikus 5.51. irudia). ORD-D multzoa konposizio aldetik, ORD-Aren antzekoa da; eta, aldiz,



Figure 5.52: Urduñako zatikien mikroegituren SEM irudiak sinterizazio maila desberdinak erakutsiz. Eskuinetik ezkerrera eta goitik behera: ORD020, ORD003, ORD075, ORD049, ORD084, ORD099, ORD012 eta ORD078.

tipologikoki budinean aberatsa den ORD-MEL multzora gerturatzen da. Erlazio hori XRD bidez ikusitako emaitzekin bat dator, non F-I eta F-II ehun-motak identifikatu diren (ikus 5.7. taula). F-I-ak kaltzita eta hematitearen agerpena erakusten du, ORD018 laginak adibide gisa erakusten da (ikus 5.56. irudia). Illita eta feldespato alkalinoen agerpen txikiak EFT baxu bat adierazten dute. Beste fase batzuen presentzia kontuan hartuta, hala nola, gehlenita, eta plagioklasak, beraz, EFTa ez luke 950 °C baino handiagoa izan behar. F-II-ari dagokionez, ORD015 adibide gisa erakusten da (ikus 5.56. irudia eta 5.7. taula), oso pasta antzekoa erakusten du. Hala ere, illitaren erabateko desagerpena eta fase plagioklasiko aberatsagoak EFT 950°C baino altuago izan beharko lukeela iradokitzen dute.

ORD-MEL-A

Multzo honek 9 zatiki ditu. Denak kronologia berekoak dira (1788-1850) eta *Tras-Santiago* aztarnategian topatu ziren. Haien konposizioa ez-kareduna (CaO 1.1 ± 0.39 masa %) eta burdin oxidoan oso aberatsa (Fe_2O_3 4.49 ± 0.61 masa %) izateagatik ezaugarritzen da. Bibliografiaren arabera, mineral buztintsuetan kristalinotasun baxua duten oxido/hidroxidoen partikula koloidalen ugaritasunak menderatzen du masa



Figure 5.53: ORD-MEL-A multzoko zeramika-zatiki baten adibidea. Kanpoaldeko eta barrualdeko beiratuak erakusten dituen zatikia (goian) eta bakoitzaren beiratuaren SEM irudia (behean).

osoaren Fe_2O_3 kontzentrazioa, oro har, partikula horiek jalkitze sedimentarioetan agertzen dira, non 0.002 mm baino diametro txikiagoa duten partikulak nagusi diren, limo eta areetan (Montana, 2016). Beraz, buztinezko pastetan ikusitako Fe_2O_3 kontzentrazio aberatsagoa, bertako zeramikak ekoizteko buztina erauzteko gunearen aldaketarekin zerikusia izan dezake. Horrek buztingilearen hautapen teknologiko garbia adierazten du, nahi dituen propietateak lortzeko kare gutxiko buztinak bilatuz.

Konposizio multzo honen forma nagusia katiluarena da, txarro bat ere barne hartzen duelarik. Lagin guztiek kanpoaldeko estaldura zeharrargia dute, eztiaren kolorea hartzen duena. Gainera, piezetako batzuk barrualdean berun-eztainuzko beiratuak erakusten dituzte. Pentsa daiteke, arrazoi estetikoengatik ez ezik, eztainu-berun estaldura partziala, arrazoi ekonomikoekin ere zer ikusia daukala. Horrela, lehengai opakutzailearen kantitate beharra murrizten baita. Azkenik, ORD050 laginak multzoaren barruko oinarrizko konposizioan bariazio txikiak erakusten ditu, pieza hau berunezko beiratu erdi bat erakusten du kanpoaldean; barrualdea, berriz, soilik piezaren ezpainetik gertu beiratuta dago.

ORD-MEL-A multzoak (baita ORD-MEL-B ere) sinterizazio-maila txikiko pasta erakusten du. Egoera hori SEM irudian behatu daiteke; bertan, argi eta garbi antzematen da bitrifikazio baxuko pasta baten morfologia eta buztin-egitura (ORD012 adibide gisa erakusten da, ikus 5.53. irudia). F-I ehunak kuartzozko eta illita-muskovita faseak ezaugarritzen ditu, horiek, feldespato alkalinoekin batera (mikroklina) erreketa-tenperatura baxua adierazten dute (ikus 5.56. irudia eta 5.7. taula). Filosilikatoen hiru gailur nagusiak oso nabariak dira, eta horrek adierazten du fase horiek oraindik ez direla deskonposatzen hasi ere egin. Gainera, plagioklasak eta gehlenita bezalako erreketa-faseak ere badaude, eta, beraz, tenperatura 850-900°C-koa dela iradoki daiteke. Goethita ere identifikatu da, pasta gorrixka horien ezaugarri diren lehen mailako burdin oxidoen forma errrehidratatuari dagokiona.

Beiratuen zeharkako sekzioek erakusten duten bezala, bi beiratuen arteko mikroegituren desberdintasunak antzeman daitezke SEM irudien bidez (ikus 5.53. irudia). Berun beiratua meheagoa da eta eztainu-berun beiratua lodiagoa, gainera, atzenengoak 100 μm beherako inklusio txikiak agertzen ditu. Gorputz zeramikoa eta beiratuaren interakzio txikian oinarrituta, esan daiteke beiratuak bizkotxoaren gainean aplikatu zirela, bi urratseko-erreketaren bidez. Kanpoko ezti kolorea zeharrargia lortzeko, berun beiratuari burdin oxidoak gehitu zitzaizkion. Barruko aldean estaldura zuria erakusten duten kasuetan, berriz, kasiterita erabili zen opakutzaile gisa (ikus A.10. taula A Eranskinean).

ORD-MEL-B

Urduñako indusketetan aurkitutako ezti kolorez beiratutako piezen artean, ORD-MEL-B izendatutako beste multzo bat dago, 6 zatikiek osatzen dutena. Multzo



Figure 5.54: ORD-MEL-B multzoko berun-beiratu baten zeharkako sekzioaren SEM irudia (ezkerrean) eta zeramika-zatiki adibide bat, 3D bidez berreraikia (eskuinean)

honen barneko ezberdintasun kimikoak oso txikiak dira, ORD-MEL-A multzoaren aldean; beraz, oso multzo konpaktua dela esan daiteke. Ezberdintasun horiek CaOren kontzentrazio txikiago batek emana dator (0.51 ±0.07 masa %) (kontuan hartu gabe ORD051, zeinak CaOren eta MgOren aberastasun partikular bat erakusten duen) eta beste aldaketa batzuk elementu gutxi batzuetan bereizten direnak (Mn, Nb eta Zr) dira. Gainera, multzo honek Urduñan azterturiko lagin guztien artean Al_2O_3 kontzentraziorik altuenak erakusten ditu (19.9 ± 2.3 masa %), zeramika mikatsuak kontuan hartu gabe (ORD-MIC multzoa). Lagin hauen homogeneotasun kimikoa oso handia da (ikus 5.46. irudia). Halaber, multzo honek tipologia bakarra aurkezten du: tamaina desberdinetako askak (pieza bera izateko aukera baztertu da, perimetro desberdineko piezak baitira). Gainera, kronologikoki, multzo hau modu homogeneoan esleitzen da 1735-1765 aldi laburrera. Beraz, mota honetako piezen ekoizpena ekoizpena ORD-MEL-Aren multzokoarena (1788-1850) baino lehenagokoa izango litzateke. Gainera, zatiki horiek guztiak *Kale Zaharra 24-30* aztarnategian berreskuratuak izan ziren. Beste ezti koloreko beiratuak (ORD-MEL-A), aldiz, *Tras-Santiagon* aurkitu ziren. ORD-MEL-A eta ORD-MEL-B arteko antzekotasun kimikoak gorabehera, gunearen ezaugarri arkeologiko trinkoak eta kronologia puntu indartsu gisa hartu dira, erreferentziazko bi multzo horiek zehazteko orduan. ORD-MEL-B multzoak ehundura-mota bakarra erakusten dute, F-I-ari dagokiona, hain zuzen ere, eta ORD-MEL-A multzoaren F-I ehunduraren oso antzekoa dena. Eredugarria den ORD078ri dagokion difraktograma bat 5.56. irudian erakusten da. ORD-MEL-Arekin alderatuz, aldaketa txikiak aurkezten ditu, gehien bat filosilikatoei dagozkien faseetan ematen dena, batez ere, 7Å inguruko illitaren gailurrean, kasu honetan handiagoa dena. Beraz, zeramika horien erreketa-tenperatura 900°C-tik beherakoa izan litekeela pentsa daiteke. ORD-MEL-B pastak askak sortzeko erabili zen, 3Dn berreraikitako piezaren antzekoak (ikus 5.54. irudia). SEM irudiaren bidez, hauteman daiteke, zeramika mota



Figure 5.55: ORD-MIC multzoko zatikiak (goian), haietako baten mikroargazkia (behian, ezkerrean) eta SEM argazkia zeharkako sekzioari dagokiona beiratua erakutsiz.

horiek erreketa-bakarrarekin egiten zirela, berunezko beiratua eta gorputz zeramikoa aldi berean errez.

ORD-MIC

HCAk, garbi erakusten du gainerako piezez bestelakoa den azpimultzo bat (ikus 5.45. irudia). Zeramika horiek ORD-MIC izeneko multzoa osatzen dute (n = 3). Pasta oso heterogeneoa dute ezaugarri nagusitzat eta tamaina handiko inklusioak erakusten dituzte (<1 mm). Elementu nagusiek gehitzen dute konposizio-aldakortasun nabarmenenak. Batez ere Al_2O_3, baina aztarna eta elementu minoritario gehienak ere beherakada nabarmena erakusten dute (ikus 5.6. taula), gainerako konposizio-multzoekin alderatuz. Cs-ren eta Ta-ren kontzentrazio zeharo desberdinak ere azpimarratu behar dira. Multzo honen pastak oso mikatsuak dira, beraz, Al_2O_3

kontzentrazio altuak erakusten dituzte. Literaturan adierazten den bezala Al_2O_3, modu positiboan koerlazionatu daiteke buztin-mineralen ugaritasun erlatiboarekin edota feldespato eta mikaren mineral-bakarreko granuloen kopuruarekin, frakzio granulometriko trauskiletan (Hunt, 2016). Horrelako baieztapen bat egiteko, hala ere, ikerketa sakonago bat burutu beharko litzakete.

Euskal Herrian aurkitutako zeramika mikatsuen kasuan, eztabaida arkeologiko ireki bat dago haien jatorriari buruzkoa. Lehen aipatu dugun bezala, sukaldeko zeramika ekoizteko propietate erregogorrak behar dira (buztin mikatsuekin lortzen direnak adibidez). Produktuak jasango dituzten hozte-berotze zikloekiko erresistentzia handiagoa erakusten dute horrelako buztinak. Helburu hauetarako euskal buztinak ez dira egokiak, horregatik, beste jatorri batzuetatik ekartzen ziren (Solaun, 2005). Hain zuzen ere, ekoizpen horien agerpenak tokiko ekoizpenaren merkatua eraldatu zuen, batez ere XIV. mendean zehar. Prozesu horretan, buztingileek eltzeen ekoizpena pixkanaka baztertu zuten, atzerriko ekoizpenen eskari eta kalitate handiagoaren aurrean. Prozesu honen berrespena Zamorako eltze famatuen kasuan ikusten da. Horiek XVIII. mendean Euskal Herriko sukaldaritza-zeramikaren merkatuaren zati handi bat osatzen zuten (Solaun, 2005).

Beraz, literaturaren arabera, zeramika horien jatorria Zamoran egongo litzateke, eta, mendebaldera 368 km-tara kokatuta dagoen zeramika-ekoizle gune garrantzitsu bat (Sanchez-Garmendia et al., 2018). Bitxia bada ere, pieza bat (ORD056) eztainu-berunezko beiratu batez estalita dago, eta antzeko piezak topatu dira Durangon. Garai bereko beste euskal zeramika ekoizpen gune bat dena, Urduñatik 56 km-tik kokatua dagoena (Ibabe, 1995a).

XRD emaitzak konposizio kimikoarekin bat etorri ziren, egoera geokimikoaren antzera, fase mineralogiko oso desberdina erakutsiz, gainerako multzoekin alderatuz. Pasta horiek tamaina handiko (mm-ko ordena) inklusioak dituzte eta difraktogramaren arabera (ikus 5.56. irudia), klorita-bermikulita-montmorillonita eta biotita, edota nefelina, phlogopita, eta enstatita bezalako partikula mikatsuei dagokie. Pastek ere magnetita erakutsi zuten (ikus 5.7. taula). K-feldespatoak (ortoklasak) eta illita-muskovitaren presentziak EFT baxuekin erlazionatzen direnez, 850°C inguruan estimatzen da horien EFTa.



Figure 5.56: XRD bidez lortutako difraktogramak ORD-A, ORD-B, ORD-C, ORD-MEL-A eta ORD-MEL-B multzoei dagokienak.

Multzokatu gabeko laginak

Gainera, banako batzuk ezin izan ziren multzokatu (n = 11). Nahiz eta ezaugarri arkeologiko eta tipologikoen arabera, seguruenik Urduñan ekoiztuko ziren, lagin horiek ausazko aldakortasunak dituzte beren kontzentrazioetan, eta ez datoz bat identifikatutako beste konposizio-multzoekin. Hori dela eta, lehentasuna eman zitzaion konposizio esanguratsuei buruzko datuak eskaintzeari, gehien bereizitako multzoentzat kontuan hartuz eta beste lagin horiek multzokatu gabe utzi ziren.

Lagin horiek muturreko balioak erakusten zituzten, hainbat arrazoirengatik. ORD014 eta ORD019 laginek oso kontzentrazio handia dute (3.42 masa % MgO) baina konposatu hori erabiltzen ez zenean analisi estatistikoetan, ez ziren beste multzoekin bateratu. Nahiz eta haien pastak ORD-B multzoarekin alderatuz oso antzekoak diren; beraz, ezin da hipotesi sendo bat eskaini jatorriari buruz. Gainera, ORD047 beira berdexka duen txarroa da, eta tipologikoki, azterturiko zeramika guztiaz oso bestelakoa da. ORD057, CoO bidezko marra urdin ilunak erakusten dituena, Cu-aren kontzentrazio altua du, eta litekeena da jalkitze-ondorengo kutsadura batekin lotuta egotea. Hala ere, elementu hori saihestean, beste zeramikekin bateratu gabe jarraitzen zuen. Azkenik, ORD055k tipologia berezia aurkezten du (berunezko beiratu bat itxura horixka duena). Gainera, MgO eta V- aren kontzentrazio desberdinak aurkezten zituzten besteekin alderatura, horregatik, ezin izan zen bateratu beste multzoekin. Era berean, ORD071, ORD073, ORD074, ORD076, ORD087 eta ORD077 zatikiak ezin izan ziren multzokatu. Dendrograman ikus daitekeenez, zeramika horiek desberdintasun kimiko diskriminatzaileak aurkezten dituzte beste multzo guztiekin alderatuta, baina baita beraien artean ere, eta horrek ezinezkoa egiten du edozein multzotara atxikitzea (5.45. irudia)

Eztabaida atala eta Ondorioak

Lan honetan identifikatutako sei konposizio-multzoen karakterizazio arkeometrikoak, Urduñan aurkitutako zeramikak bertako ekoizpenarekin erlazionatzeko aukera eman du, XVII. eta XIX. mende bitarteari dagokiena. Hala nola, Zamorari (Iberiar penintsulako mendebaldean) esleitzen zaion ORD-MIC multzoa ere identifikatu da. Horrela, XVIII. eta XIX. mendeetako ekoizpenak tradizioari eutsi zioten bertako aurreko ekoizpenetan ikusten diren kare-pastak erabiliz. Hala ere, ORD- B multzoak azaldutako konposizio-ezberdintasunak kontuan hartuta, aldakortasun kimiko bat antzeman zen, ziurrenik erauzketa-leku aldaketaren ondorioz. Horrela, gertaera honek aldaketa bat islatu dezake, azterturiko lehen periodotik (1694) hurrengo mendera bitartean.

Gainera, identifikatutako konposizio-multzoen itxura zeramikoa ekoizpenaren eraldaketarekin lotu daiteke; dekoratu gabeko piezetatik (ORD-B), asko zabaldu ziren

berde eta berde/beltzez apainduriko formetara (ORD-A), gainera ORD-B, helburu esklusiboagoetarako erabili zena ere identifikatu zen.

Bestalde, zeramika tipologia berri baten ekoizpena identifikatzen da: ezti koloreko beiratua duena eta 1788 (ORD-MEL-B) ondoren hasten dena. Azken ekoizpen honetan pasta ez-karedunak baino ez dira erabiltzen, kanpoaldeko beiratu zeharrargiekin eta eztainu-berunez beiratutako barrualdeekin batera. Zamorako azterlan honetan aurkeztutako inportazioen garrantzia ere nabarmendu behar da, bere tokiko ekoizpena Urduñan argi eta garbi baztertuz.

Ildo beretik, ikuspegi multi-analitikoaren interpretazio integratuak hainbat patroi kimiko eta teknologiko erakutsi zituen Urduñako zeramika ekoizpenari dagokionez. Alde batetik, buztingileek buztinen propietateei dagokienez erakusten duten trebetasuna nabarmentzen da. Lehengaiak nahita hautatzen zituzten akaberaren arabera. Adibidez, buztingileek kare kontzentrazio altuko edo baxuko buztinak aukeratzen zituzten aplikatu nahi zuten estalduraren arabera (adibidez, eztainu-beruna beiratua, zeharrargia edo urdinez apaindua).

Bestalde, beiratuei dagokionez, ohiko errezeten erabilera berretsi zen. Horrela, SnO_2 erabiltzen zuten beiratuak opakutzeko, eta, haien gainean, CuO erabiltze zuten berdearentzat, MnO beltzarentzat eta CoO urdinak lortzeko. Apaingarriek landare- edo geometria-motiboak erakusten zituzten, eta aipatutako kolore-paleta erabiliz, kolore bat edo bi konbinatuz, gehienez ere. Dekorazio horiek nahiko xumeak, batez ere Iberiar penintsulako maiolikako aurreko tailerrekin alderatuta (Manises, Sevilla, etab.). Leku horietan, dekorazio polikromatuak oso hedatuta zeuden aurreko kronologietan (Coll Conesa, 2009). Beraz, iradoki genezake XVII eta XIX urte bitarteko zeramika landuagoak urdinez apainduak izan zirela (ORD-B). Pieza horiek, hain zuzen, helburu berezietarako erreserbatuta zeuden, eta buztingileen hautaketa teknologikoak kontsumitzaileen gustu aldakorren eskakizunak asetzeko egokitzeko saiakerari erantzuten diete.

Lan honetan aztertutako zeramikaren testuinguru historikoa Ibabe etnografoak euskal zeramikari buruz egindako ikerketekin bat dator kronologiari dagokionez (Ibabe, 1995a). Antza denez, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar, lau familiek Urduñako tokiko produkzioa menderatu zuten. Hasiera batean, Lazkano familia jardun zen, ondoren (1780), Martin eta Martinez familiak hari jarraitu ziotelarik. Ondoren, Ibañez jardun zen (1841ean jaioa), eta haren azkenengo arrastoa Elosun galtzen da, hain zuzen euskal industriaurreko azken ekoizpen guneetako batean. Hala ere, dokumentazio historikoaren arabera, argudiatu da Urduñako buztingintza jarduera tokiko oligarkia garrantzitsuen esku egon zitekeela, hala nola, Ortes de Velasco, jarduera Arabako buztingileei errentan emanez edo bere zerbitzuak zuzenean kontratatuz (Cajigas Panera et al., 2004).

1694-1850 bitarteko tokiko zeramika ekoizpenari buruz egindako erradiografiak aldaketa sozial eraldatzailea islatzen du aztertutako aldian. Horrela, ORD-A multzoa,

azkenean, biztanleriaren sektore gehienetara zabaldu zen zeramikaren adibide bat da. Ekitaldi hau periodo luze baten ondoren bakarrik gertatu zen, zeinetan zeramika mota horiek soilik bezero dirudunentzako ziren eskuragarriak (Escribano, 2014).

Laburbilduz, ICP-MS, XRD eta SEM-EDS tekniken bidez burututako karakterizazio arkeometrikoa, ondorengo tratamendu kimiometrikoarekin batera, XVII. eta XIX. mendeetan Urduñako zeramikazko tokiko produkzioarekin lotutako sei konposizio-multzoa identifikatzea ahalbidetu du eta bat kanpokoa, XVII. eta XIX. mendeen bitarteko ekoizpenei dagokionez. Horietatik, lau eztainu-berun beiratuko (TLG) motakoak dira: ORD-A, ORD- B, ORD-C eta ORD-D. Gainera, beste multzo kare-baxukoak (ORD-MEL-A eta ORD-MEL-B) eta, azkenik, exogenoa den multzo mikatsua (ORD-MIC). Eztainu-berunez beiratutako zeramika guztiek CaO aberatsa duten pastak erakutsi dituzte (9.3-19.7masa %) eta gainerako multzoek CaO oso kontzentrazio txikiak dituzte.

Gainera, multzoen konposizio-aldakortasunak zeramikaren bilakaera diakronikoa agerian utzi du denboran zehar. *Zaharra 2-4ko* aztarnategiko zatikiak konposizio-multzo goiztiarrenari esleitzen zaizkio (ORD-B), eta, aldiz, eztainu-berun beiratua dutenak, ORD-A, ORD-C eta ORD-MEL-B gutxienez 1735. urtetik aurrera ekoiztuak izango ziren. Nolanahi ere, 1788tik aurrera multzo guztietako ekoizpenak emango ziren (ORD-B ezik). Hortik aurrera, bi ekoizpen berri nabarmenduz: ORD-D eta ORD-MEL-A. Azken honek, lehen aldiz, eztainu-berun beiratu bat dauka barneko estalduran eta berunezko beiratu bat aurkezten du kanpoaldean.

Gainera, XRD analisiak adierazi dutenez, konposizio-multzo gehienek hainbat ehundura mineralogiko osatzen dituzte. Horrela, aztertutako zeramika guztiak 850 eta 1050 °C bitarteko EFTak aurkezten dituzte. Ildo horretatik, ehundura mota ezberdinek ez dute beste faktore batzuekin inolako korrelaziorik erakutsi eltzegileen aukera teknologikoetatik harago, beren desberdintasun nagusiak direla medio, bai EFTak edota konposizio-ezaugarriak. Hori da Zamoran ORD-MIC multzoaren kasua, desberdintasun mineralogikoak oso lotuta baitaude konposizio kimikoarekin, gainerako multzoekin alderatuta.

5.5 Durangoko Buztingintzaren Ezaugarritze Arkeometrikoa

Abstract

Durangok XVI. mendetik aurrera buztingintza ohitura luzea izan du, euskal zeramika herrikoiaren historiaren amaiera arte iraun duena, alegia, XX. mendeko bigarren erdialdera arte. Herriak jarduera komertzial bizia izan du, Bilborako iparraldeko bidean duen kokapen estrategikoagatik. Nahiz eta buztingintza jarduera nabarmena egon den herri honetan, arkeologoentzat lan nekeza izan da bertako ekoizpenak ezagutzea, erregistro arkeologikoan oso material gutxi baitago tokiko ekoizpenarekin erlazionatu daitekeen. Bestalde, Ibabe etnografoak informazio garrantzitsua jaso zuen XX. mendean Euskal Herrian funtzionatu zuen azkenetariko zeramika-gune honi buruz. Kasu honetan, dokumentazio-lanez gain, ekoizpenari lotutako material zeramikoak ere jaso zituen (treberak eta matoiak), baita etxerako baxera eta zeramika anitzak ere. Antza denez, mendeetan zehar Gerediaga inguruko buztinen ustiapena mantendu da, Durangoko eta inguruko guneetako buztingileak hornituz. Lan honetan ezaugarritze arkeometrikoa burutu da aztarnategi honetako 26 zatiki zeramikoetan oinarrituz. Zatikiak estrategia multi-analitiko baten bidez aztertu ziren, horretarako ICP-MS, NAA, XRD eta SEM-EDS erabiliz. Emaitzek tokiko ekoizpenarekin lotutako konposizio-multzo bat zehaztea ahalbidetu zuten (DUR) eta kanpoko jatorria duen beste bat (DUR-MIC). Azken horrek, pasta mikatsuak ditu eta baliteke erakusten duen eztainu-berunezko estaldura Durangon bertan aplikatu izana, aurretik iradoki den moduan. Atal honetan, Durangoko ekoizpenei buruzko erreferentzia historikoak berrikusten dira; eta, bide batez, Durangoko ekoizpenaren ezaugarri den aztarna kimiko bat ematen da, bertako eta inguruko eskualdeko azken mendeetako buztingintza ekoizpena hobeto ulertzen laguntzeko helburuarekin.



Figure 5.57: Durangoko kokapena eta testuan aipatzen diren guneak.

Aurrekariak

Durango Bizkaiko lurralde historikoan eta probintzian dago. Jarduera ekonomikoaren eta biztanle-kopuruaren arabera, Bizkaiko herririk garrantzitsuena da Bilbo Handia osatzen duten horien ondoren. Bilbora doan iparraldeko bidean dago eta kokapen estrategiko horrek, denbora luzez, onurak ekarri dizkio bertako jarduera komertziala sustatuz.

The archaeometric characterization of the 51 sherds from Elosu permitted identifying one main compositional group, which could be tentatively linked to a local origin, in connection to the ceramic productions diachronically from the 18^{th} to the 20^{th} centuries. Additionally, a micaceous sherd whose provenance was tentatively ascribed to Zamora in accordance with the tradition of exporting micaceous ceramics was observed. The main differences in ELS group were linked to the technology that had to be adapted to the lack of raw materials during the postwar period, such as tin in this case. According to the mineralogical analysis performed by XRD, the ceramics were all fired between 850 °C and 950 °. Nevertheless, a trend for lower temperatures seems to dominate the postwar ceramic production.

Chapter 6

ED-XRFan oinarritutako *screening* metodologia ez-suntsitzaile baten garapena Erdi Aro eta Erdi Aro osteko zeramika arkeologikoen sailkapenerako

Abstract

Zeramikaren konposizio-analisiak berebiziko garrantzia du arkeologian, metodologia egokia jarraituz gero, iraganeko giza portaerari buruzko ezagutza lortzea ahalbidetzen baitu. Ildo horretan, X izpien fluoreszentziaren espektrometriak (XRF) aukera anitzak eman ditzake analisi ez-suntsitzaileari dagokionez. Hala ere, oraindik hainbat erronka gainditu behar ditu (adib., detekzio-mugak, zehaztasuna, prezisioa etab.), ICP-MS edo NAA bezalako ohiko teknikekin alderatuz. Kapitulu honetan aurkeztutako lanaren helburu zehatza, ED-XRFean oinarrituko puntu-anitzeko estrategia bat garatzea izan zen; halaber, ebaluatzea zenbat gerturatzen ziren modu ez-suntsitzailean lortutako emaitzak, aurretik ICP-MSren bidez modu suntsitzailean lortutako sailkapenari. Aipaturiko prozesua Iberiar penintsulako 4 gune arkeologikoetako 47 zeramikei aplikatu zitzaien. Bi metodo horien emaitzak estatistikoki aztertu ondoren, ICP-MS bidez eta era ez-suntsitzailean lortutako sailkapenek alde gutxi zutela ikusi zen, metodologiaren bahetze ahalmena frogatuz. Era berean, karakterizazio

geokimikoan zerikusia duten faktoreak jorratu ziren, hala nola, parametro instrumentalak, tipologia zeramiko horien kontzentrazio-tarteak, heterogeneotasuna eta berunezko beiratuen eragina.

Lan honen testuingurua 1. atalean eztabaidatzen da. Bertan, historian zehar zeramiken konposizio-analisiak egiteko erabili diren teknika analitiko desberdinak aipatzen dira. Besteak beste, NAA, ICP-AES, ICP-MS eta XRF-an oinarritu diren tresna desberdinak: WD-XRF, TXRF, ED-XRF eta pXRF. Azkenengo hauek, aurrekoekin alderatuz analisi ez-suntsitzailerako aukera eman dezakete. Hala ere, oraindik ere gainditu beharreko arazoak aurkezten dituzte; alegia, detekzio-mugak eta heterogeneitatearekin zer ikusia dutenak.

Atal honetan, hurbilketa ez-suntsitzaile bat garatu zen, automatikoki aldakorra den kolimazio bikoitzeko sistema batekin ekipatutako ED-XRF gailu finko bat erabiliz, 1 mm-ko eta 25 μm-ko albo-ebazpenak eskaintzen dituenak. Proposatutako bahetze-metodologia honen helburua, metodo analitiko tradizionalekiko hainbat abantaila eskaintzen dituen alternatiba sendo eta fidagarria aurkeztea da, hala nola, laginak prestatzeko prozesua nabarmen laburtzea eta analisi automatiko ez-suntsitzailea burutzeko aukera ematea. Teknika ez-suntsitzailearen diskriminazio-gaitasuna aztertzeko, lehendabizi ICP-MS bidezko analisiak egin ziren eta konposizio-multzo desberdinak identifikatu ziren. Proiektu hau garatzeko zeramika arkeologikoak hautatu ziren, beraien artean hainbat mailatako konposizio-desberdintasuna erakusten dutenak (elementu nagusi eta/edo gutxiengoetan), eta hainbat konposizio-multzori dagozkienak, aurreko kapituluetan jorratu den bezala; era horretan, metodologia ez-suntsitzailearen bidez lortutako sailkapenaren ebazpen-maila ebaluatu ahal izateko. Gainera, Iberiar penintsulako zeramika-lantegietan ekoiztutako Erdi Aroko eta Erdi Aro osteko zeramika tipologia desberdinei eragiten dieten arazo espezifikoak landu ziren, hala nola berunezko beiratuak edota zeramikazko-gorputzean erakusten duten heterogeneotasun-maila.

Jatorria	Akronimoa	Erakundea	N	Erreferentziak
Logroño	LOG	ArqueoRioja	n= 12	(Angulo and Porres, 2015)
Urduña	ORD	Bizkaiko Arkeologia Museoa	n= 10	(Calparsoro et al., 2019a; Rodríguez Miranda et al., 2017)
Durango	DUR	Euskal Buztingintza Museoa	n= 5	(Ibabe, 1995a; Calparsoro et al., 2016)
Elosu	ELS	Euskal Buztingintza Museoa	n=20	(Ibabe, 1995a; Calparsoro et al., 2016)

Table 6.1: Zeramiken jatorrizko gune arkeologikoen deskribapena.

Zeramika lagina

Iberiar penintsulako iparraldean kokatzen diren lau gune arkeologiko ezberdinetan aurkitutako 47 zeramika hautatu ziren lan honetarako. Gune arkeologikoak Euskal Herriko (TBC) Durango, Elosu eta Urduña; eta, Errioxako (LR) Logroñoko hirietan kokatzen dira eta XIII-XX. mende bitarteko kronologiak dituzte (ikus 6.1. taula eta 6.1. irudia). Zeramika hauek tipologia desberdinketakoak dira: alde batetik, ekoizpenerako tresnak (treberak), eta; bestetik, ontziteria (katiluak, ontziak, pitxarrak,

etab.). Apaindura anitzak erakusten dituzte, beiratu gabe edo beiratu zeharrargiak dituzten piezetatik berun-eztainuzko beiratu zurietara (ikus B Eranskina).



Figure 6.1: ED-XRF Bidez aztertutako laginen deskribapena, kronologia eta jatorria zehaztuz.

Esperimentala

Induktiboki Akoplatutako Plasma Masa Espektrometria (ICP-MS)

ICP-MS analisiak 3.3. atalean azaltzen den metodologia jarraituz egin ziren.

Energia sakabanatzaileko X-izpien Fluoreszentzia Espektrometria (ED-XRF)

Pasta zeramikoen eta CRMen konposizio-karakterizaziorako ED-XRF M4 Tornado espektrometroa erabili zen (Bruker Nano GmbH, Berlin, Alemania). Analisiak zuzenean zeramiken ebakiduran egin ziren, prezisiozko-ebakitzaile baten bidez moztu ondoren, espektrometroaren ganberan jarri zirelarik zuzenean. Espektrometroan 33 x 17 cm eta 5 kg arteko laginak sar daitezkeen arren, laginak moztea erabaki zen analisirako azalera laua lortzeko, kanpoko kutsadurak dituzten eremuen analisia saihesteko eta laginen azalera gehiengora iritsi ahal izateko. Tresna honen konfigurazioak bi albo-ebazpenetan neurtu dezake; 1 mm, eta 25 μm instrumentuan ezarritako optika-polikapilarraren bidez.

Gailuak duen X izpien hodia mikro-fokozko albo-leihoko Rh hodi bat da, potentzia baxuko HV sorgailu batek eraginda eta airez hozten dena. X izpien hodi honek gehienez ere 50 kV-ko tentsioa izan dezake, eta 700 μAko gehienezko korrontea 1mm-ko kolimazioarekin, non 600 μA-etara iris daiteke $25\mu m$ albo-ebazpenarekin. Fluoreszentzia erradiazioa detektatzeko, XFlash ® siliziozko detektagailu baten bidez egiten da, 30 mm^2-ko eremu sentikorrarekin eta 145 eV-ko energia-ebazpenarekin Mn-K_α-arentzat. Elementu arinenen detekzioa hobetzeko (Z <11), ez zen iragazkirik erabili eta hutsean hartu ziren neurriak (20 mbar). Hutsa lortzeko, MV 10n VARIO-B mintz-bonba bat erabili zen. Neurriak hartzerako garaian, enfokatzeko bi bideo-mikroskopio erabili ziren; horietako bat laginak aztertzeko erabili zen magnifikazio-txikietan (1 cm^2-ko azalera), eta bestea, berriz, amaierako fokuratzea egiteko (1 mm^2 azalera).

Espektroak eta haien tratamendua Brukerren M4 softwarearen bidez lortu ziren. Neurketa baldintzei buruzko xehetasun gehiagorako, adibidez, neurketa-denborak, kolimadore-mota eta analisi-kopurua (ikus 6.2. atala) Lortutako espektroetan oinarritutako matrizearen efektuek eragindako interferentziak eta pilaketa-zuzenketak (ingelesez *pile ups* deritzona) softwarearen bidez zuzenduak izan ziren. Softwareak matrizearen konposizioa kanpotik ezartzeko ere aukera ematen du.

Lan honetan aurkeztutako Hyper-Mapak optika-polikapilarra erabiliz lortu ziren ($25\mu m$-ra arte). Hyper-Mapak lortu aurretik, esleipen elementala eta espektroen

informazioaren dekonboluzioak burutu ziren aztertutako elementu bakoitzaren K_α-an oinarrituta. CRM SRM679-aren elementu bakoitzaren LODa kalkulatu zen, prentsatutako pellet-etan hartutako neurriak kontuan hartuz eta formula honi jarraiki:

$$LOD = 3C\sqrt{\frac{Inguru\ Intentsitatea}{Intentsitate\ Netoa}} \tag{6.1}$$

non C kontzentrazio erreala den eta iturburuko intentsitate-espektroetatik lortu zen. Formula honetan, intentsitate netoa jatorrizko intentsitatea (zenbaketetan) eta elementu bakoitzaren intentsitatearen kenketaren bidez lortu zen. Zertifikatu gabeko elementuetan, LODak Brukerrek emandako balio teorikoen hurbilketa bat eginez kalkulatu ziren.

Datuen tratamendua

Hemen aurkezten den lanean aplikatutako analisi estatistikoa Aitchisonen ikuspegian eta ondoren Buxedak konposizio-datuei buruz egindako behaketetan oinarritzen da (Buxeda i Garrigós, 1999; Aitchison, 1982; Buxeda i Garrigós and Kilikoglou, 2003).

Lehenik eta behin, elementu nagusien eta aztarna elementuen arteko eskala absolutuen desberdintasunak orekatzeko, eraldaketa logaritmikoa aplikatu zen, aukera hori literaturan gehien erabiltzen dena izanik (Bishop and Neff, 1989; Shennan, 1988; Sayre, E.V., Harbottle, G., Bieber, A.M., Brooks, 1976; Neff, 2000). Eraldaketa honekin aztarna elementuen eragina gutxiestea saihesten da (konposizio-multzo batzuk bereizteko funtsezko eginkizuna izan dezakete elementua hauek) (Glascock, 2016).

Alderaketak, Aitchisonen behaketen arabera egin ziren (Aitchison, 1986) logaritmoak erabiliz eta osagai kimiko guztien zatiketa eginez hautatutako osagai batekin. Konposizio datuetan, aldagaiek beraien arteko menpekotasuna dutenez, alegia, osagai kimiko guztien batuketak 100 % ematera behartuta dago, aipatutako eraldaketa aplikatuz unitatearen batuketaren arazoa hori konpontzen da (Buxeda i Garrigós and Kilikoglou, 2003).

Zatitzaile bezala erabilitako elementua desberdina izan zen aplikatutako analisi estatistikoaren arabera. Alde batetik, osagai nagusien analisian (ingelesetik PCA), aldakortasun txikieneko elementua aukeratu zen. Eraldaketa honi, ingelesetik additive log ratio (alr) deritzo. Bestalde, multzokatze hierarkikoaren analisietarako (HCA), batez besteko geometrikoa erabili zen zatitzailea gisa, centered log ratio (clr) eraldaketa deritzona. HCAn Euklidear distantzia grafikoki irudikatzen da zentroide algoritmo aglomeratzailea erabiliz. Eraldaketa horiek ICP-MS bidez lortutako kontzentrazioei eta ED-XRFren bidez eskuratutako intentsitate gordinei aplikatu zitzaizkien.

Eraldaketa guztietarako, hala nola, analisi estatistikorako eta datuak bistaratzerako erabilitako softwarea R (Core Team, 2013) izan zen. Lehenago jorratu den moduan,

programazio-lengoaia hori kode irekikoa da eta analisi estatistikorako diseinatua dago (ikus 4. kapitulua). Instalatutako paketeen artean, "Compositions" erabili zen, Van de Boogartek garatutakoa (Boogaart et al., 2010) eta Buxeda i Garrigósek idatzitako errutinak ere erabili ziren, GitHub webgunean argitaratutako biltegian kontsultatu daitekeen metodo irekiari jarraituz (Calparsoro, 2019).

6.1 *ICP-MS Emaitzak*

Aldagaia	ELS	SD	DUR	SD	ORD	SD	LOG	SD	LOG033	LOG038
Al_2O_3	18	1	17	1	15	2	20	3	16	13
CaO	13	4	15	2	19	2	9	1	13	24
Fe_2O_3	4.8	0.2	4.9	0.2	4.1	0.4	7.5	0.3	5.3	4.7
K_2O	2.6	0.2	2.1	0.2	1.9	0.3	3.2	0.1	2.8	2.4
MgO	0.67	0.08	1.72	0.05	1.20	0.30	2.10	0.20	1.77	2.53
MnO	0.024	0.009	0.100	0.040	0.032	0.007	0.038	0.004	0.042	0.057
Na_2O	0.81	0.08	0.67	0.06	1.50	0.30	0.70	0.06	0.65	0.36
P_2O_5	0.18	0.20	0.14	0.01	0.70	0.91	0.46	0.24	0.28	0.39
SiO_2	60	5	64	3	51	10	43	2	38	40
TiO_2	0.75	0.12	0.72	0.01	0.63	0.10	0.81	0.03	0.63	0.67
Ba	452	34	436	49	300	53	586	57	517	487
Ce	89	6	79	3	68	9	117	4	91	80
Co	49	20	95	23	18	7	23	6	16	18
Cr	100	14	85	6	98	9	96	19	65	62
Cs	15	2	13	1	11	3	20	3	18	6
Cu	47	49	54	41	45	22	36	35	28	161
Dy	4.8	0.5	4.4	0.3	3.9	0.6	5.7	0.2	5.2	5.2
Er	2.6	0.2	2.3	0.1	2.3	0.4	2.9	0.1	2.8	2.7
Eu	1.2	0.2	1.2	0.1	0.9	0.2	1.8	0.1	1.4	1.4
Gd	5.8	0.6	5.7	0.1	4.5	0.8	9.1	0.4	7.4	7.2
Hf	6.9	0.7	6.1	0.2	6.4	1.7	2.8	0.2	3.4	3.6
Ho	0.76	0.08	0.67	0.03	0.74	0.10	1.00	0.04	0.92	0.94
La	44	3	41	1	32	4	57	2	44	41
Lu	0.46	0.05	0.40	0.03	0.34	0.06	0.43	0.01	0.42	0.39
Nb	21	2	23	1	17	3	20	1	18	16
Nd	40	4	35	1	28	4	47	1	38	35
Ni	20	3	<LOD		20	4	68	17	63	49
Pb	(204 - 12x10^3)*		(377 - 5.5x10^3)*		(339 - 10.1x10^3)*		(37 - 2.65x10^3)*		1.73 x10^3	2.58 x10^3
Pr	11.0	0.7	9.1	0.3	7.5	1.0	12.0	0.4	9.6	8.8
Rb	186	12	189	17	122	32	149	7	132	80
Sm	7.3	0.8	6.3	0.2	5.1	0.8	9.4	0.3	7.7	7.0
Sn	(165 - 377)*		62	30	35	24	5	1	49	22
Sr	473	97	329	18	523	108	494	57	677	644
Ta	2.5	0.3	2.5	0.08	2.5	0.4	1.2	0.1	1.1	1.0
Tb	0.87	0.10	0.78	0.04	0.67	0.12	1.01	0.04	0.89	0.86
Th	20	1	14	1	13	1	11	1	8	8
Tm	0.44	0.05	0.40	0.02	0.33	0.06	0.51	0.02	0.47	0.50
U	3.9	0.4	3.3	0.2	3.3	0.6	3.0	0.1	2.9	2.5
V	89	18	81	7	65	9	139	7	83	74
Yb	2.6	0.3	2.3	0.1	2.4	0.4	3.0	0.2	2.9	2.8
Zn	<LOD	<LOD	100	51	94	14	94	14	93	83
Zr	237	26	219	11	250	67	191	15	222	252

Table 6.2: Konposizio-multzo bakoitzaren ICP-MS bidez lortutako kontzentrazio kimikoen batez bestekoak eta desbiderapen estandarra (SD). Unitateak μg/g dira eta oxidoen kasuan masa %-ak aurkezten dira. <LOD: detekzio muga azpitik.(*) Pb eta Sn-rentzako kontzentrazio tarteak ematen dira SDak batez bestekoak baino handiagoak diren kasuetan.

ICP-MS bidez, 42 elementuen kuantifikazioa burutu zen. Konposizioaren aldakortasun-matrizearen grafikoa aurkezten da 6.2. irudian. Bertan, elementu bakoitzak datu multzo osoari gehitutako banakako aldakortasuna erakusten da, altuenetik txikienera. Grafiko honen arabera Pb da 47 banako dituen datu-multzoaren elementurik aldakorrena; ondoren, Sn, eta aldaketa gutxien erakusten duen elementua Lu da. Aldakortasun-totalak (vt) multzo zeramikoaren uniformetasuna erakusten du, eta, metrika horren arabera, konposizio-datuen izaera poligenikoa edo monogenikoa definitzen da (Buxeda i Garrigós and Kilikoglou, 2003).

Aldakortasun-iturriak

Aztertutako laginen aldakortasun-totala (vt) 7.69 da (ikus 6.2. irudia). Eskuarki, datu multzoaren izaera poligeniko argi baten zeinua da horrelako balore handi bat, hau da, multzo kimiko bat baino gehiagoren agerpena adierazten du (Buxeda i Garrigós and Kilikoglou, 2003). Nolanahi ere, azterketa estatistiko egokia egiteko, aldakortasunaren jatorriarekin loturiko hainbat arazo hartu behar dira kontuan. Ondorioz, kuantifikatutako elementu guztiak ez dira erabiliko azterketa kimiometrikorako.

Zeramika arkeologikoek azken konposizioan eragina duten eraldaketa edo kutsadura prozesuak jasan ditzakete (Molera et al., 2001). Honen inguruko eztabaida zabalago batentzako ikus 5.1. atala. Alde batetik, Pb eta Sn ohiko osagaiak dira, eztainu-berunezko beiratuetan, eta hauek erreketa-prozesuan zehar barreiatu daitezke beiratutik buztin gorputzera. Gure kasuan, bi elementu horiek erakusten dute aldakortasun handiena (ikus 6.2. irudia) eta, gainera, beraien artean oso koerlazionatuak agertzen dira (ikus 6.2. irudia). Azkenengo irudi honetan, aldagai bakoitzaren erlazioa aurkezten da hauek agertzen duten aldakortasunaren arabera (informazio gehiago 4. atalean).





Figure 6.2: Eskuinean elementu bakoitzak duen aldakortasunaren erlazioa aurkezten duen dendrograma, aztertutako 47 zeramikentzat eta ICP-MS bidez lortutako datuetatik abiatuz. Eskerrean 47 banakoen konposizioaren aldakortasun-matrizearen Irudikapen grafikoa. vt =aldakortasun-totala, H_2 = informazio-entropia, $H_2\%$ = Informazio-entropiak izan dezakeen gehienezko balioarekiko ehunekoa, n = banakoen kopurua.

Aldakortasun altuaz haratago, azpimarratzekoa da aztertutako eskualdeetako zeramikek Pb kontzentrazio orokor handiak erakusten dituztela, μg/g gutxi batzuetatik 10^3 μg/g-rainoko tarteak erakutsiz, aztertutako laginentzat. Berunezko beiratuen ekarpena, beiratu gabeko zeramiken kasuan argi geratzen da, hauek Pb kontzentrazio txikienak aurkezten baitute (adib., LOG006, LOG019, LOG003 eta LOG002). Beste muturrean, beiratuak dituzten zeramikak, Pb aberatsak dituzten pastak aurkezten dituzte (LOG0072, LOG074 eta, neurri txikiagoan, LOG075). Kasu honetan, arau hori saihesten duten bi salbuespen daude: Pb kontzentrazio handienak erakusten dituzten pasta zeramikoak ORD065 eta ELS038 dira. Lehenengoa beiratu gabeko trebera bat da eta 10.1x10^3 μg/g Pb-ko kontzentrazioa du. Bigarrenak, eztainu-berunezko beiratu bat dauka eta 12.9x10^3 μg/g Pb aurkezten du (xehetasun gehiagorako ikus A Eranskina).

Gainera, zeramikak lurperatuta egon diren denboran, kutsadurak jasan ditzakete. Adibidez, lurzoruko uretan dagoen P_2O_5, haren kontzentrazioa alda dezake, zeramika lurperatua izan den kokapen zehatzaren arabera aldatuz. Beraz, bere aldakortasuna ez dago hasierako pastarekin lotuta, baizik eta aipatutako kutsadurarekin. Horregatik, konposatu honen kontzentrazioa ausaz agertzen dira. Aztertutako banakoen artean, Pb eta Sn ondoren, gehien aldatzen den konposatua da P_2O_5 (ikusi 6.2. irudia).

Ildo horretan, Cu da hurrengo elementurik aldagarrirena, toki bakoitzeko laginetan ohiz-kanpoko balioei erantzuten dien aldakortasun handia erakutsiz zeramika multzo-honetarako. Aldakortasun horren iturria jalkitze-ondoko kutsadura ere izan daiteke (Buxeda i Garrigós, 1999). Gainera, kasu zehatz honetarako ziurgabetasun balio handiak lortu ziren elementu honentzako, aldakortasun handi horiekin erlazionatuta egon litekeena. Beraz, Cu-ren aldagarritasun desberdinari dagokionez, ez da aintzat hartzen estatistika-analisirako.

Gainera, lagina prestatzeko prozesua beste aldakortasun-iturri bat izan daiteke. Laginak ehotzeko wolframio karburozko zelda bat erabiltzeak, Co eta Ta-ren kontzentrazioetan aldaketak eragin ditzake. Esandako elementuak zeldaren aleazioan daudenez ehotze-prozesuan laginetara transferitu daitezke (Boulanger et al., 2013a). Azkenik, Zn eta Ni ez ziren kontuan hartu, balio batzuk detekzio mugatik (LOD) gertu edo azpitik baitzeuden.

Horrez gain, Rb, Na_2O eta K_2O kontzentrazioak estatistika-azterketatik kanpo utzi ziren. Aldagai horiek erlazioa dute zeramika pastaren beira-fasean gertatzen den balizko eraldaketa-prozesu bikoitz batekin. Eraldaketa horretan K_2O eta Rb-aren lixibiazioa gertatzen da, analzimaren kristalizazioarekin eta lurrean topatzen den uretan dagoen Na_2Oaren finkatzearekin batera (Buxeda i Garrigós et al., 2002; Schwedt et al., 2006). Analzima, sodioaren zeolita bat da eta haren kaltzio baliokidea wairakita litzateke. Horrela, zaila da kuantifikatzea kutsadura eta eraldaketa-prozesu bikoitz honen ekarpena. X izpien difrakzioaren bidez egindako aurretiazko analisiek ez zuten

hemen azterturiko zeramiketan analzimarik erakutsi. Hala ere, elementu horiek ez erabiltzea erabaki zen, lurperatze ondoko kutsadurak ahalik eta gehien saihesteko.

Azkenik, CaO kontzentrazioei dagokienez, hautaketa teknologikoen eragina aintzat hartu zen. Buztinetan CaO-ren presentzia Sr-rekin agertzen da normalean. Zeramika arkeologikoak, karedun edo ez-karedun bezala sailkatu daitezke, beraien kolore argia edo gorriaren arabera. Kolorea, batez ere CaO kontzentrazioaren mende dago, besteak beste (erreketa-giroa, tenperatura, buztinaren osaera, etab.). Beraz, CaO kontzentrazioak garrantzitsuak dira, azken itxura zehaztu dezaketelako. Hala ere, CaO ezin da inoiz izan zeramiken jatorria zehazteko adierazle nagusia, sailkapen okerrak eman ditzakeelako. CaO eta Sr kontzentrazio igoera batek buztin desberdinen nahasketarekin zerikusia izan dezake, karedun pastak edota karbonatoen inklusioak gehitu litezkeelako pasta zeramikoan (Fabbri et al., 2014).

Zeramiketan dauden karbonatoen izaera anitza izan daiteke: lehen edo bigarren mailakoa, formazio-berrikoa, hauspeatutakoak eta abar. Karbonatoen izaeraren arabera eragin desberdinak izan ditzakete pastaren konposizio kimikoan, baita kaltzioarekin lotutako elementu minoritarioetan ere (Fabbri et al., 2014; Buxeda i Garrigós, 1999; Schwedt et al., 2006). Esate baterako, Elosuren kasuan, lan etnografikoek, zeramikazko labetik hurbil dauden bi buztin moten nahastea aipatzen zuten 25/75 buztin gorri eta buztin zuri proportzioan (Ibabe, 1995a, 16. or.). Hala nola, Durangon *buztin surise* eta *buztin gorrise* aipatzen dira (Ibabe, 1995a, 112. or.). Hemen aztertzen diren 47 banakoen artean, ICP-MS emaitzek erakutsi zuten bezala, sailkapen berdina izaten jarraitzen du CaO eta Sr, estatistiketan erabili edo ez, horrela garbi geratzen da lortutako multzoak ez daudela elementu horiengatik eraginduta, aurrerago eztabaidatzen den bezala.

ICP-MS bidezko sailkapena

HCAren bidez sortutako dendrogramak (ikus 6.3. irudia) Errioxa (LR) eta Euskal Herriko (TBC) zeramika-multzoen arteko desberdintasun argia erakusten du, bai eta aurrerago aztertuko diren bi kasu ere (LOG038 eta LOG033). Multzo bakoitzaren batez besteko kontzentrazioak 6.2. taulan aurkezten dira. LR multzoak aberastasun orokorra du elementu minoritarioetan eta aztarna elementuetan, bai eta Fe_2O_3n ere, alegia, 7.5 masa %-koa, non beste guztiek 4.0-5.4 masa %-ko kontzentrazioak aurkezten dituzten. Aitzitik, euskal multzoak (TBC), Th, Zr eta Hf bezalako elementu minoritarioetan, orokorrean, kontzentrazio altuagoa aurkezten du (ikus 6.3. irudia eta 6.2. taula). Gainera, TBC multzoa, oro har CaO kontzentrazio altuagoak erakusten ditu eta hiru multzo txikiagoetan banatzen da: ORD (Urduña), ELS (Elosu) eta DUR (Durango).

HCA eta PCAk adierazi dutenez, TBCko multzoen artean, Durangoko laginak ezberdintasun kimikoak agertzen ditu MnO eta MgOaren kontzentrazioari dagokionez. Alde batetik, DUR multzoak MnO oso altua du (0.10 masa %), zeinak beste guztien

kontzentrazioak (0.025-0.040 masa %) bikoizten duen. Bestalde, TBCko multzoen artean MgO kontzentraziorik handiena agertzen du (1.7 masa %), non beste guztiek honako tartea agertzen duten: 0.67-12 masa %. Horregatik, elementu honek DUR multzoa bereizteko gakoa da. Ondorioz, MgOren paper erabakigarria nabarmentzen da TBC multzoaren barruan DUR multzoaren bereizpenari dagokionez.

Gainera, ORDren bereizpena TBCren barruan, Al_2O_3 kontzentrazio baxuagoak (15 masa %) eta CaO altuagoak (19 masa %) emana dator. Halaber, aztarna elementuen murrizte orokor bat erakusten du. Kontraste gisa, ELSko zeramikak aberatsagoak dira zenbait aztarna eta elementu minoritario, esaterako Cr, Lu, Sm, Tb, Tm, U, V eta Yb-n, eta bereziki Th, 20 μg/g-ko kontzentrazioa erakutsiz, non TBCko beste guztien Th kontzentrazioak 12-14 μg/g-ko tartean aurkitzen dira (ikus 6.2. taula).

Lehen aipatu den moduan, Logroñoko bi zeramikek konposizio desberdinak erakusten dituzte LOG multzo nagusiarekin alderatuz. Hauek LOG033 eta LOG038 dira. Doktorego-tesi honetan aurretik jorratu den bezala, LOG033 LOG-B multzoari dagokio eta ELS038 LOG-E multzoari (ikus 5.2. atala), non hemen LOG deritzogun multzoa LOG-A multzoari dagokio. Hala ere, atal honetan, LOG deituko diogu azkenengo honi eta beste bi zeramikak beraien identifikazioaren bidez izendatuko ditugu. Zeramika multzo honekin (n=47) burututako sailkapenean, bai HCAk bai PCAk bi banako horien izaera bereizia adierazten dute. LOG033, kimikoki berdintasun gehiago erakusten du LOG multzoarekiko LOG038 baino. Hala ere, aztarna eta elementu minoritarioen desberdintasun orokorrak eta, bereziki, MgOren kontzentrazio baxuagoa da (1.8 masa %) multzo horretatik banantzearen erantzule nagusia, non beste zeramika guztiek 2.1-2.5 masa %-ko kontzentrazio tarteak erakusten dituzten.

Aipatutako beste zeramikari dagokionez (LOG038) gainerako pieza guztiez bestelakoa da, aztarna eta elementu minoritarioak kontzentrazio altuagoak dituelako (ikus 6.2. taula). Aipatu beharra dago, multzo zeramiko osoko pieza karedunena dela (23.8 masa % CaO). Doktorego-tesi honen 5.2. atalean jorratzen den moduan, ezaugarri teknologikoen ebaluazioaren eta NAAren bidez jatorri-azterketetan oinarrituz (Calparsoro et al., 2016), pieza honen jatorria Valentzian dagoela proposatzen da. Izan ere, bertako oso ezaugarrikoak den apaindura urdin mota erakusten du (Mesquida García, 2002; Coll Conesa, 2009; Pérez-Arantegui et al., 2008).



Figure 6.3: HCA eta PCA, bi tekniken bidez lortutako datuekin: ICP-MS (ezker) eta ED-XRF (eskuin). clr eta alr transformazioak aplikatu ziren HCA eta PCAn, hurrenez hurren ondorengo aldagaiei: MgO, Al_2O_3, SiO_2, TiO_2, Fe_2O_3, MnO, V, Cr, Zr, Nb, Ba, Hf, La, Ce, Pr, Nd, Sm, Eu, Gd, Tb, Dy, Ho, Er, Er, Tm, Yb, Th eta U. ED-XRFan: Si, Ti, Fe, Zr eta K. PCArako Lu eta Al erabili ziren zatitzaile moduan ICP-MS eta ED-XRFrako hurrenez hurren. Elipseak 95%- konfiantza tartea adierazten dute.

6.2 *ED-XRF Emaitzak*

Neurketa Parametroak

Instrumentuan konfiguratu daitezkeen aukeretatik abiatuta, lehenik eta behin hiru aldagai optimizatu ziren: (i) neurketa-denbora, (ii) tentsioa eta (iii) Rh hodiari aplikatutako korrontea. Seinale/zarataren erlazioa (SNR ingelesetik) hobetzerik ez dagoen neurketa-denbora zehazteko, eta, beraz, detekzio-muga, denbora-tarte desberdinetako neurketak burutu ziren (100 s, 150 s, 200 s, 250 s eta 300 s) hainbat zeramiketan (multzo bakoitzeko bat). Hildako-denbora (ingelesez *dead time* deritzona) zeramika guztietan berdina zela ikusita ($\approx 1\%$), denbora erreala neurtu zen neurketa guztietan.

Lagin bakoitzeko aztarna elementuentzat SNRak kalkulatu ziren (μg/g maila). Ondorioz, 200 s-etara, hiru baino balio askoz handiagoak lortu ziren aztertutako kasu guztietan. *American Chemical Society*ak SNRak hiru edo gehiagokoa izan behar duela gomendatzen du espektro-gailur bat elementu/konposatu espezifiko baten presentziari lotu daitekeela egiaztatzeko (Keith et al., 1983).

Gure neurketetan eta zenbait elementu zehatzetarako, SNRak hiru baino gutxiago izan ziren 100 s edota 150 s-tan. Horrenbestez, 200 s ezartzea erabaki zen neurketa-denborarik egokiena bezala. Neurketa-denbora horrek lagin bakoitzaren balio adierazgarriak eskuratzeko aukera eman zigun (50 puntu neurtuta), lagin bakoitzeko 3 ordu baino gutxiagotan.

X izpien hodiak gehienez 50 KV-ko tentsioan egin dezake lan, eta, gehienez ere, 700 μA-ko korrontearekin. Hauek, baldintza optimotzat jo ziren, 1 mm-ko albo-ebazpena duten espektroak eskuratzeko. Tentsio baxuagoetan eta korronte baxuagoetan erregistratutako zenbaketa-netoen (*net counts*) kopurua jaisteaz gain, inguru-espektrala ez zen hobetzen.

Espektroak interpretatzeko erabiltzen den software komertzialak ematen dituen kalkulu aukerei dagokienez, funtsezko parametroetan (FP) oinarritutako zenbait hurbilketa semi-kuantitatibo eskaintzen ditu. CRM-arekin (SRM679) egindako frogatan, "Oxido-metodoa" eta "espektroko elementuak" oinarri hartuta, lehenengoak emaitza hobeak eman zituen, elementuak oxido egoeran daudela asumitzen duelako, horrela era hobeago batean islatzen du zeramikaren errealitatea (adibidez silizio oxidoak eta burdin oxidoak).

Hala ere, bi FP-metodoak ez daude diseinatuta matrize mota jakin batentzat, eta metodo horietako edozein erabilita lortutako balio kuantitatiboak balio errealekiko

desbideratze handiak erakutsi zituzten, analitikoki onargarriak diren mugen gainetik. Beraz, kontzentrazioekin lana egin beharrean, hurbilketa semi-kuantitatibo batekin lana egitera beharturik gaude. Hurbilketa semi-kuantitatibo honetan, ED-XRFren oinarritutako sailkapen-eredua eraikitzeko zenbaketa-netoak erabili ziren. Balio absolutuen ordez, balio erlatiboetan oinarritzen den sailkapen bat lortzea denean helburua, zenbaketa netoak erabiltzea gomendatzen da, baldintza berdinetan egindako analisietan balio fidagarriagoak ematen baitituzte. Aitzitik, emaitza kuantitatiboak beharrezkoak izaten dira laborategietan lortutako emaitzak konparatzeko.

Hala ere, kontuan izan behar da, kontzentrazio jakin baterako, ED-XRFren intentsitateak askoz txikiagoak izango direla elementu arinentzat, elementu astunekin alderatuz. Ionizazioaren zeharkako-azalera askoz txikiagoa da elementu arinentzat, eta horregatik energia baxuko X izpien xurgapena handiagoa da elementu hauentzat, islapena murriztuz. Islapena txikiagoa izanik, ED-XRF detektoreak jasoko duen seinalea ere txikiagoa izango da. Horrek eragina izan dezake, bereziki, elementu arinen bidez (Al edo Si) bereizten diren laginen diskriminazioan. Beraz, muga horiek direla eta, hemen aurkezten den metodologia bahetze helburuetarako bakarrik erabili daiteke.

Albo-ebazpena

Energia-fluxua batez ere hautatutako optikak arautzen duena, handiagoa izango da optika polikapilarra erabiliz (25 μm vs 1 mm albo-ebazpena). Horrela, 25 μm-etara, lagineko elementu arinenen detekzioa hobetuko litzateke. Horregatik, zentzuzkoa izan liteke albo-ebazpen hau aukeratzea ED-XRF eredua eraikitzeko. Hala ere, lan honetan erabilitako CRMen partikula-tamaina 75 μm-tik gorakoa da. Beraz, pellet moduan edo Mylar filmarekin aurre-prentsatutako CRMak ez dira era homogeneoan aurkituko 25 μm-ko albo-ebazpenarekin, are gehiago, CRMak bola bidez ehotuak izan direla eta bahe batetik iragaziak izan direla kontuan hartuz, kontsideratu daiteke benetako zeramika-matrizea askoz ere heterogeneoagoa izango dela albo-ebazpen txiki honetara neurtuta. Behaketa hau, hurrengo ataletan baieztatuko da.

CRMak pellet gisa eta Mylar filmarekin ematen dituzten neurketen desbideratze estandarrak (% RSD) kalkulatu ziren 1 mm eta 25 μm-ko albo-ebazpenak erabilita (ikus 6.3. taula). Ikus daitekeen bezala, elementu guztietarako 1 mm-ko kolimadoreak RSD baxuagoak eskaini zituen. Horrela, 1 mm-ko albo-ebazpena erabiliz lortutako balio gehienak 25 μm-etara lortutakoen erdiak izan ziren, 15-20%-ko tarteko RSDak emanez gutxi gora behera, Cl, As eta Pb salbuespen izanik. Pb-arentzako lortutako RSD balio handiek, iradokitzen dute elementu hori oso era sakabanatuan aurkitzen dela pellet-ean zehar. Gainera, Cl-a eta As-arentzat lortutako RSD balio altua elementu horien LOD-arekin erlaziona daiteke, erabilitako gailuarekin, Rh-zko X-izpiaren hodi batekin, alegia. Kasu batzuetan, % RSD baxuagoak lortu ziren 1 mm-rekin Mylar filma erabiliz, pelletekin lortutako balioekin alderatuz. Horrekin ulertzen dugu, CRM-a pellet moduan

prentsatutakoan ez zegoela 25 μm-etara neurtutako pellet-a bezain beste homogeneizatuta. Emaitza hauetatik abiatuz, ED-XRFean oinarritutako modelo ez-suntsitzaile bat eraikitzeko 1 mm-ko albo-ebazpenera neurtu ziren zeramikak. Matrizearen heterogeneotasuna kontuan hartuz, albo-ebazpen bakoitzak estalitako eremuen konparazioa burutu zen (ikus 6.4. irudia). Behatu daitekeen moduan inklusio-tamaina ohikoenak 1 mm-ko diametroaren barnean geratzen dira.



Figure 6.4: Zeramiken heterogeneotasun desberdinak eta albo-ebazpen bakoitzak estalitako azalera 25 μm eta1 mm-etara.

Laginaren adierazgarritasuna

Lagin bakoitzeko 50 erreplika-analisi egitea erabaki zen, aztertutako zeramika-zatikien ohiko morfologiak kontuan hartuz, 4 cm-ko luzera maximoak dituztenak, alegia. Analisi-kopuru hau (bakoitza 1 mm-ko albo-ebazpenarekin), nahikoa zela kontsideratu zen. Horrela, aztertutako azalerak estaltzeko eta, beraz, lagin bakoitzaren geokimika behar bezala adierazteko, hau da, prezisio-zerra batekin ebakitako zeharkako-azalerak.

Hala ere, analisi-kopurua erraz egokitu daiteke zeramika-multzo bakoitzaren premietara. Gainera, ED-XRF softwareak neurketa-puntu zehatzak eskuz edo automatikoki hautatzea ahalbidetzen du, hautaketa-aukera desberdinak ahalbidetuz. Hala nola, ausazkoak edo uniformeki sakabanatutako puntuak hartuz. Beraz, analistak zehatz-mehatz aukeratu ditzake analisi puntuak, azalera zailak dituzten zeramiketarako bereziki erabilgarria dena (adibidez, inklusio handiak dituztenak, beiratuak etab.).

Table 6.3: ED-XRF bidez lortutako %RSD balioak SRM679-CRMan, Mylar filmean prentsatuta eta zenbaketa-netoak neurtuta 1 mm- eta 25 μm-ko albo-ebazpenekin. CRMen balioak pellet-gisa prestaturik parentesi arten aurkezten dira.

Elementua RSD (%)	25 μm	1 mm
Al	8	2 (2)
Si	9	1 (1)
Cl	26	50 (45)
K	13	1 (1)
Ca	54	6 (4)
Ti	9	2 (1)
V	16	7 (7)
Cr	14	16 (11)
Mn	16	5 (5)
Fe	22	2 (1)
Ni	34	19 (10)
Cu	37	16 (16)
Zn	38	7 (4)
Ga	42	13 (13)
As	80	28 (15)
Rb	47	4 (2)
Sr	51	8 (4)
Y	39	12 (9)
Zr	40	5 (4)
Pb	183	83 (75)

Hemen aztertzen den zeramika-multzoan, zeramika gehienak beiraztatuak direnez, neurketa-puntuak eskuz zehaztu ziren, eta horrek erraztu egin zuen zeramiken morfologia anitzetara erraz egokitzea. Aldiz, laginaren azalera laukizuzena edo karratua izan daitekeen kasuetan, sistema automatikoa egokiagoa izan daiteke, baina zeramika arkeologikoetan hautaketa-automatiko bat zeramikaren adierazgarriak izan daitezkeen guneak alde batera uzteko arriskua dakar.

Begi-bistakoa izan zen, analisi-puntuak beiratuetatik gertu egiten ziren kasuetan Pb kontzentrazioak izugarri handitzen zirela. Izan ere, erreketa garaian, elementu hau beiratutik zeramika-gorputzera barreiatzen da (Molera et al., 2001). Gainera, ED-XRF softwareak auto-fokatze aukera ematen du. Hori dela eta, automatikoki burutu liteke lagin anitzen analisia, sistemak lagin batetik bestera automatikoki pasatzeko ahalmena daukalako. Gaitasun honek, analisiak aldez aurretik programatzeko aukera ematen du.

Tarte-Dinamikoak, LOD eta LOQak

$Z < 20$ Elementuak

Oro har, ED-XRFren LOD-ak hobeak dira elementuen zenbaki atomikoak (Z) handitzen diren heinean. Nahiz eta arau hori lineala ez izan, Na (Z=11) beherako elementuak detektaezinak izango dira (Speakman et al., 2011; Beckhoff et al., 2007). Aztertutako zeramiketan Na_2O-ren kontzentrazioak 0.7 eta 1.5 masa % tartekoak ziren. Beraz, zeramika-arkeologikoetan dagoen Na birtualki ikusezina izango da Rh-zko kitzikatzailea duen ED-XRFaren detektorearentzako. Aitzitik, W-zko kitzikatzailea egokiagoa izango litzake elementu arinen detekziorako. Era berean, Mg, P eta S-ren ekarpenak ingurumen-intentsitateagatik bereiztea zaila da bi oztopo nagusiengatik: (i) haien kontzentrazio baxuak zeramika arkeologikoetan, eta (ii) isuritako fluoreszentziaren energia baxua, zeina xurgatua izan daiteke era erraz batean zeramika-matrizeagatik, detektorearen-leihoagatik eta edota Si-ko geruz-hilarengatik (ingelesez *dead-layer* deritzona) (Hunt and Speakman, 2015). Detekzioak are okerragoak dira kolimazio mekanikoa erabiltzen bada, lehenago adierazi den bezala. Gainera, P-ren kasuan, Ca-ren ihes-gailurrak (ingelesez *scape-peak*) arazoak ekar ditzake. Hori dela eta, dekonboluzio egokia egiten ez bada, P-ren ekarpena erreala baino handiagoa izango da. Hala ere, zenbait kasuetan S eta P baztertuak izan daitezke karakterizazio-arkeometrikoan, haiek erakusten duten ausazko aldakortasunaren ondorioz. Izan ere, lehenago azaldu den moduan (ikus 5.1. atala) kanpo-faktoreen mende egon daiteke, eta, beraz, ez dira zeramika-pasten ezaugarrien adierazle izango. Aitzitik, Mg-a atzematea oso zaila da, baina elementu honek paper garrantzitsu bat joka dezake konposizio-multzo batzuen bereizketan. Hala nola, DUR multzoaren bereizgarritasunean; zeina Mg-aren (Mn-az gain) bidez, ELS multzotik bereizia izan daitekeen, ICP-MS emaitzak adierazi duten moduan. Halaber, LOG033ren LOG multzotik bereizten da Mg kontzentrazio baxuagoa erakusten duelako (ikus 6.2. taula).

Horrela, zeramika arkeologikoetan adierazgarriak izan daitezkeen Z baxu edo ertaineko elementuetatik, alegia, Na, Mg, Al, Si, Mg, Al, Si, P, S, K eta Ca (Speakman et al., 2011), erabilitako ED-XRF konfigurazioarekin, Al, Si, K eta Ca-k erakusten dute atzemateko behar besteko kontzentrazio nahikoa.

$Z > 20$ Elementuak

ED-XRF-an LODak askoz hobeak dira, batez ere Z >15 elementuetarako. Lan honetan erabilitako ED-XRF tresnarako estimatutako LODak (μg/g-tan) honakoak dira: 100 Ti-rentzat, 80 Cr-rentzat, 50 Mn-rentzat, 40 Fe-rentzat, 30 Ni-rentzat, 20 Cu eta Zn-rentzat. Gainera, 300 eta 200 Sn eta Pb-rentzat.

Beraz, ICP-MS emaitzen arabera, Ti, Mn, Fe eta Pb bezalako elementuak, nahiko kontzentrazio aberatsetan daude, baldintza horietan balio semi-kuantitatibo adierazgarriak emateko. Aitzitik, Sn-aren balioak 200 μg/g-tik behera geratzen dira. Gainera, Fe-an aberatsak diren matrizeetan ihes-gailurren (4.660 keV) ekarpena kontu handiz landu behar dira, Ti-aren K_α (4.508 keV) lerroari gainjartzeko arriskua baitago.

Era berean, Ti, V, Cr, Mn, Fe eta Co-ren espektro-lerroak kontu handiz hautatu behar dira dekonboluzio egoki bat lortzeko, haien K_α lerroak, elementu horien aurreko Z daraman K_β-lerroarekin gainjartzen baitira. V, Cr, Mn eta Co-ren kontzentrazioak Ti eta Fe-renak baino asko baxuagoak dira. Halere, elementu horiek Ti eta Fe seinaleetan eragin dezaketen ekarpena ekiditua izan behar da seinaleen dekonboluzio egoki baten bidez. Aztertutako zeramika multzoan V, Cr, Co, Ni, Cu eta Zn-k aurkezten dituzten kontzentrazioak LODaren edota LOQaren azpitik geratzen dira, aztertutako zeramika multzorentzat. Sr-arentzako, konposizio-multzo bakoitzaren batez bestekoa 329 eta 677 μg/g bitartekoa da. Beraz, ED-XRF metodoarekin atzemateko arazorik ez litzake izan behar. Hala ere, bere presentzia Ca-rekin batera aurkitzen da, eta, beraz, aukera teknologikoen ondorio izan daiteke zeramikaren hatz-marka kimikoarena izan beharrean, lehen eztabaidatu den bezala. Horregatik, estatistika-analisian duen eragina kontu handiz tratatu behar da. Rb-rentzako estimatutako LODa 30 μg/g-koa da, gutxi gora behera, zeramiketan topaturiko kontzentrazioak (80 - 189 μg/g) aise gainditzen dutelarik. Rb, Ga eta Y-ren kasuetan, oso zenbaketa-baxuak erakusteaz gain, Pb-aren presentziak elementu hauen atzematean duen eragina nabarmendu behar da, aurrerago ikusiko dugun bezala. Laburbilduz, hemen erabilitako ED-XRF konfigurazioarekin arkeologia-zeramikaren kontzentrazioen arabera, ondorengo elementu hauek bakarrik hartu daitezke kontuan azterketa estatistikorako: Ti, Mn, Fe eta Zr. Sr-a ere erabil daiteke, baina zenbait murriztapenekin.

Heterogeneotasun zeramika arkeologikoetan

Zeramika arkeologikoak material sintetiko eta heterogeneo gisa ulertzea nahitaezkoa da. Izan ere, XRF bidezko azterketa ez-suntsitzailea egiteko erronka multzo berezi bat aurkezten dute. Horrela, orain arte aipatutako faktoreez haratago (ihes-gailurrak, LODak, atenuazioak, etab.), zeramika-matrizeekin zerikusia duten beste aldakortasun-iturri batzuk, haien geokimika behar bezala karakterizatzea oztopatu dezakete. Muga horietatik garrantzitsuenak hauek dira: zeramikaren heterogeneotasun, ale-tamaina eta efektu mineralogikoak (Hunt and Speakman, 2015; Forster et al., 2011; Frahm, 2013). Faseen nahasketa heterogeneoak, beste faktore batzuez gain, X izpien interakzioak biziki eragin ditzake. Gainera, alearen tamainak X izpi sortaren barneratze sakoneran eragina izango du. Horrela, ale txikiagoak barneratze sakonagoa ahalbidetuko dute. Handienek, berriz, sortarekin zuzenean elkarreragin dezakete, eta horretaz gain, berez aztertzen den konposizioaren masa mugatu (Hunt and Speakman, 2015). Gainera, ale horien kristal-egiturak, dentsitateak eta konposizioak X izpi



Figure 6.5: Biolin diagrama ED-XRF bidez lortutako RSD (%) balioekin. Elementu bakoitzaren 50 erreplika-analisiak erakusten dira. Pb-a 200% gorako RSDa aurkeztu zuen eta ez da grafikoan erakusten, gainera elementu batzuk LOD edota LOQren azpitik geratzen dira, beraz haien balioak orientagarriak dira.

sortarekin edukiko duten interakzioan eragin zuzena edukiko dute. Zeramika arkeologikoak hainbat tamainatako mineralez osatutako buztinak dituzte, eta horiek ez dira ehotzen era ez suntsitzailean egindako analisietan. Horregatik, zeramiken heterogeneotasuna erronka eztabaidatuenetako bat da.

Ohiko zeramika arkeologikoen heterogeneotasuna ebaluatzeko, lagin bakoitzeko 50 analisi-punturi dagozkien zenbaketa netoen balioen ondoriozko RSDak hartu ziren kontuan (ikus 6.5. irudia). Grafikoak datuen sakabanaketa ebaluatzeko aukera ematen du, zeina kasurik onenetan % 5 baino baxuagoa den (Al eta Si) eta %100-etara iristen den Ga bezalako elementurako. Pb-a salbuespena litzake, % 200-etik gorako balioak emanez. Oro har, zenbat eta heterogeneoagoak izan zeramikak, orduan eta handiagoak izango dira RSD balioak. Hala ere, RSD altua duten zenbait elementuk, beste arrazoi bati erantzun diezaiekete, hala nola, detektoreak haien zenbaketa neto murriztuak erregistratzeko duen zailtasunari (RSDen zerrenda A. Eranskinaren A.9. taulan aurkezten da).

Bi joera hauteman ziren 6.5. irudiaren arabera: batez ere 1-25 % tarteko RSDak zituzten elementuak (Al, Si, K, Ca, Ti, Fe, Rb, Sr, Zr) eta horren gaineko balioak

erakusten zituztenak % 80-ra iritsiz (V, Cr, Mn, Co, Zn, Ga eta Y). Azken elementu zerrenda honetatik, berriz, Mn izan zen kontzentrazio-tarte egokiak aurkezten zituen elementu bakarra ED-XRF analisirako. Hala ere, elementu horren heterogeneotasuna altuegia da estatistika-analisian aintzat hartzeko. Kontuan izan beharra dago, elementu batzuk ez zirela kontuan hartu emandako seinale baxuen ondorioz (Cr, V, Co, Ga eta Y) edo Pb-aren eraginagatik (Ga, Rb eta Y). Hala ere, haien RSDak, banaketari buruzko informazioa eman ditzakete.

Emaitza horien arabera, %RSD balorerik onenak Al, Si eta Fe-k eskaini zituzten. Gainera, grafikoan ikus daiteke nola aldatzen den heterogeneotasuna konposizio-multzo batetik beste batera, analizatutako piezen kopuruaz haratago (ikus 6.5. irudia). Esate baterako, DUR (n = 5) multzoak ORD (n = 10) baino askoz % RSD handiagoa bat erakutsi zuen, naiz eta zeramika-kopuru erdia izan. Beraz, argi dago %RSDa aldakortasuna ez dela lagin kopuruaren araberakoa, baizik eta multzo bakoitzaren konposizio banaketaren araberakoa. Gainera, elementu bakoitzaren distribuzioa aztertzeko asmoarekin, ED-XRF gailu honek ahalbidetzen duen *imaging* analisia burutu zen 25 μm-ko albo-ebazpenarekin. Hori dena, aurreko analisiak burutu diren txanda berdinean, hau da, inolako aldaketarik egin behar izan gabe. Azterketan honen emaitzak 6.6. irudian behatu daitezke, non ELS020-ren kasu aurkezten da adibide moduan.

Mapeatutako eremuaren azalera 36 x 13.4 mm-koa izan zen zen (1803 x 671 pixelekoa). Espektro bakoitza lortzeko 50 ms eta 4 ziklo erabili ziren. Puntu gorriek Ca metaketak adierazten dituzte. Horiek, kaltzita bezalako karbonatoren bat izan daitezke eta Ca-ren %RSD a handitzea eragiten dute. Puntu berdeak berriz, Fe adierazten dute, eta dentsitate handiagoa adierazten dute. Horiek hematiteekin lotuta egoten ohi dira. Bi inklusio mota hauek, aurkitzen diren ohikoenak izaten dira zeramika arkeologikoetan.

Pb kontzentrazio altuek zeramika arkeologikoetan duten eragina

Pb zeramika-arkeologikoetan bi lekutan aurkitzen da: buztinezko gorputzetan eta beiratuetan nabarmenki (horren osagai nagusi bat izanik). Pb-a beiratutik buztinezko gorputzerako zabaltze-frontea oso aurreratua baldin bada, haren kontzentrazioa nabarmenki igotzen da beiratuen inguruan (Molera et al., 2001) .Esperimentu honetan erregistratutako Pb kontzentrazioak oso distribuzio irregularra ageri zuten lagin desberdinen artean. Zenbaketa-netoen tarteak $1x10^3$-tik $3x10^5$-ra igarotzen ziren. Gainera, haien %RSDak 200%tik gora egiten zuten, beste elementu guztiek erakutsitakoak baino askoz altuagoak izanik (ikus 6.5. irudia).

Gainera, $2x10^6$-ko muturreko balio bat erregistratu zen ELS049 kasurako. Lagin honen salbuespenarekin, ICP-MS bidez lortutako kontzentrazioak ED-XRFarekin lortutakoekin bat datoz. Bi teknikek, ELS038 irudikatzen dute Pb-an aberatsagoan den lagina bezala (12.9 $x10^3$ μg/g). Aitzitik, ELS049, ez zuen balio bereziki alturik eskaini



Figure 6.6: ELS020 zeramikaren irudia (A) eta ED-XRF bidezko mapa elementala 25μm-tara,Ca eta Fe elementuen distribuzioak erakutsiz (B) eta Sn eta Pb elementuak, beiratuekin loturik daudenak (C).

Pb kontzentrazioari dagokionez ICP-MS bidez ($11.4x10^3$ μg/g). Beraz, nahiz eta beiratuaren inguruko analisi-puntuak biziki saihestu ziren, emaitza altu hau azaltzeko modu bakarra, analisi-puntuen berunezko beiratuaren gertutasuna da. ED-XRFri

dagokionez, matrize zeramikoetan Pb-aren presentzia modu kritikoan jorratu behar da; izan ere, Ga eta Rb seinaleekin interferentziak eragiten ditu, era horretan, balizko elementu diskriminatzaileak murriztuz (Forster and Grave, 2013). Ga eta Y murrizketaren arrazoia, ziurrenik, Pb-aren eragina da. Bai ELS049ko zenbaketa netoetan eta oro har lagin guztiek erakusten dituzten %RSD altuetan ere (20-60%-koa). Eragin hau bereziki handia da Pb kontzentrazio altuak erakutsi dituzten laginetan (ikus 6.5. irudia). Gainera, elementu hauek LODeiko oso gertuko kontzentrazio-balio erakutsi zituzten, eta, beraz, ez ziren baliozkoak izan estatistika-analisirako. Aitzitik, Rb laginak, oro har, RSDen balio baxuagoak erakusten ditu (<25 %) Pb-aren interferentzia txikiago bat adieraziz, hala nola, kontzentrazio-tarte hobeagoak (LOD gainetik). Hala ere, zenbaketa-netoek adierazten dutenez, ELS049ren Pb altuenaren seinalea Rb seinale baxuenarekin lotuta egongo litzake. Nahiz eta erlazio hori lineala ez izan, Rb-ren balioak kontu handiz erabili behako lirateke analisi-estatistikoetan; eta, bereziki Pb-an aberatsak diren matrizeetan.

ED-XRF bidezko sailkapena

Zeramika guztiak neurtu ondoren, honako 24 elementu hauek detektatu ziren: Mg, Al, Si, P, S, K, Ca, Ti, V, Cr, Mn, Fe, Co, Ni, Cu, Zn, Ga, As, Rb, Sr, Y, Zr eta Pb. Kasu guztietan, elementu bakoitzaren Kα lerroa hartu zen kontuan, Pb kasuan izan ezik, non Lα lerroa aukeratu zen. Hala ere, detektatutako elementu asko ez ziren baliozkoak analisi-estatistikoetarako honako arrazoiengatik: (i) ED-XRF laginak modu egokian detektatzea ez zen posiblea, hain zuzen ere, kontzentrazio txiki eta zenbaketa-kopuru txikien ondorioz, (ii) zeramiken kontzentrazioak LOD edo LOQren azpitik geratzen ziren (iii) %RSDak altuegiak ziren zeramika matrizeak ondo adierazi ahal izateko eta (iv), Pb-kontzentrazio altuek beste elementuen seinaletan eragiten zuten.

Arestian aipatutako oztopoak kontuan hartuta, honako elementu hauek erabilgarritzat jo ziren estatistika-tratamendurako: Al, Si, Ca, Ti, Fe, Zr, K eta Sr. Oinarrizko azterketa egiteko kontzentrazio-eremu egokietan egon ziren, eta RSD muga onargarriak aurkeztu zituzten.

Sailkapen zehatzena, ordea, azterketa-estatistikoan Ca eta Sr baztertzen zirenean lortu zen (Ikus 6.3. irudia). Elementu horientzat aurretik eztabaidatutako oztopoez gain, elementu diskriminatzaileen kopuru murriztuak sailkapena desbideratzen zuten elementu nagusi horiei lehentasuna emanez eta haien kontzentrazioari neurri handiagoan eusten dioten multzoak sortuz. Beraz, Ca eta Sr azterketa estatistikoan barne hartuz, LOG033 eta LOG038, era okerrean TBC multzoei lotuak agertzen ziren. Aldi berean, TBC hiru kluster berritan banatu zen, non hiru multzo euskaldunak (ELS, ORD eta DUR) bereizezinak zirelarik. Bestalde, LOG multzoa hobeto definituta zegoen, Ca kontzentrazio txikiagoa oso nabarmena baita, beste multzo guztiekin alderatuz.

Horrenbestez, hobekuntza nabarmena lortu zen, azterketa estatistikotik Ca eta Sr baztertzean. Ezabatu arren, adierazi behar da egungo metodologia ez dela gai elementu horiek beste elementu batzuen seinaleetan izan dezaketen eragina zuzentzeko. Hori kontuan hartu behar den beste joera bat izan liteke, batez ere Ca-n pasta aberatsak dituzten zeramiketan.

Erabilgarriak diren 6 aldagaiekin HCA eta PCA burutu ziren (ikus 6.3. irudia). ED-XRFaren kasuan, 50 neurketen batez besteko balioak erabili ziren HCArako. PCArako, berriz, behaketa guztiak hartu ziren kontuan. Era horretan, lagin bakoitzari dagozkion puntuen banaketa ere ebaluatu daiteke. ED-XRFk lortutako dendrogramak arrakasta handiz erreproduzitzen du TBC eta LR arteko banaketa nagusia. Gainera, TBC hiru multzo txikiagoetan banatzen da, nahiz eta hierarkia orain desberdina den. Kasu honetan, DUR multzoaren ordez isolamendu handiagoa erakusten du ORD multzoak. PCAren arabera, ORD multzoa, Si-ren ekarpen handiagoaren eraginez separatzen da. Gainera, bi kasuetan LOG038 eta LOG033, LOG multzotik kanpo agertzen dira, nahiz eta distantziak ere aldatu diren. Oker sailkatuta agertzen den lagin bakarra ELS038 da; hau da, Pb gehien duena eta DUR multzoari lotuta agertuz kasu honetan.

Azpimarratzekoa da K-a funtsezkoa elementua izan zela sailkapen hau lortzeko. Batzuetan, elementu hori estatistika-analisietatik saihestu egiten da, analzimarekin lotutako eraldaketa dela eta (ikus 5.1. atala). Nahiz eta zeramika-multzo honetarako XRD bidezko analisiek ez zuten horrelakorik identifikatu, metodologia hau mugatua egongo litzake analzima bidez eraldatutako zeramikentzat. Adibidez, DUR multzoa, bereziki Mn zein Mg-ren bidez bereizten da gainontzeko multzoetatik, ICP-MS emaitzek erakutsi zuten bezala, baina elementu horiek ezin dira ED-XRFren bidez erabili. Beraz, K-ren erabilera nahitaezkoa izan zen multzo hori behar bezala identifikatzeko. Analisi-estatistikoetan K kontuan hartuz, LOG multzoan elementu honetan oinarrituriko bi multzo bereizten ziren, ICP-MS bidez ikusten ez zirenak, HCA eta PCA behatu daitezkeenak (ikus 6.3. irudia).

Esan daiteke korrespondentzia-maila handia dagoela lortutako sailkapena suntsitzailea eta ez-suntsitzailearen artean (ikus 6.3. irudi). Nolanahi ere, Pb-ren kontzentrazio altuek eragina dute azken emaitzetan. Hala ere, eragin hori ez zen nahikoa izan ELS049 era oker batean sailkatzeko, izan ere, bi sailkapenetan ELS multzoaren barruan bateratu zen.

6.3 *Eztabaida eta Ondorioak*

Lan honetan, ED-XRFren bidez, era ez-suntsitzailean lortutako datuak aldagai anitzeko metodo estatistikoekin tratatu ziren. Horrela, teknika ez-suntsitzailearen gaitasuna ebaluatu zen ICP-MS bidez eta era suntsitzailean lortutako konposizio-multzo

desberdinen artean diskriminatzeko. 1 mm-ko albo-ebazpenarekin burututako analisi puntualek estrategia ez-suntsitzailea jarraituz (50 erreplika-analisi), agerian utzi dute ED-XRF errutinen potentziala Erdi Aroko eta Erdi Aro osteko zeramiken helburu diskriminatzailerako. Zeramika-tipologia horiek oso pasta dekantatuak izaten ohi dituzte (karedun edo ez-karedun), eta haien inklusioen tamaina 1 mm baina txikiagoa izan ohi da (ikusi 6.4. irudia). Nolanahi ere, buztin-gorputzak gutxieneko pasta homogeneoa aurkeztu behar du, metodologia honek aplikagarritasuna izan dezan. Beraz, matrize guztiak ez lirateke egokiak izango; esate baterako, sendogarri asko dituzten zeramikak, aipatutako Zamorako eltze ezagunak, edota ez-dekantatutako pastak, adibidez, zeramika-ekoizpenaren lehen etapakoak.

